


XXI. GIZALDIKO IRAKASKUNTZA IKASKUNTZA KOOPERATIBOA IK/KI PROGRAMA GIPUZKOAN

Gomendio praktikoak

Jose Maria Arakama eta M^a Victoria Fernández
(Koordinatzaileak)

José Luis Alberdi, Maider Beitia, Jesús Maria de la Mota,
Maria Luisa García Gurrutxaga, Javier Lacunza, Pedro Roa,
Teresa Santos Cañas, Maria Soledad Uria
(Gipuzkoako Berritzeguneetako Aholkulariak)

Hitzaurrea: **Jose Antonio Pinedo**
(Gipuzkoako Berritzapen Zuzendaria)




XXI. GIZALDIKO IRAKASKUNTZA. IKASKUNTZA KOOPERATIBOA. IK/KI PROGRAMA GIPUZKOAN.

Gomendio praktikoak.

Jose Maria Arakama eta M^a Victoria Fernández (Koodinatzaileak), José Luis Alberdi, Maider Beitia, Jesús Maria de la Mota, Maria Luisa García Gurrutxaga, Javier Lacunza, Pedro Roa, Teresa Santos Cañas, Maria Soledad Uria (Gipuzkoako Berritzeguneetako Aholkulariak).

Hitzaurrea : Jose Antonio Pinedo (Gipuzkoako Berritzapen Zuzendaria).



(Iturria: UVIC).

Aitortu – Ez komertziala – Partekatu berdin



Aitortu – Ez komertziala – Partekatu berdin



Hitzaurrea. Jose Antonio Pinedo.	5
Pere Pujolas maisuari esker onak. Guipuzkoako Berritzeguneetako aholkulariak.	7
Aurkezpena: IK/KI Programaren aurkezpen laburra. Jose Maria Arakama eta Maria Victoria Fernández.	9
Sarrera. Jose Maria Arakama.	13
1. Zergatik Ikaskuntza kooperatiboa? Zergatik IK/KI? Jesús Maria de la Mota.	15
IK/KI Programaren ezaugarriak. Programa berritzailea. Aniztasuna, inklusioa, berdintasuna. Metodologiaren aldaketaren beharra. Euskal Curriculumarekin bat. Europako haize berrietara hurbiltzen. Oinarrizko konpetentziak. Adituek asko lagundu dute. IK/KI erraza da. Gomendio praktikoak.	
2. IK/KI programaren hamaika ezaugarri praktiko. Jose Maria Arakama.	21
Taldean gehiago ikasten da. Eginez ikasten da. Etorkizunari begira jarri beharra dago. Betikoak ez du balio. Denon eskubidea da: inklusioa. Oinarrizko errenta kulturala: oinarrizko konpetentziak. Ebaluatzen ez dena ez da existitzen. Adimen sozio-emozionala aurrena, eduki kognitiboak ondoren. Irakasle berria VS irakasle tradizionala: Proiektu etikoz jantzia. Hausnartzea ohiko jardura du. Kooperazioa eta elkarbizitza banaezinak dira. Elkarbizitza ere eginez ikasten da.	
3. IK/KI-ren oinarri teorikoa. Jose Maria Arakama	33
Inklusioa du ardatz. Oinarrizko gaitasunak berezkoak ditu. Ez da zaila. Zehatza eta malgua da aldi berean. Segurtasuna ematen du. Guztiz eramangarria da. Irakaskuntza pertsonalizatua errazten du. Ikaslea da protagonista. Elkarbizitza lantzen du. Elkarbizitzen ere eginez ikasten da. Ikasteko modurik eraginkorrenetakoa irakasten jartzea da. Ez dio irakasleari iraultza eskatzen: abiapuntua norberaren praktika arduratsua da. Irakaslearen alderdi hezitzailea indartzen du. Koordinazio era guztietakoa sustatzen du.	
4. IK/KI-ren ibilbidea Gipuzkoan. Pedro Roa.	43
Plan estrategikoak eta planifikazioak beharrezkoak dira eskolan, baina eskolak duen praktikari eta beharri lotzen ez bazaizkio, nekez txertatzen dira ohiko praktikan. Pertsona bakoitza aldaketaren eragilea da. Aldaketa inportanteegia da adituen esku uzteko. Aldaketa bidai bat da, ez da lineala, pasioz eta zalantzaz beteta egoten da. Arazoak gure lagunak dira, ekidinezinak dira eta ezin dugu arazorik gabe ikasi. Funtsezkoa da konexio handia izatea ingurukoekin. Eskola eta erakunde jakintsuek ikasten dute bai barruko esperientziekin bai eta kanpokoekin ere. Garrantzitsua dena ezin da aginduaren bidez inposatu: zenbat eta sakonagoa izan aldaketa hainbat eta gutxiago ezartzen da indarraren bidez. Aldaketa sakonak zailak dira eta guztion konpromisoa eskatzen dute. Gipuzkoako Berritzeguneetako IK/KI mintegiak. IK/KI-ren praktika Gipuzkoako ikastetxeetan. Gomendio praktikoak.	
5. IK/KI-ren berriztatze pedagogikoa eta hezkuntza kalitatea. Mara Victoria Fernández	49
Berriztatze pedagogikoa. IK/KI errekurso eraginkorra. Hezkuntza kalitatea / kalitatezko hezkuntza. Hobekuntza planak: Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua, Antolaketa eta funtzionamendu-esparrua, Komunitate-esparrua, Garapen profesionalaren edo prestakuntzaren esparrua. Gomendio praktikoak.	
6. IK/KI eta 14 praktika onen adierazleak. Maider Beitia eta Jose Maria Arakama.	55
Proiektuen, planen eta prestakuntzaren kudeaketa. Metodologia eta irakaskuntza materialak. Aniztasunaren trataera. Irakaslearen jarraipena, banan-banako atentzioa, orientazioa eta tutoretza. Irakaslearen ebaluazioa. Denboraren kudeaketa. Aitzindaritza edo lidergoa eta	



zuzendaritza taldeak. Kudeaketa eta antolaketa ereduak. Koordinazioa. Ikastetxearekiko atxikimendua. Irakasleen, ikastetxearen beraren eta programen ebaluazioa eta Ebaluazio Diagnostikoaren erabilera. Ikastetxeko giroa eta bizikidetzak. Ikastetxearen irudia, azpiegiturak eta baliabideak. Familia, gizarte eta giza kapitala. Gomendio praktikoak.

7. IK/KI-k oinarritzko konpetentziak lantzen ditu modu naturalean. Javier Lacunza. 71

Oinarri teorikoak. Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia. Matematikarako konpetentzia. Zientzia, Teknologia eta Osasunerako konpetentzia. Gaitasun digitala eta informazioaren trataerakoa. Gizarterako eta hiritartasunerako konpetentzia. Kultura humanistiko eta artistikorako konpetentzia. Ikasten ikasteko konpetentzia. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia. Aholku zehatzak.

8. Ikastetxean eman beharreko urratsak eta prozesua. Jose Luis Alberdi. 81

Arrakastatsua den metodologia. Ikasketa Kooperatiboak hezkuntza komunitatean itxaropena sortzen du. Bikaintasunerako eta hobekuntzarako prozesuan Ikasketa Kooperatiboaren irizpideak. Goi mailako helburuak dituzte. Gomendio praktikoak.

9. IK/KI-ren aholkularitza. Maria Luisa García, Teresa Santos, Maria Sol Uria 85

Aholkularitza IK/KI programan. IK/KI Programaren aholkularitzarako ardatzak. IK/KI Programan aholkularitzaren lan eta esku-hartze eremuak: Berritzeguneak, ikastetxeak eta beste erakundeak. Ondorioak: BGetan genuen Aholkularitza ereduaren sendotze bat eman da, eskualdeko aholkulari erreferentearen figura berretsiz. Ikaskuntza Kooperatiboa programak aholkulariaren konpetentziak areagotu egin ditu. IK-KI programaren aholkularitzarako gomendioak.

10. Ondorioak eta erronkak. Jose Maria Arakama. 93

11. Eranskinak. 97

Autotxostena. Talde planak. Talde Planaren errebisioa. Errubrikak. Ikastetxeko orokortze plana. Gelako koadernoak. Ikastetxeko antolamendua.

12. Bibliografia. 131



HITZAURREA / AURKEZPENA.

Jose Antonio Pinedo. (Gipuzkoako Berriztapen Zuzendaria).

Argitalpen honetan, “*Cooperar para Aprender / Aprender a Cooperar (CA/AC)*” “Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi” (IK/KI) programak Gipuzkoan azkeneko 6 urteotan ibilitako bidea aurkeztu nahi dugu. Argitalpen honetan erakusten dira programaren funts teorikoa, berak dakarren berrikuntza pedagogikoa, bultzatzen duen eskumenen garapena, jarraitu zaion prozesua eta emandako aholkularitza. Gainera, azpimarratuta gelditzen dira praktika egokien adierazleak, aztertutako erronkak eta aurreikusitako ondorioak. IK/KI programa bultzatu dutenak elkarlanean aritu dira programa euren zonetan sustatzen eta koordinatzen dutenekin eta euren ikasgeletan ezartzen dutenekin. Elkarlan horren emaitzak dira azaltzen diren hausnarketak, sustatzen diren jarduketak eta erabiltzen diren tresnak.

Balioetsi eta azpimarratu nahi dut Gipuzkoako Berritzeguneetako aholkulariek eta bereziki IK/KI programaren aholkulariek argitalpen hau aurkezteko egin duten lana. Horretaz gain, eskertu nahi ditut burutu den esfortzu pertsonala, taldearekiko inplikazioa eta hemendik, ikaskuntza kooperatiboa sustatzeko eta hezkuntza berriztapena garatzeko egiten den ekarpena.

Nabarmendu nahi dut, bestalde, Gipuzkoako eta Euskal Herriko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleek IK/KI programa (Ikasteko Kooperatu/Kooperatzen Ikasi) honen alde erakutsi duten gogoberotasuna eta konpromisoa. Programa hau ikaskuntza kooperatiboan oinarritzen da eta berau osatzen duten jarduketek ikasleak taldeka lan egitera eta ikastera bideratzen dituzte, betiere ikaskuntzaren eraikitze kooperatiboaren prozesu baten barne.

Slavinek, Robertek eta beste batzuek (*1985) adierazi zuten bezala taldeka lan egitea ez da soilik baliabide bat (Ikasteko Kooperatu), baizik eta eduki bat ere bai (Kooperatzen Ikasi). Paradigma hau, behin garatu eta gero, irakasteko eta ikasteko lanaren erreferente egokia bihurtzen da eta gaitasunetan oinarritutako hezkuntzaren proposamen metodologiko bat, gaurkotasun handikoa dena, plazaratu eta eraginkor bihurtzen du.

Espero dugu argitalpen hau gizabanakoaren hausnarketa eta prestakuntzarako oinarri ona izatea, irakasteko eta ikasteko praktika onak sortzeko motibatzea eta espero dugu bitarteko baliagarria izango dela, “hemen eta orain”, gero ikastetxeetan hobetzeko ere bai.

(*)Slavin, Robert eta beste batzuk (1985): *Learning to cooperate, cooperating to learn*. Englewood Cliffs: Prentice Hall.





PERE PUJOLAS MAISUARI ESKER ONAK.

Berritzeguneetako aholkulariak.

Ustekabeen eta isilik joan zaigu Pere, baina bere hitzak, bere hurbiltasuna, berarekin ikasitakoa, eta aurrera jarraitzeko erronkak gurekin gelditzen dira.

Eskarmentuko gizona izan da, esperientzia handikoa, hamaika ikusi, ikasi eta landutakoa, eta horregatik eskaini izan diguzu era xume, argi eta garbian, bizi izateko ikasgai handia: bikain bizitzeko, elkarrekin, lagunduz, kooperatuz, aritu behar dugu! Baina horretarako gai jaiotzen bagara, ikasi beharrekoa dugu!

Elkarrekin gehiago eta hobeto garelako ikasgai handia hezkuntza mundura ere ekarri izan duzu. Izan ere, denok, handi eta txiki, heldu eta heldugabeak, horretan ikasi eta horretan aritu beharra sumatzen zenuen. Horrela ikasiz, horrela izanik, horrela bizirik, denok, hobeto izateko aukera askoz gehiago zirela ikusten zenuen.

Patxadaz, pazientziaz, denbora emanez, zainduz, erreparatuz, mimatuz, landu izan duzu denok hobeto izateko hazia, ikasketa kooperatiboa. Bizitzaren zati handi bat eman duzu horretan. Zure hazia erein izan duzu eta haziak bereak eman ditu, asko gainera, fruitu oso onak. Dastatzen dituenak nekez uzten du.

Zure ondoan talde gisa izaten eta lana egiten erakutsi izan duzu. Horrela izan behar genuela erakutsi izan diguzu. Ereduz irakatsi duzu. Ikasteko ona dena, bizitzeko ere; nola ikasi hala bizi; nola bizi merezi, hala ikasi. Bizigai ikasgai bihurtu duzu. Eta guk ikasgaia ikasteari ekin diogu. Ikasgaia, guztiz, agian ez dugu ikasia, baina jarraituko dugu horretan. Talde bat gara, talde handi bat gara, hala sentitzen dugu, hala bizi dugu; sarean gara, harremanetan gara.

Zurekin egindako bidea portu onera garamatzala ez dugu zalantzarik egiten. Ez da nekea, ez da bide txar, aurrera eta aurrera goaz, merezi duelako eta mesedegarria delako. Ikasleentzat. Guretzat. Denontzat.

Horregatik, izan zaren guziagatik, egin duzun guziagatik, eman izan diguzun guziagatik, ezagutzen gaituzun, ezagutzen zaitugun eta zure eragina jasotzen dugun guzien izenean **ESKERRIK ASKO**. Zu gure artean izatea, zu ezagutu izatea, zu bizi izatea askorentzat mesedegarria eta onerako izan da. **ESKERRIK ASKO**. Luzaroan zure izena eta izana ezagutuak izango dira. **MEREZI DUZULAKO**. Eta maisu handi guztiekin bezala, zure **LANEAN ZUK** jarraitzen duzu.

Egindako lanari ilusioz jarraipena emango diogu, asko gara bidean gaudenak, erreleboa hartzeko eta emateko prest gaudenak, **Perek**, gure adiskide eta maisu maiteak, aipatu ohi zituen enarak bezala.

Eskerrik asko, Pere.





AURKEZPENA: IK/KI PROGRAMAREN aurkezpen laburra.

Jose Maria Arakama, Lasarteko BGko aholkularia eta M^a Victoria Fernández, Irungo BGko aholkularia.

Aurkezpen moduan, interesgarria eta egokia da gogora ekartzea justifikazio moduan zer dion IK/KI-ren onurak zabaltzeko erabili dugun erreferentziako testuak: (Pujòlas ,P. eta Lago, J. R. (Koord.). IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi») TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan. VICeko Unibertsitatea).

Horrekin batera, laburbilduta, programak proposatzen duen ibilbidea erakutsi nahi da. Hona:

“Horregatik, dokumentu honetan aurkezten den programaren atzean dagoen ikasketa-egituran, hezitzaile-ikasle elkarreraginaz gainera (eta ez orde) oso kontuan hartzen da ikasle-ikasle elkarreragina, eta hortaz, banakako ahaleginari eta lanari ez ezik (eta ez lan horren orde) talde-lanari ere garrantzi handia ematen zaio.

Ikuspegi aldaketa horrek, hezkuntzako esku-hartze orotan, **hiru norabide paralelo** eta osagarritan aurrera egitea Dakar. (1. irudia):

1. **Irakaskuntza pertsonalizatzea:** hau da, irakasten duguna eta irakasteko modua ikasleen ezaugarri pertsonaletara egokitzea eta doitzea. Ikasle guztiak ez dira berdinak (motibazio, ahalmen, ikasketa-erritmo, eta abar desberdinak dituzte), eta hortaz, ezin diegu berdinak balira bezala irakatsi.
2. **Ikasleen (neska eta mutil) autonomia edo beregaintasuna** (ikasketa autoerregulatzeko estrategiak): ikasteko orduan, zenbat eta ikasle beregain gehiago eduki, edo, gutxienez, zenbat eta beregainagoak izan, denbora gehiago izango dugu hasieratik horren beregain ez diren ikasleei eskaintzeko.
3. **Ikasketaren egitura kooperatiboa:** gela egituratzeko garaian «irakasten» duten bakarrak maisua edo maistra izan orde, ikasleak ere, lan kooperatiboko talde txikietan, **elkarri «irakasteko» gai eta elkarri laguntzeko gauza izan daitezela**, ikasteko orduan.



1. irudia (Iturria: UVIC).

Sinetsita gaude aipatutako hiru zutabeekin lotutako estrategia-konbinazioz eratutako pedagogia-antolaketa konplexu horrek (konplexua baita aurrean duen erronka) zeinahi hezkuntzako esku-hartzeren xede diren gizabanako guztien garapen pertsonal eta sozial handiena ahalbidetzen duela, ikasle horiek beren artean desberdinak edo oso desberdinak izan arren.



(Iturria: UVIC)

Eraginkortasunari begira, esan dezakegu jardueraren egitura kooperatiboa ikasleek jarduera edo lan jakin bat gauzatzekoan egin behar dituzten eragiketak era zehatz batean antolatzea dela, Spencer Kagan-ek (1999) **berdintasunezko parte-hartzea eta aldibereko elkarreragina** deitzen dituenak maila gorenean ziurtatzeko moduan.

Johnson, Johnson eta Holubec-en ikasketa kooperatiboaren definiziotik abiatuta eta oraintxe aipatu berri ditugun Spencer Kagan-en (1990) ekarpenak aintzat hartuta, ikasketa kooperatiboa ikasle talde txikien –osaketa heterogeneokoak gehienetan, errendimenduari eta ahalmenari dagokienez– erabilpen didaktikoa da eta, jardueraren egitura horren bitartez, honako hauek bilatzen dira: **berdintasunezko parte-hartzea ahalik eta gehien ziurtatzea** (taldekide guztiek parte hartzeko aukera berdina izan ditzaten) eta **berorien arteko aldibereko elkarreragina indartzea**, taldean lan egiten ikasteaz gainera, taldekide guztiek proposatutako edukiak ikas ditzaten, norberaren ahalmenak neurri gorenera eramanez.

Zehaztu berri dugun definiziotik, ondorengo alderdiok nabarmen daitezke:


- Ikasketa kooperatiboko **talde bateko kideek erantzukizun bikoitza dute**: irakasleak irakatsitakoa norberak ikastea eta taldekideek ere ikas dezaten laguntzea.
- **Irakasleek**, berriz, bi xedetarako erabiltzen dute ikasketa kooperatiboa: ikasleek eskolako edukiak ikas ditzaten eta, aldi berean, taldean lan egiten eta solidario izaten ikas dezaten, azken bi horiek eskolako eduki gisa hartuta. Alegia, **ikasteko kooperatu eta kooperatzen ikasi ...**
- Ikasketa kooperatiboa ez da soilik eskolako edukiak hobeto ikasteko metodo edo baliabide bereziki baliagarri bat, baizik eta **ikasleek ikasi beharreko curriculum eduki bat gehiago**, hau da **irakatsi behar zaien ikasgai** bat.

Gelako ikasketa modu kooperatiboan egituratzeko esku-hartze eremuak

Edozein hezkuntza erakundetan, oro har (ez bakarrik eskolan), jardueraren egitura indibidualista edo lehiakorretik egitura kooperatibora igartzeko – dokumentu honen lehenengo zatian defendatu dugun moduan – eta hortaz, erakunde horretako parte-hartzaileek elkarrekin lan egiteaz gain ahalik eta garapen pertsonal eta sozial handiena lortzeko lankidetzan aritzeko, hori ahalbidetuko diguten baliabide didaktikoak bilatu, garatu eta egokitu behar ditugu.

Programaren barruan, baliabide didaktiko horiek elkarri estu lotutako hiru esku-hartze eremuren inguruan artikulatzen dira (ikus 3. irudia) (Pujolàs, 2008):





3. irudia (Iturria: UVIC).

A esku-hartze eremuak taldearen kohesioarekin loturiko jardun guztiak biltzen ditu, pixkanaka, gela bateko ikasleek talde-kontzientzia har dezaten eta denborarekin ikasketa-komunitate txiki bilaka daitezten. Esku-hartze eremu hau behin eta berriz azpimarratu behar da. **Taldearen kohesioa inoiz alde batera utzi behar ez den alderdia da**, edozein unetan sor baitaitezke gelako giroa nahas dezaketen arazoak edo zailtasunak, eta ondorioz, giro egokiago bat sortzea eskatzen dutenak. IK/KI Programak batik bat tutoretza orduetan gauzatu beharreko eta gelako giroa hobetzera bideraturiko jarduera-sorta biltzen du (taldeko dinamikak, jolas kooperatiboak, jarduerak...).

B esku-hartze eremuak bere baitan hartzen ditu **ikasteko baliabide gisa** talde-lana erabiltzen duten jardunak, horrela lan eginda, haurrek **hobeto ikas ditzaten eskolako edukiak, elkarri laguntzen diotelako**. Esku-hartze eremu horretarako IK/KI Programak hainbat jarduera-egitura kooperatibo biltzen ditu, ikasleek curriculumaren alderdi guztietan aurreikusitako ikasketa-jarduerak egiterakoan irakasleak talde-lana gero eta gehiago erabiltzen duen baliabidea izan dadin.

Noizean behin modu kooperatiboan antolaturiko jarduerak egitea neurri interesgarria da ikasketa kooperatiboa txertatzeko, baina jarduera antolatzeko modu horrek ikasleei ematen dizkien onurak lortzeko, ikasgela sarriago antolatu beharra dago modu kooperatiboan. Hori horrela izanik, ikasketa jardueraren bat gauzatzeko noizean behin egitura kooperatiboren bat aplikatzeak irakasleek egitura horiekin konfiantza hartzen eta gero eta gehiago erabiltzen lagun dezake. Irakasleek egitura horiek gero eta ziurtasun handiagoarekin erabiltzen dituzten heinean, oso litekeena da unitate didaktikoak haietako batzuk elkarri lotuta antolatzen amaitzea.

Talde-lana irakasteko baliabide bat izateaz gain irakatsi beharreko edukia dela ulertuta, C esku-hartze eremuak ikasleei taldean lan egiten modu esplizituan eta sistematikoan irakasteko eta gelako saioak horrela antolatzeko jarduerak biltzen ditu. Hori dela-eta, curriculumaren hainbat arlotatik, ikasleei modu egituratuagoan irakatsi behar zaie taldean lan egiten, talde-lana irakasteko baliabide gisa erabiltzeari utzi gabe. Helburu horrekin, IK/KI Programak, azkenean, bi baliabide didaktiko oso erabilgarriren deskribapena biltzen du – **Taldearen Planak eta Taldearen Koadernoak**– baita gizarte-trebeziak eta kooperatiboak modu sistematikoan irakasteko eta indartzeko talde-dinamika eta egitura multzoa ere.

«Taldea-lana» edukiaren irakaskuntza –eskola-aldian zehar ikasleei irakatsi behar zaizkien oinarrizko gizarte-gaitasun nagusietako gisa hartuta– ezin zaio arlo jakin bati atxiki. Baliteke «zeharkako» eduki horiek ez modu esplizituan irakastea, guztion ardura direnez, ez baitira inorena zehazki. Hortaz, ikastetxeko programazioaren erabakia izango da gure ikasleei taldean modu kooperatiboan lan egiten noiz eta nola irakatsi.



Esku-hartze eremu hauek, esan bezala, estuki lotuta daude: taldea kohesionatzeko parte hartzen dugunean (A esku-hartze eremua), ikasleek taldean lan egiteko beharrezko baldintzak sortzen laguntzen dugu (B esku-hartze eremua), nahiz eta baldintza horiek ez diren oraindik nahikoa, eta taldean lan egiteko nahia izan dezaten eta ikas dezaten ahalbidetzen dugu (C esku-hartze eremua). Baina B esku-hartze eremuan egitura kooperatiboak erabiltzen ditugunean, egiaz, taldea gehiago kohesionatzen (A esku-hartze eremua) eta ikasleek taldean lan egiten ikas dezaten ere laguntzen dugu (C esku-hartze eremua). Eta antzeko zerbait gertatzen da enfasia taldean lan egiten irakastean jartzen badugu (C esku-hartze eremua), horrela hobeto erabiltzen baitituzte B esku-hartze eremuko egitura kooperatiboak eta taldea hobeto kohesionatzen laguntzen baitugu (A esku-hartze eremua).

*Azkenik, **ohartarazi nahi dugu hiru eremu horietan jarraian eta modu simultaneoan lan egin beharra dagoela.** Hiru eremuen berezko esku-hartzeak batera gertatzen dira epe luzean, alde batetik, eremu erabakigarriak direlako jarduera modu kooperatiboan egituratzeko unean, eta bestalde, jardueraren egitura kooperatiboa – taldean lan egiten ikastea bezalaxe – ez delako aldi bakarrean eta kolpez lortzen den zerbait, aldiz, bilakaera progresiboa delako eta etengabe hobeto dezakegulako.*

(Pujòlas, P. eta Iago, J. R. (Koord.). IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi») TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan. VICeko Unibertsitatea).



SARRERA.

Jose Maria Arakama. Lasarteko BGko aholkularia.

IK/KI programa zabaltzen ari da gure Erkidegoan, modu azpimarragarrian zalantzarik gabe.

Programaren jatorrizko izena *Cooperar per Aprendre/Aprendre a Cooperar (CA/AC)* da, eta izenburuaren ahoskatze-soinuak garbi uzten digu nondik datorkigun; zehatzago esanda, VIC hiriko Unibertsitatetik (UVIC).

Hango adituekin harreman estua, ugaria eta oparoa izan dugu. Bi izen nabarmenduko ditugu: Pere Pujolàs eta José Ramón Lago. Hitzaldiak, Sinposioak, ikastaroak, bilerak, bideo-konferentziak, telefono-deiak, e-posta, WhatsApp ..., horiek guztiak eta gehiago baliatu ditugu haiekin komunikatzeko, haiengandik ikasteko eta haiekin partekatuzeko.

Aurreko elkarrekintza-modu sorta horrek ederki asko adierazten digu zer tamainakoa izan den aditu horien prestutasuna eta eskuzabaltasuna. Hori bakarrik ez, hasieratik partekatu dituzte gurekin programa garatzeko beharrezkoak ziren testuak, aurkezpenak eta euren ikerketaren fruituak. Dena libre eta muxu-truk. Hori izan da, zalantzarik gabe, IK/KI Programaren hedakuntzaren arrazoitako bat. Gure esker on zintzoena helarazi nahi diegu.

Baina, haziak lur ona eta ura behar dituen bezala, esan daiteke IK/KI Programak bi elementu horien baliokideak aurkitu dituela hemen; hain zuzen ere, Berritzegune-sarea (lurra) eta programaren hedapenerako antolamendua eta erabakiak (ura). Ez da harrokeria esatea zentro horietan jarduten dugun *aholkulariok* epe laburrean egin dugula *gure* ikaskuntza kooperatiboa garatzeko sortua den CA/AC programa; besteak beste, etorkizunari begira, atarramentu pedagogiko onaren zantzua eman diogulako.

Lehenbiziko kate-maila horri besteak eransten joan gatzazkio: euskarazko bertsioa eratzea (*Ikasteko Kooperatu eta Kooperatzen ikasi - IK/KI*), aholkularion formazioa eta koordinazioa, ikastetxeetan zabaltzeko prozedura erabakitzea, informazioa ugaritzea, mintegiak sortzea eta abar luzea.

Eta, IK/KI Programak izan duen zabalkundearen beste arrazoitako bat horixe izan delakoan gaude. Beste modura esanda, Berritzeguneek eratu duten egitura ikastetxeetara ailegatzeko eta Berritzeguneetako aholkularien arteko komunikazioa, esperientzia-trukea eta koordinazioak nabarmen erraztu dute programa berriztatzailearen hedatzea.

Aipatutako arrazoi-bikoteak eragin duen mugimenduari erreparatuta, gustuko genuke *praktika on* baten aurrean gaudela entzutea. Gu uste horretan gaude eta, horrek, bigarren esker-ematera ekarri gaitu: ikastetxeetako irakasle zein zuzendaritza-taldeetako kide berriztatzaileei eta, baita ere, Berritzeguneetako aholkulari zein zuzendari sustatzaileei. Horiei guztiei zor zaie argitalpen honek duen asmoari ateak zabaltzea. Eskerrik asko.

Bestalde – eta bukatzeko- argitalpenaren ezaugarri batzuk adierazi nahiko genituzke, irakurketa erraztuko dutelakoan:

- Autoreak Gipuzkoako Berritzeguneetako aholkulariak dira. IK/KI Programa ondo ezagutzeaz gain, nor bere Berritzeguneko IK/KI Mintegiko gidariak dira. Horrezaz gainera, *IK/KI Gipuzkoa* koordinazio-taldeko kide - edo hurbileko- dira.
- Autore bakoitzak gai bati heltzen dio eta kapituluek puzzle modukoa osatzen dute, ez dute sekuentzia lineala edo kronologikoa jarraitzen; ondorioz, testua saltoka irakur daiteke. Salto horiek errazteko aurkibide zabala eta xehatua eskaintzen da.



- Gai bakoitzak kapitulu propioa hartzen badu ere, denek dute xede berbera: ikasturteotan bildutako hausnarketak eta programaren arrakastarako erabakigarriak gerta daitezkeen iradokizunak (gomendio praktikoak) ematea.
- Gomendio praktikoak koadrotan sartu dira, kolore deigarri batez estalirik. Horrela, nabarmenduta uzteaz gainera, aisa bilatzea eta irakurtzea erdietsi nahiko genuke.
- Bibliografia: kapitulu bakoitzean erreferentzia bibliografikoak txertatuta daude; hala ere, bibliografia osoa argitalpen honen azken ataletan aurkitzen dira.



1.-ZERGATIK IKASKUNTZA KOOPERATIBOA, ZERGATIK IK/KI?

Jesus M^a de la Mota (Zarauzko Berritzeguneko etapa aholkularia).

Urte batzuk dira, Ikaskuntza Kooperatiboa programa gure lurraldean era esanguratsuan lekua hartzen hasi zela. 2008-2009 ikasturtean Lasarteko Berritzeguneak, Elkarbizitza Mintegian lekua egin zion, arrazoi sinple bezain taxuzko bat medio: elkarbizitza lantzeko elkarbizitza erein behar da. Garbi ikusi baitzen metodologia indibidualista tradizionalak ez zuela elkarbizitza-efektu nahikorik lortzen; beraz, beste bidetik jo beharra zegoen. Hartara, kooperazioan oinarritutako metodologiari heldu zitzaion. Eta, berehala ikusi zen ikaskuntza kooperatiboaren lanketak bere bide propioa eskatzen zuela. Hala sortu zen IK/KI Mintegia.

IK/KI, edo **IKASTEKO KOOPERATU ETA KOOPERATZEN IKASI**, Bartzelonako Vic hiriko Unibertsitateak erarik eskuzabalenean oparitutako programa da. Bere zioa, hain entzuna den metodologia kooperatiboa ikasgelaratzeko da, berau, ikasleek hobeto eta gehiago ikas dezaten eta irakasleek hobeto eta gehiago irakats dezaten guztiz baliagarritzat eta gomendagarritzat jotzen delako.

IK/KI-ren zergatietan haratago joateko Interesgarria eta egokia da gogora ekartzea justifikazio moduan zer dion IK/KI-ren onurak zabaltzeko erabili dugun erreferentziazko testuak: *Pujòlas, P. eta Iago, J. R. (Koord.). IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi») TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan. VICeko Unibertsitatea* (Ikus bibliografia atala).

Eta, gida moduan erabiltzen dugun testu ezinbestekoari men egin ondoren plazaratu ditzagun arrazoi gehiago kapitulu honen izenburuak diona garatzeko: “Zergatik Ikaskuntza Kooperatiboa?”

Programa berriztatzailea da: XXI. Gizaldiko gizarteak hezkuntza-sistemari eskatzen dizkion aldaketei eta egokitzapenei so dagoelako; hau da, etorkizunari erreparatzen dio, han dago eta gure ikasleek biziko duten mundua.

Eta, bestalde, aintzat hartzen du bazter ezinezko beste zirkunstantzia hau: irakasleriaren jatorria eta formazioa. Izan ere, egungo irakasleak aurreko gizaldian haziak eta heziak izan dira. Horientzako ere, proposamen egokiak ditu. IK/KI Programak bere egiten ditu *irakasle berria* definitzen duten hainbat ezaugarri.

IK/KI erraz hedatzen da: Lasarteko Berritzeguneko mugak gainditu eta egun Gipuzkoako Berritzegune guztietako prestakuntza-ekintza nagusienetako bat bihurtu zaigu. Araban eta Bizkaian ere ederki hedatzen ari da.

Argitu beharra dago Ikaskuntza Kooperatiboaren aldeko bolada hau ez dela lehenengoa izan. Izan ere, aurretik, duela hamar urte pasa, aukera metodologia bera, aditu zenbaiten eskutik aurkeztu izan zen hainbat Berritzegunetan eta ikastetxetan. Hala ere, orduan ez zuen sustrairik bota. Garaia ez itxuraz! Orain, berriz, hedapenerako baldintza egokiak ematen direla dirudi. Kapitulu honetantxe saiatuko gara oraingo hedapenaren arrazoien beri ematen.

Egia esan, gure lurraldeko egoera soziala aldatu egin da azken hamarkadetan, eta gure ikastetxeak eta ikasgelak ez dira aldaketa horietatik kanpo geratu, besteak beste aniztasuna aurrean dugulako edonon, eta kolore askotakoa gainera. Gure ikastetxeen ezaugarri berri honen kudeaketa azkar egiten ikasi behar izan dugu eta horretan Ikaskuntza Kooperatiboaren eskutik aritzeak bidea erraztu baino ez digu egin.

Aniztasuna, inklusioa, berdintasuna etab., egunero modu praktikoan lantzeko bidea eman digu.

Jakitun gara: aniztasuna bizitzari, gizarteari eta hein berean ikastetxeoi dagokigun errealitatea dugu. Gizartea osatzen dugun gizon eta emakumeok, neska eta mutilok, anitzak,



desberdinak, banan-banakoak, propioak, bereziak garen heinean gure gizarte anitza osatzen dugu. Ikastetxea dagokion gizarte anitzarekin bat egitean anitzak diren neska mutilak hartzen ditu bere baitan; eta gizarte anitzari zerbitzua eskaintzean, bere neska-mutilak, aniztasunezko eta berdintasunezko giro onean bizitzeko prestatu behar ditu bere ikasleak. Hori inklusioa da, eta "inklusioa da euskal hezkuntza sistemaren ardatza".

175/2007 DEKRETUA urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa. Eta III eranskina. EHAA 2007ko azaroak 13. Berreskuratuta 2014ko azaroaren 30ean, helbide honetatik

<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2007/11/0706182a.pdf>

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43->

[2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/adjuntos/iii_eranskina_oinarrizko_gaitasunak.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/adjuntos/iii_eranskina_oinarrizko_gaitasunak.pdf)

Jakitun gara: aniztasunak bere baitan hamaika errealitate du: ikasleen jatorri anitzak, etxekoen sustrai anitzak, gaitasunetan, asmoetan, nahietan, interesetan, baloreetan, baita behar eta arazoetan ere.

Jakitun gara: ikasle guztiek dute ikasteko eskubidea; egoera horretan ere bai.

Jakitun gara: inklusioa eguneroko lana da. Baina, nola hobeto?

IK/KI Programak eman digu erantzuna bere ezaugarrien bidez: egunerokoa, arlo guztietarako, irakasle guztientzako eta ikasle guztientzako da.

Metodologia-aldaketaren beharra nabarmena delako: ikasgeletako aniztasuna kontuan izanik, gure ikasle denei ahalik eta hobekien erantzun nahirik, giro onean erakutsi nahirik, lan egiteko era aldatu beharrean ginela ohartuta geunden. Horretarako, metodologia aldaketa eragin beharra zegoen. Curriculumak norabidea garbi adierazi arren, hausnarketari ekin beharrean geunden *irakaskuntza* kontzeptua nagusi den eremuan *ikaskuntza* kontzeptua gutxienez bere parean jartzeko. Gainera, gure ikasleak *oinarrizko konpetentzietan* hezteko erronka berriaren aurrean ginen (tartean elkarbizitzako konpetentzia). Horiek guztiak izan ziren hizpide eta hausnarketa-gai Elkarbizitza Mintegiko irakasleen artean, ondorio honetara iritsi zelarik: ikasleek beste era batetara ikasiz gero, ikasgeletako nahiz eskoletako giroa, baita ikas lorpenak ere hobetu egingo lirarteke. Baina nondik hasi?

IK/KI Programak eman digu erantzuna bere ezaugarrien bidez: ikaslea da protagonista, eginez ikasten da, elkarrekin gehiago eta hobeto ikasten da...

Cooperar para Aprender/Aprender a Cooperar programa. Gauzak honela, hara non Gasteizeko Berritzegunearen eskutik, José Ramón Lagoren formazioa jasotzeko aukera ematen zen 2008ko udazkenean. Gaia CA/AC proposamena: *Cooperar para Aprender/Aprender a Cooperar Programa*. Gasteizen aipatutako saiora joan, eseri, entzuten hasi orduko gure metodologia aldaketarako alternatiba bikaina ote zen pentsatzen hasi, hurrenez hurren! Aukera galezina zirudien. Egindako balorazioa oso positiboa izan zen, besteak beste, proposamen praktikoak egingarriak, eramangarriak, irakasleen eta aholkularien asmoekin bat zetozenak baitziren. Eta lehenengo harremana gauzatzen da VICeko Unibertsitatearekin.

Euskal Curriculumarekin bat. Gasteizen entzundakoa musika atsegina zen gure belarrietarako. Programaren helburuak eta oinarriak bat egiten zuten Euskal Curriculumaren helburu eta oinarriekin: inklusioa, oinarrizko gaitasunak, elkarbizitza.

Gainera, autonomia, kooperazioa, denen parte-hartzea, parte-hartze ekitatiboa, erantzukizun indibidualen oinarritutako talde-lana, ikasle guztiak aintzakotzat hartzea, aktibotasuna, elkarri laguntzea, taldekide izatea, elkartasuna, elkarri erreparatzea, ikasketetan aurreratzea eta talde lanetan hobetzea ..., izan ziren entzundako kontzeptu-gakoetako batzuk. Ezin egokiagoak, zinez! Horien atzetik bilaka aritu eta aurkitu!



Bizikidetza mintegian, giro onaren bila aritu eta genuen eskola eta geletako giroa alda zezakeen giltza esku artean genuelakoan ginen. Hortik aurrera, bidea egiten hasi ginen: CA/AC Ikaskuntza Kooperatiboko programaren arduradunekin harremanetan hasi, aurrez aurreko saioak prestatu, formazioa planifikatzen hasi, ikastetxeetan zabaldu, frogatzen hasi eta dena antolatu.

Irria aurpegian, Ikaskuntza Kooperatiboaz entzuten hasitakoa berehala geletara eramatea proposatu genuen. Ikusitakotik ikasi eta ikasitakoa ikasleei eskaini. Hobekuntzak berehala: giroa hobetu, ikasleen protagonismoa nor bere ikaskuntzan, parte-hartzea handiagoa ...

Europako haize berrietara hurbiltzen gara: hori sentitzera iritsi gara kooperazioaren bide metodologikoan aurreratu ahala. Delors-ek UNESCO erakundearentzat egindako txosteneko hezkuntzako lau zutabeen benetako lanketa, hobeto bermatzen ote genuen, alegia: **Ezagutzen ikasi, Egiten ikasi, Elkarrekin bizitzen ikasi eta Izaten ikasi.**

Ondorio garbiak atera ditugu. Alde batetik, lau zutabe horiek biltzen dituen *bizitza osoan zehar ikasteko gaitasuna* lantzea posible dela eta, bestetik, Ikaskuntza kooperatiboa lagungarri izan daitekeela, baita ere, giza nortasunaren garapen osoa lorrarazteko, taldekide aktiboa izateko, ikasketak burutzeko eta bizitzan zehar ikasten ikasteko...

Garbi ikusten dugu ikaskuntza kooperatiboaren eta gure hezkuntza sistemaren helburu nagusien arteko lotura. Horrela, hurbilago ikusten dira, bereziki, ikasleak pertsona helduen bizitzari ekiteko prestatzea, gizarteko herritar aktibo izatea, ikasleak euren kultura eta kultura unibertsaleko oinarriko elementuak eskuratzea, maila handiagoko ikasketak egiteko nahiz lanean hasteko prestatzea eta bizitzan zehar etengabe ikasteko gai izatea.

Konpetentziak eskuragarriago egiten zaizkigu: gure legediak ezartzen dituen Hezkuntza Gaitasun Orokorak (taula 1) eta, batez ere, Oinarriko Gaitasunak (taula 2), azken hauek direlarik gure lan-tresna, indarrean dugin Curriculum Dekretuaren arabera. Garrantzitsua da esatea, zortzi oinarriko konpetentziak ikasleengan benetan landuta eta garatuta ikusten direla ikaskuntza kooperatiboaren bitartez, nola landu ez jakitearen sentsazio pesimista gaingaitzen delarik. Esan nahi da estrategia zehatzak baliatzen direla askotan horren eskuraezinak iruditzen zaizkigun oinarriko gaitasunak lantzeko eta, baita ere, ebaluatzeko.

Hezkuntza gaitasun orokorrak.
175/2007 DEKRETUA urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarriko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa. Gehigarria 2007ko azaroak 13, asteartea.
1.– Arduraz eta autonomiaz bizitzen ikastea , eta, zehazki, nork bere burua ezagutzen ikastea, norberaren buru-osasuna eta osasun fisikoa zaintzen ikastea eta ohitura osasuntsuak hartzea. Izadiak eta natura-baliabideez arduraz gozatzen ikastea, gizadi osoaren eta egungo nahiz geroko belaunaldien ondarea diren aldetik.
2.– Ikasten eta pentsatzen ikastea , eta informazioa interpretatzea, sortzea eta ebaluatzea. Erabakiak hartzen eta arazoak konpontzen ikastea, ikasteko eta lan egiteko ohiturak eta ikasteko estrategiak eskuratzea, eta jakintza zientifikoko eta matematikoko metodoak aplikatzen ikastea, jakintza teorikoaren eta praktikaren alorrekin planteatzen dituzten arazoak identifikatzeko eta konpontzeko.
3.– Hizkuntza ofizialetan , eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean hitz egiten ikastea , eta, berariaz, komunikabideak eta informazioko eta komunikazioko teknologiak irizpide kritikoz erabiltzen eta interpretatzen ikastea. Irizpide hori bera jarraitu behar dute ikasleek hizkuntza artistikoarekin, musika-adierazpenarekin eta gorputzaren, plastikaren eta ikusizko alorraren adierazpenekin.
4.– Elkarrekin bizitzen ikastea , eta, berariaz, harreman positiboak izaten eta, gatazka-egoeretan, elkarrizketara eta negoziatziora jotzen ikastea. Halaber, gogoz eta demokratikoki parte hartzen ikastea, lankidetzan jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta aniztasuna errespetatzen ikastea.
5.– Pertsona gisa garatzen ikastea , norbera izanda, eta emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea. Pertsona autonomoa izatea, norberak hartutako erabakien ardura hartzea, eta printzipio etikoei jarraitzea.
6.– Egiten eta ekiten ikastea , erabakiak eta ardurak hartzeko ekimena izatea, esfortzua eta zailtasunak gaingaitzeko ahalegina balioestea, eta ekintzailea izatea, bizitzaren alor guztietan.

Taula 1



Oinarrizko gaitasunak. 175/2007 DEKRETUA urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa.
1.- Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako gaitasuna.
2.- Ikasten ikasteko gaitasuna.
3.- Matematikarako gaitasuna.
4.- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
5.- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
6.- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
7.- Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
8.- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Taula 2

Adituek asko lagundu digutelako: Pere Pujolàs-José Ramón Lago bikoteari metodologia kooperatiboaren gainean entzutea, esperientzia profesional positiboa da, guztiz. Haiengandik IK/KI programa aurkezteko modua entzutea eta bere onurak eta beharra azaltzeko baliatzen dituzten arrazoiak eta argudioak jasotzea formazio esanguratsua da. Ez dira, ez, komunikatzaile kaskarrak; aitzitik, ilusioa eta entzundakoa ikasgelara eramateko grina kutsatzeko gai dira. Formazio-saioretan proposatzen dutenak praktikara eramaneraza dirudi, eta logikaz jantzia; askoren esanetan, gure ikasleentzako eta irakasleentzako behar genuena. Ez da harritzekoa gure eremuan burutu dituzten hitzaldiak eta formazio-jarduerak ondo baino hobeto baloratuak izana.

IK/KI erraza da: sinplea eta arina izanik, arlo guztietan, ikasgelan, tutoretzan eta ebaluazioan erraz barneratzen da. Irakaslearen jarduera eraldatzeko bidea ematen du. Eraldaketa estrukturala eta profesionala gauzatzen du. Gutxierekin, gelari beste itxura ematen dio, irakaskuntza-ikaskuntza lana beste balioz jantzen du. Hau da, metodologiak beste teoria batzuetatik edaten du eta irakaslearen begirada birarazten du.

Eskola-arrakastari begira dago, eskola-porrota ekiditeko: Ikaskuntza kooperatiboak ez dakar helburu aldaketarik, irakaskuntza-ikaskuntza helburu nagusiak berberak izaten jarraitzen dute, Gizarteak ikastetxeari emandako agindu eta enkarguak berberak izaten jarraitzen dute. Aldatzen dena metodologia da, lehen individualista edota lehiakorra zena orain kooperatiboa da eta. Ikaskuntza Kooperatiboak helburu horiek, denak, maila gorenean landu eta eskuratu nahi ditu, besteak beste, taldean egindakoa urrutirago iristen delako bakarka egindakoa baino. Honek ez du esan nahi ikasleek lanari ekin behar ez diotenik, ezta ere ardura individuala saihesten denik; aitzitik, bai bata bai bestea taldearen aurrean demostratu behar dira, eta askotan, taldeak gehiago exijitzen du nork bere buruari baino. Beraz, lana egin egin behar da, baino beste era batera.

Esan daiteke, beraz: IK/KI ikaskuntza kooperatiboko programak arrakastari begira jartzean porrotari aurrea hartzen dio. Planteamendu proaktiboa duelako – bakarkakoa zein taldekakoa-. Hau da, bere izaera naturala ekintzailetasunak definitzen du, ez horrenbeste porrotaren datuek derrigortzen duten *a posteriori* esku-hartzeak, hauei erantzun egokia eman badiezaieke ere. IK/KI programak aurrera begiratzen du, *aurreak erakusten baitu atzea nola dantzatu*.

Gatazkei aurrea hartzen die: aurrekoan argudiatutako planteamendu proaktiboak berdin balio du orain. Ikaskuntza kooperatiboan ez da ikaslearen arteko lehiarik onartzen, ez da ikasle individualista sustatzen; alderantziz, elkarrekin, elkarrengandik, guztiontzat aritzea bultzatzen da. Denak elkarrekin arituz denek ikaskuntza prozesuak hobetzearen alde egiteaz gainera elkarbitza eragiten da.



Horrela, ikasgeletan gizalegea ereinez, **gizarte solidario** eta gizon-emakume guztien onuraren alde egiten duen gizarterako prestatzea errazagoa da. Lagunaren alde egiten erakusten du, lepoan hartu eta aurrera egitera bultzatzen du, inor atzean utzi gabe elkarrekin aurrera egitea posible dela eta, gainera, horixe nahi izatea erakusten du.

Oso gutxirekin, oso erraz, oso azkar, Ikaskuntza Kooperatiboaren eskutik gelak eraldatu eta bila genbiltzanak hara non aurkitu: ikasleek elkarri begiratzuz hitz egin eta entzuten ikasten dute; elkarren lanak baloratzen ikasten dute, txandak errespetatzen, esandakoak aintzakotzat hartzen, elkarri lagunduz **balore onak** nagusituz, gelako, ikasteko eta lagun arteko **giroak** hobetzen dira. **Bizikidetza** positiboa gailentzen da, elkarren ondoan izaten eta elkarrekin **lan egiten ikasten da**; ematen eta jasotzen ikasten da; besteen presentziak eta besteen balioak kontziente izaten ikasten da; besteenganako **enpatia** lantzen da, **pazientzia** izaten ikasten da, **animoak** ematen ikasten da, norbanakoaz haratago **besteak ere badirela** eta parekoak direla ikasten da.

Jose Ramón Lago eta Pere Pujolàs CA/AC programaren inguruan entzuteak asko animatzen du, dena erraz ikustarazten dute, dena sinpletzen dute, dena posible egiteko moduan aurkezten dute. Gero eta gehiago entzun, gero eta gehiago entzun nahi. Euren hitzak, esperientziak, eskarmentuak eta jakinduriak oso lagungarriak dira. Estatu mailan ikastetxe eta irakasle asko dira euren eskutik aurrera egiten dutenak. Gure artean ere asko dira euren aholkularitza eta orientabideei esker aurrera egiten dugunok. Eta denok bat egiten dugu gauza askotan. Besteak beste, irakasleen ilusioa, gogoia, programarekiko poza, itxaropena, ikasleak gustura ikustea, ikasleak elkarrekin, denak, aurrera egiten dutela, lan-giroa eta elkarren arteko giro ona, elkarbizitza, emaitzak hobetzea, etxekoak ere gustura izatea.

Beraz, hobetu nahi, hobetzeko aukera izan, hobetzeko bidea aurkitu, hobetzea bakarrik falta zitzaigun. Eta emaitza halakoa izan da. Hobetzen goaz. Hobetzen ari gara, Ikaskuntza Kooperatiboari esker.

Ez da aparteko baliabiderik behar. Ez da izugarrizko formaziorik behar. Poliki eta abiadan, geletan, arloetan (denetan) ezarri liteke. Adin guztietarako baliagarria, maila guztietarako aproposa eta eremu guztietan praktikoa da.

GOMENDIOA: irakurri *IK/KI Programaren Aurkezpena* izeneko atala, argitalpen honetan; aipatutako programaren laburpena bada ere, ederki dago nondik norakoaz jabetzeko. Hori bai, sakondu nahi izanez gero testu osoa eskuratzea eta baliatzea proposatzen da.



Aitortu – Ez komertziala – Partekatu berdin



2. IKASTEKO KOOPERATU / KOOPERATZEN IKASI (IK/KI) PROGRAMAREN HAMAIKA EZAUGARRI PRAKTIKO.

Jose Mari Arakama (Lasarteko Berritzeguneko Etapa Aholkularia).

Nola ikasten da?

Galdera horren aurrean bi jarrera indartsu bereiz daitezke:

Alde batetik, *ikastea* den prozesu psikologikoa jarduera indibidualtzat jotzen dutenena daukagu. Pentsaera horren arabera ikastea norberaren egitekoa da, eta besteek enbarazu besterik ez dute egiten, ahalegin indibiduala eta esfortzuaren pedagogia baitira arrakastarako baliabide nagusiak. Beraz, aldagai sozialaren abstrakzioa egiten da eta hurkoaren eragina gutxietsi.

Bestetik, taldearen eragina defendatzen dutenena. Teoria honek aldagai sozialaren erabakigarritasuna aldarrikatzen du, ikastea jarduera soziala dela esanez. Horrela, besteen ekarpen positiboa ez ezik, elkarrekintza eta jarduera soziala sustatzen dira, horiei esker hobeto eta gehiago ikasten dela ziurtatuz. Ahalegina eta esfortzu indibiduala talde-lanarekin uztartzen dira, talde lanerako baldintza izanik.

GOMENDIOA: Pere Pujolàs. Bere hitzaldia ikusi: Ikaskuntza kooperatiboaren onuraz eta justifikazioaz. Grabazioa Berritzegunean eskura daiteke.

Ikaskuntza kooperatiboaren metodologia garbi kokatu da bigarrenarekin; hona, arrazoi batzuk:

Taldean gehiago ikasten da.

Hezkuntza-zientzietan gero eta ikertzaile entzutetsu gehiagok dio aspektu soziala ez dela soilik markoa (edo soilik lan-metodoa), ikaskuntzarako faktore garrantzitsua ere badela ziurtatzen dute. Vigotsky dugu maisu teoria hori garatzeko garaian.

GOMENDIOAK:

- Vigotsky. Bere teoriaren laburpena irakurri. Irakasleok intuizioz edo sen onaren baitan, ikaskuntza kooperatiboaren aldeko jarrera eraiki dezakegu. Vigotsky-ri esker, intuizioa argudio zientifikoz jantziko da. Autore honen teoriaren mamia irakurtzeak (batez ere ZDP teoria), formazio esanguratsua emango digu.
- Interesgarria da, baita ere: Suárez, Cristóbal: *Cooperación como condición social de aprendizaje*. UOC, 2010.
<http://books.google.es/books/about/Cooperaci%C3%B3n%20como%20condici%C3%B3n%20soci>

Gainera, taldean ikasteak ez dio bakarrik laguntza-premia handiagoa edo ikasteko zailtasun gehiago topatzen duenari mesede egiten, laguntza ematen duenak ere irabazi egiten du eta. Beraz, esan daiteke, metodologia kooperatiboan “*zuk irabazten duzu - nik irabazten dut*” efektua lortzen dela, metodologia tradizionalak lortzen ez duen efektua, hain zuzen.

“Es frecuente que en un grupo de trabajo un alumno o alumna ayude a otro, y contrariamente a lo que suele creerse, el que ejerce funciones de tutoría no está perdiendo el tiempo, sino que avanza cognitivamente, porque ha de organizar su pensamiento para dar instrucciones, explicar conceptos o procedimientos, y siempre, cuando se ha de comunicar el propio pensamiento, mejora la comprensión, se detectan más fácilmente las posibles lagunas o errores y se está en mejor posición para corregirlos.” (Quinquer, D. 2002).



Beste modura esanda, ikasleak irakaslearen lekuan jartzea estrategia bikaina da hobeto ikasi dezaten (irakasleok ederki asko dakigu hori zenbateraino den egi). Azken finean, eta sakonean, komunikazioa sustatzea, eragitea eta entrenatzea da da kontua; berorrek kalitateko ikaskuntza bermatzen baitu.

GOMENDIOAK:

Irakurri:

- Dolors Quinquer. 2002. "Cooperar para aprender: El trabajo cooperativo". *Guías Praxis para profesorado de ESO. Ciencias Sociales*. Barcelona. Praxis.

Ikusi:

- Ángel Pérez Gómez. Hitzaldi baten bideoa, ikaskuntzaren teoriak zer dioten ezagutzeko: http://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&v=AkOludDPJSg
- George Siemens. Konektibismoa, ikaskuntzaren azken teoria. Aro digitalari egokitzen zaion ikasteko moduaren ezaugarri berriak ezagutzeko. <https://www.youtube.com/watch?v=s77NwWkVth8>

Biraka darabilgun argudio multzotik, pare bat kontzeptu-gako ari da azaleratzen **elkarrekintza** eta **sarea**. Egun indartsu dugun ikaskuntzaren teoriak (*Konektibismoa*) horiek biak aldarrikatzen ditu: "el conocimiento se crea en la interacción humana, es emergente, no es estático, se basa en la interacción".

GOMENDIOA: Ikusi Ángel Pérez Gomez. Bere hitzaldia: Prácticas educativas en la era digital.

http://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&v=AkOludDPJSg).




4. irudia.

http://stellae.usc.es/red/mod/file/download.php?file_guid=17900

Ikaskuntza kooperatiboa irudikatzen duen irudi bikoitzak (UVIC Unibertsitatea) ederki asko emulatzen ditu *elkarrekintza* eta *sarea* ideiak (5. irudia). Alde ederra dago batetik bestera: ezkerrekoan soilik irakasle-ikasle elkarreagina baliatzen da. Eskuinekoan, berriz, aurrekoari ikasle-ikasle elkarreagina gehitzen zaio, egitura askoz sendoagoa eta anitzagoa eraikitzen



delarik. Aurreneko egituran irakaslea da protagonista eta informazio-igorle (emisore) bakarra ikasle-hartzaile multzoarentzako; bigarrenean denak dira igoerle eta hartzaile eta denak irakasten dute eta denak ikasten dute. Nabarmen da non kokatzen den sare kontzeptua.



5. irudia (Iturria: UVIC).

Halaber, gero eta gehiago dira **adimen soziala** plazaratzen eta aldarrikatzen duten autoreak. Afrikatik jaso dugun esaerak ondo baino hobeto adierazten du kontzeptu horren esanahia: *“bakarrik lehenago ailegatuko zara, elkarrekin urrutirago”* Beraz, ondorioztatu dezagun: taldea bizkorragoa da, taldean gehiago ikasten da.

Eginez ikasten da.

Ikerketetatik argudio sendoak atera daitezke ikaskuntza kooperatiboaren alde. Esate baterako, Bloom-en taxonomiatik eta Dale-ren ikaskuntzaren konotik. Ikerketa horiek gardenki azaltzen dute zein osagai diren ezinbesteko *ikastea* prozesu mentalaren emaitzak hobetzeko: ikaskuntza aktiboa, ikasleen parte-hartzea, komunikazioa, elkarlana etab. Elementu horiek hau esatera datozkigu: ikaslea da protagonista, nor bere ikasketaren protagonista.

GOMENDIOAK:

Irakurri:

- Blom, Benjamin. Taxonomia de Blomm. Egiaztatzeko kooperazioak, metodologia ekintzailea eta parte-hartze zalea den heinean, hobeto garatzen duela goi mailako pentsamendua. <http://www.eduteka.org/TaxonomiaBloomCuadro.php3>
- Dale, Edgar. "El cono del aprendizaje". Ikaskuntza aktiboa, non ikaslea den protagonista eta parte-hartzaile, askoz eraginkorragoa da ikaskuntza tradizionala eta pasiboa baino. <http://bitacoradelgaleon.blogspot.com.es/2007/05/edgar-dale-y-el-cono-de-aprendizaje.html>



El cono del aprendizaje de Edgar Dale



6. irudia.

Aristoteles filosofoak esan omen zuen bere garaian, “ikasi beharrekoa eginez ikasten dugu”. Horren ondoren filosofo, zientzialari eta pedagogo franko saiatu da gauza bera edo antzekoa adierazten: Plutarco, Galileo, Einstein, Dewey eta abar luzea.

Bestalde, eskarmentua, sen ona eta zentzu komuna iturri onak dira eginez ikasten dela ondorioztatzen; hau da, zerbait ondo ikasteko berau *egitea* bazelakorik ez dela. Zeren, esate baterako, nola ikasten da bizikleta gainean ibiltzen?, nola autoa gidatzen?, nola tortilla egiten? Instrukzioak irakurtzea nahikoa da?, edo egin egin behar da?

Horixe bera esatera datozkigu Neurozientzia eremuko ikerketek: eginez ikasten da. Berdin dio eduki kontzeptualak izan beharrean trebeziak, jarrerak, emozioak edo baloreak badira ere; denak ikasi edota hobetu daitezke entrenamenduaren bidez, inkontzientean sartzearaino.

Gainera, trebeziak, jarrerak eta emozioak dira – bazterrezinak den ezagutzarekin batera-gure ikasleek biziko duten munduan, premia izango dituzten ikasketak. Betiko edukiak eskas geratzen dira; kontzeptuak, datuak, formulak (...) buruz ikastea ez da nahikoa (ikus Pérez Gómez-en bideoa).

Eta, jakina, begirada aldaketa horrek mezu argia bidaltzen dio irakasle bakoitzari: “zure egitekoa aldatu egiten da, irakasle izatetik *ikasarazle* izatera pasa beharra dago”. Ikaskuntza kooperatiboak bide zabala eskaintzen die *ikasarazle* izan nahi duten maistrei, maisuei eta profesoreei.

GOMENDIOA:

Ángel Pérez Gómez. Bere hitzaldiaren bideoa ikustea. Ikaskuntzaren teoriak zer dioten ezagutzeko. http://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&v=AkOludDPJSg

Etorkizunari begira jarri beharra dago.

Erronka berrien aurrean gaude. Belaunaldi berriek orain arte ezagutu ez diren ezaugarriak egin beharko diete aurre: aldaketa etengabea, informazio-ekaitz erraldoia, ziurgabetasunez blaitutako egoera, etab. Esango genuke, egoera solidotik egoera likidora pasako direla.

Jakina, Hezkuntza ez da uharte urruna. Berari ere egoera berrira egokitzeko, permeablea izateko eta behar diren aldaketak egiteko eskatzen zaio. Baina, zer aldaketak?

Lehenbizi, eskatzen zaio/zaigu begirada aldatzeko, hau da, etorkizunari begira jartzeko. Baita ere, ikasleek ikastetxetik kanpo aurkitu dituzten bizitzeko eta ikasteko moduei erreparatzeko, berorietan zer baliatua bada eta zalantzarik gabe.



Aurrekoaren hausnarketak ondorio esanguratsura garamatza: ezagutzak metodologia memoristikoa eta errepikakorrean ikasteak ez du zentzurik; etorkizunak beste gaitasunak jartzen ditu hezkuntzaren mahai gainean; esate baterako, *bizitzarako ikaskuntza, ikasten ikastea, ikaskuntza iraunkorra, meta-ikaskuntza...*

GOMENDIOA:

Ángel Pérez Gómez. Bere hitzaldiaren bideoa ikustea. Ikaskuntzaren teoriak zer dioten ezagutzeko. http://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&v=AkOludDPJSg

Betikoak ez du balio.

Oraindik ere, irakaskuntza tradizionala da nagusi gure hezkuntza-erakundeetan; baina, irakasteko modu hori garai batekoa da. Iraganeko gizarteak eta egungo gizartearen eta munduaren ezaugarriek ez dute antzik. Betikoak ez du balio.

Zenbait zientzia-eremutan aldaketa nabarmenak gertatu dira; ikerketei esker egindako aurkikuntzek begirada eta, sarri, norabidea aldarazi dute. Baina, Hezkuntzan ez da horrelakorik izan; oraindik betikoa da gehienek irakasteko metodoa; ikerketetatik ondorioztatu denari ez zaio jaramonik egin.

Ikaskuntza kooperatiboari dagokionean beste hainbeste gertatu dela esan daiteke. Kooperazioa aspaldiko proposamen didaktikoa izan arren, bere aldeko ikerketa franko burutu den arren, bera gorai patzen duten autore zein ikerlari kontaezinak badira ere, irakasle frankok ez die ebidentziei jaramonik egin, ez gutxi betikoan jarraitzen du Hezkuntzaren eremuko Zientziak proposatzen diguna aintzat hartu gabe.

Ikertu eta aztertu da jarrera immobilista horren zergatia; batez ere, irakasleen hasierako formazio unibertsitarioa analizatzeari ekiten dioten adituek egin dute lan hori. Eta hau da ateratako ondorio bat: *zer ikusi hura ikasi*. Esan nahi da, belaunaldiz belaunaldi, irakasleok txikitatiki hasi eta hamarkadaz hamarkada eta gizaldiz gizaldi ikusi dugun irakasteko metodologia errepikatzen jarraitzen dugula (metodologia tradizionala). Ikasle izan garenean ikusitakoa eredutzat hartu dugu, ikerketek iradoki digutenari erreparatu ere egin gabe. Beraz, indar handiagoa eman zaio norberak ikusitakoari Zientziak esandakoari baino.

Konturatzen ote gara irakasten ditugun eduki batzuk ez daudela aurrera begira?; hau da, ez daudela gure ikasleei bizitzea egokituko zaien gizarteari begira?; ez daudela gure ikasleek behar dituzten gaitasunen eta konpetentzien zerbitzura? Uste horretakoa da ikaskuntza kooperatiboan "guru" den Spencer Kagan: "*Los colegios preparan a sus alumnos para el pasado*". Uste horretakoa da, baita ere, Jesus Mari Goñi irakaslea: "*Sobra gran parte del currículo de Matemáticas, pero nadie se atreve a hacer cambios*".

GOMENDIOAK:

Irakurri:

Kagan, S. (2008), "Los colegios preparan a los alumnos para el pasado". Entrebista laburra da, hausnarketa profesionala eragiteko lagungarri.

http://elpais.com/diario/2008/06/02/educacion/1212357601_850215.html

Goñi, J.M. Nº 376, *Cuadernos de Pedagogía*, 2008ko otsaila. Aldaketen beharra plazaratzen du bai edukietan bai irakasteko moduan ere.

Gainera, betiko edukiak (kontzepuzkoak) *klik* baten bidez eskura daitezke gaur egun; zenbait ekoizpen digital irakasleek lekua hartzeko pronto dago. Esate baterako, *Youtube* eta bere



berdinak irakasle tradizionalaren egitekoa burutzen ari dira jada. Eta, bideo-zerbitzari horiek eta beste hainbat baliabide digital, bat eginda, oharkabean geratzen den ezaugarria erantsi diote irakasteko modu klasikoari: beti daude prest esplikatzen, irakasteko eta behin eta berriz errepikatzen; urtean 365 egun, egunean 24 ordu; nekerik gabe eta irribarretsu.

Denon eskubidea da: inklusioa.

Eskolak ez du desoreka zenbaiti aurre egitea lortu. Eta aitortu beharra dago: ez da batere erraza.

Han da hemen egiten diren ebaluazio-frogek garbi adierazten digute eskola-porrotak zein gizarte-sektoreri egiten dion erasorik bortitzena, Indize Sozio-ekonomiko (ISEK) baxuena duenari, alegia. Egia esan, aurrekusi ere egin liteke frogak pasa aurretik. Baina eskola denentzako da. Osabidezko (konpentsatorioak) jarduerak birpentsatu egin beharko dira oztopo handienak topatzen dituzten ikasleen eskubidea besteenaren pare jarri dadin.

Eta legearen babesa ez da kontua, besteak beste, gure Curriculumak *“inklusioa da euskal hezkuntza sistemaren ardatza* deklaritzen duelako; baizik eta, irakasteko modua edo, era gaurkotuan esanda, ikasteko modua. Adituen hitzetan, parekotasuna lortzea ezinbestekoa da bai ezin dutenentzako baita nahi ez dutenentzako ere.

GOMENDIOA:

Irakurri: Vaello, J. (2007). “Como dar clase a los que no quieren”. Gaia: zein inportantea den alderdi sozio-emozionala. ez

Gainera, eskarmentuak erakutsi digu zein den bidea inklusio-helburuaren zailtasuna arintzeko edota jartzen zaizkigun/ditugun hesiak gainditzeko: sareak indartzea edota sortzea; elkarlan-sareak, laguntza-sarea, elkarrekintza-sarea, komunikazio-sarea, esaterako.

Hesi horiek forma anitzekoak dira: beldurra, ziurgabetasuna, zalantza, denbora-eza, motibazio eskasa, elkartasun-eza ... Irtenbidea ez da bakarka abiatzea; alderantziz, komunitateak emango digu hesi gaintetik igarotzeko bultzada eta ausardia. Sarea da, beraz, giltzarria zantzu kontserbadoreetatik urruntzeko eta inklusioari modu berriztatzailean ekiteko.

Sarea eraikitzeko bi osagai behar dira: irakasle on elkarrekintza sistematikoa eta ikasleen arteko kooperazioa. Biak dira helburu, baina lehenengoa baldintza da, zeren kooperatzen ez badakigu nekez irakatsiko dugu.





7. irudia.

GOMENDIOA:

Irakurri: Pujolàs. IK/KIren justifikazio inklusiboa eta beste autoreek emandako oinarria ezagutzeko (Johnson & Johnson, Slavin, ...).

Irakurri: Echeita, G. (Koord.). "Educar sin excluir". *Cuadernos de Pedagogía* 331. "La experiencia de esta autoría múltiple constituye un intento de ser coherentes con el sentido de la temática propuesta: cooperar para hacer frente al desafío de una educación más inclusiva."

Oinarrizko errenta kulturala: oinarrizko kompetentziak.

Herritar orok du diru-errenta minimoa eskuratzeko eskubidea. Hiritar orok du eskubidea, halaber, kultur errenta minimoaren jabe izateko. Hezkuntza-sistemaren eremuan zehaztu da zein diren kultur errenta minimoaren edukia: oinarrizko gaitasunak (Ikus taula 1 eta 2).

Hezkuntzaren helburu nagusia ez da porrotari aurre egitea; bai ordea, denontzako arrakasta. Askok jakitea ez da inportanteena; bai ordea, oinarrizko gaitasunak eskuratzeko (pentsamendu praktikoa), beroriek baitira *herritar oso* izateko ezinbesteko tresnak.

Oinarrizko gaitasunek euskarri laukoitz ezaguna dute, « hezkuntzaren lau zutabeak » (UNESCO erakundearentzat egindako Delors txostena, 1996), hain zuzen ere. Hauek dira: **ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, izaten ikastea**. XXI. gizaldiko eskolaren eraikuntza lau zutabe horietan tinkatuko da.

Ondorioz, curriculum-arloetako (diziplinak) ezagutza maila nahikoa lortzea ez da hezkuntza sistemaren helburu bakarra, ezta nagusia ere. Hala balitz, hanka bakarrek mahai gainean geundeko denok, ikasle, irakasle zein eskola erakundea. Gure eskolek etorkizuna izango baldin badute, lau hanketako euskarriari esker izango da.

Oinarrizko kompetentzien terminologiara etorrira, gauza bera esan daiteke; ez da nahikoa curriculum-arloekin lotura zuzena duten kompetentzietan indarra jartzea eta zeharkako gaitasunak (beste hiru zutabeekin lotutakoak) bazterrean uztea; hori bidegabe jokatzea da, guztiak direlako zein baino zein beharrezkoago.



Eta hori esanda, aipa dezagun zer dion legeak: indarrean dugun Curriculum Dekretuan (175/2007 DEKRETUA urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa) oinarrizko konpetentziak lorraraztea da helburu nagusia; eta ez da bereizten, ez da lehenesten konpetentzia bat -edo batzuk- besteen gainetik; denak, zortziak, maila berekoak dira diziplina baitakoak izan edo zeharkakoak izan.

Aurrekoa esanda, komeni da gogora ekartzea eskolan zein/zer dagoen zeinen/zeren zerbitzura. Aipatutako dekretuak argi esaten du: *“Curriculumak, eta, oro har, hezkuntza-sistema osoak ikasle guztien zerbitzura jarri behar dute, eta ez alderantziz; hau da, ez dute ikasleek jarri behar curriculumak betetzearen eta hura garatzearen zerbitzura. Horrenbestez, oinarri-oinarrizko irizpide horri jarraitu behar diote hezkuntza-administrazioak eta irakasleen kolektiboak, dekretu honen edukia interpretatzeko.”*

Beraz, ikasle guztiak eskubidezko duten *oinarrizko errenta kulturala* lortzeko bidean jarrarazteko, irakasleok ikasle guztien zerbitzura jarri behar dugu; arloak oinarrizko konpetentzien zerbitzura jarriko dira eta erakundea, eskola, biharko belaunaldientzako inportantea izango denaren zerbitzura, ez egungo edo atzoko belaunaldientzako inportantea zenaren zerbitzura.

GOMENDIOA:

Irakurri: Oinarrizko konpetentzien deskripzioa irakurtzea. Oinarrizko konpetentziak kontzeptuaren barruan zer dagoen ezagutzeko. (175/2007 DEKRETUA urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa).

<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2007/11/0706182a.pdf>

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/adjuntos/iii_eranskina_oinarrizko_gaitasunak.pdf

Ebaluatzen ez dena ez da existitzen.

Ebaluazioa erabakigarria da.

Zenbaiten ustetan ebaluazioa da ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko urratsik garrantzitsuenak, “ebaluatzen ez dena ez da existitzen” esateraino. Izan ere, ebaluazioak leku printzipala du egungo ikaskuntzaren teorietan; batez ere, izaera formatzailea aitortzen zaiolako.

Horrek aukera ematen digu galdetzeko: zer ebaluatzen da egun?, ebaluazioaren praktika eguneratu edota aldatu al da zer edo zer?, ebaluatzen al dira jarrerak eta prozedurak?, baliatzen al da ebaluazio formatzailea?, ebaluatzen al dira oinarrizko gaitasun guztiak?

Tamalez, errealitateak ez digu aldaketa-zantzurik erakusten eremu honetan; aitzitik, oraindik ere betiko ebaluazioa da nagusi eta berrikuntzak ez dira asko.

Aldaketa kualitatiboa oinarrizko konpetentzia guztiak modu sistematikoan ebaluatzea litzateke; baina, esan dezagun garbi, errealitateak dio *Ikasten ikasteko konpetentzia, Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia, Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna* eta besteren bat ez direla ebaluatzen.

Beraz, zeharkako konpetentzia horiek, oro har, existituko ez balira bezala ari dira igarotzen gure hezkuntza sisteman, edo, argiago esanda, ez dira lantzen gure Curriculumak dion eran.

Eta, berorien ebaluazioa antolatzea, modu objektiboenean zehaztea eta era kolektiboan adostea eta aplikatzea guztiz ezinbestekoa da baldin eta gure ikasleen etorkizunari begira jarri nahi baldin badugu.



Hau da, konpetentzia guztien ebaluatzea -ez soilik diziplina baitako konpetentziak- helburu instituzionala izan beharko luke, gutxienez ikastetxe-mailakoa. Hala balitz etorkizunean inportanteak izango diren ezagutzen zerbitzura jarriko ginatke, iraganean inportanteak izan direnak eta oraingo garaian ere garrantzizkoak badirenak bazterrean utzi gabe.

Ebaluazio formatzailea da horretarako tresna paregabea, besteak beste, *bizitza osorako ikasten ikasteko gaitasuna* automatizatzen eta inkontzienteen errotzen laguntzen duelako.

Ebaluazio formatzaileari esker ikasleek nork bere burua ebaluatzen (autoebaluazioa) eta taldeka ebaluatzen (koebaluazioa) ikasten dute. Eta tresna ezin hobea da ikasketetan hobetzeko, ikaslearen maila kognitiboa edo kurrikulara zein den berdin diolarik.

Autoerregulazioa, erantzukizun pertsonala eta taldekoa, adimen soziala, adimen emozionala, elkarbizitza, baloreak, etab. lorgarriagoak dira baldin eta modu formatzailean ebaluatzen badira. Horretarako, ikasleak egiten eta ekiten jarri behar dira, protagonismoa beregan utziz, trebetasun pertsonalak eta sozialak entrenatzen joan daitezen harik eta automatizatu arte, hau da, inkontzientean barneratu arte.

Orduan, irakaslearen egitekoan biraketa gertatzen da. Hortik aurrera, ikasleen autoerregulazioaren (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa) entrenatzaile izango da, horretarako baliabideak, irizpideak, txantiloak eta prozedurak haien eskura jarritz. Horrek, dena dela, ez du esan nahi irakasleak, berak, kanpoko ebaluatzaile izaten jarraitzen ez duenik; baizik eta, berak burututako ebaluazioari beste elementu batzuk gehitzen zaizkiola.

IK/KI Programak baditu hemen azaldutakoa indarrean jartzeko tresnak eta baliabideak. Horiek denak *C Eremuan* daude bilduta.

GOMENDIOA:

C Eremuko baliabideak praktikara eramatea. Ebaluazioa prozedura formatzailea bihurtzea.

<http://ikkigipuzkoa.weebly.com/>

Adimen sozio-emozionala aurrena, eta eduki kognitiboak ondoren (Vaello, J. (2007). "Como dar clase a los que no quieren").

Ikerketek nabarmentzen dute eduki kognitiboetan hobetu nahi baldin bada, aurrena alderdi (eduki) sozio-emozionaletan hobetu beharra dagoela. Mezu hau estuki lotuta dago inklusio asmoarekin; hau da, ikasle denengana iritsi nahiarekin. Zeren, ikasle guztiek dute eskola-arrakasta iristeko eskubidea. Eta alderdi sozio-emozionala denentzako tranpolina da.

Ikuspuntu inklusiboaren arabera, eskubideak egiten ditu berdinak ikasle guztiak. Baina, hala izanda ere, ikasle batzuk besteak baino oztopo eta barrera gehiago topatuko dituzte helmugara iristeko (oztopo fisiko, psikiko eta emozionalak, besteak beste). Eta, oztopo horiek gainditzeko, ezingo dute bakarrik, laguntza-premian daude. Hala, oztopoei aurre egitearen erantzukizuna komunitate solidarioari dagokio. Hortik dator konpentsazio-jarduerak indarrean jarri beharra.

Kompentsazioa gauzatu dadin, jakina, Irakaslearen egitekoa erabakigarria eta balio handikoa da; denentzako egiten dugulako lan, diskriminaziorik gabe. Eraginkortasun inklusiboaren mesedetan, irakasleak bazterrezinak dituen bi elementu (bi aliatu) aipatu beharra dago. Batetik, Neurozientziaren ikerketek zer dioten - berriro ere-;

(Ángel Pérez Gómezen hitzaldiaren bideoa.

http://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&v=AkOludDPJSg 21:17)

Ikerketa horien arabera, emozioak entrenatu daitezke, motibazioa, besteak beste



(motibaziorik gabe ezinezkoa da ikastea); eta entrenamenduak automatismoak finkatzen ditu inkontzientean. Hala eginez gero, *adimen emozionala* lantzen ariko ginateke.

Beste ikerketek ikastearen ezaugarri soziala garatu dute: Ikastea, berez, jarduera soziala da, ez da bakarka, isolamenduan lortzen. Beraz, taldearen eragina azpimarratzen da. Eta, denok dakigu zein inportantea den *taldearen* eragina ikasleengan. Baita guregan ere. Konstatazio horren ondorioa hau da: **taldean gehiago eta hobeto ikasten da.**

Lege horrek berdin balio du eduki kontzeptualen lanketarako nola jarreraren eta prozeduren lanketarako.

Baina, esate hutsak ere ez du ekarpen praktikorik eskaintzen; tresnak eta lanabesak behar dira. Metodologia kooperatiboak autoebaluazioa, taldeko ebaluazioa eta erregulazioa mahairatzen ditu, besteak beste, irakaslearen ebaluazioarekin batera.

Aurrekoa printzipiotzat hartzen denean errazagoa da, zalantzarik gabe, motibazioa, errespetua, ardura, konpromisoak, talde-lanaren eragina positiboa, autoerregulazioa, enpatia, autoestimua, komunikazioa, entzute aktiboa, asertibitatea, arauak adostea abar luze bat lantzea, eta baita betiko edukiak ere.

Beraz, *heziketa emozional-kooperazioa* bikoteari esker *denontzako eskola-arrakasta* hurbilago da.

GOMENDIOA:

Irakurri: Vaello, J. (2007).“Como dar clase a los que no quieren”. Zein inportantea den alderdi sozio-emozionala eta irakaslearen estilo berriaz ideiak jasotzea.

Irakasle berria VS irakasle tradizionala

Irakaskuntza klasikoan irakaslea izan da protagonista, ikaslea baino gehiago. Estilo horretan, ikasleak irakasleari jarraitu behar dio, “temarioak” ezartzen duen erritmoan eta ordena berean. *Nork berea* ikastea da ikasleen ardura nagusia. Irakaslearen profila Joan Vaellok deskribatzen duen “profesor 1-2-3” tankerakoa da (“**Como dar clase a los que no quieren**”). Bere ardura nagusia ikasgaiak irakastea da; hau da, temarioa (lehenbizi 1. gaia, bigarren 2. gaia, hirugarren 3. gaia etab.). Indarrean jartzen den metodologiak indibidualismoaren ezaugarriak izan ohi ditu.

Zergatik ote? Zergatik ez dira indarrean jartzen metodologia berriztatzaileak, ezbairik gabe tradizionalak baino egokiagoak *Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartea* izenez bizitzen hasi garen aro berrirako? Irakasleen formazioa gaiaren gain aditu direnek arrazoi sinple bezain logikoa plazaratu ohi dute: irakasle gehienek ez dute ia metodologia klasikoa besterik ikusi; bere hezkuntza-ibilbidean ez dituzte beste metodologiak frogatu, ez ikasle zirenean ezta irakasle lanetan ere; beraz, “*zer ikusi hura ikasi*” formazio-lege ez formalari -baina errealitatean zientziak gomendatzen duena baino indar handiagoa erakutsi duena-jarraitu diote. Egia esateko, sakoneko arrazoa dago horren atzetik: ez dute behar hainbesteko formaziorik jaso. Kasu askotan *hasierako formazioko* hutsuneak bistakoak dira eta, ia denetan, *etengabeko prestakuntza* eza. Hau da, *bizitza osorako ikasten ikasteko* gaitasunean, orokorrean irakasleok ez dugu aro berriaren aldaketen erritmo berean aurrera egiten jakin.

Eta irtenbiderik baldin bada, ez da izango *etengabeko formazioari* bizkar emanda. Aitzitik, formazio-mota hori ezinbestekoa izango da. Baina, horretan ere, aldaketa beharrean gaude:

- Taldekako formazioa askoz eraginkorragoa da formazio indibiduala baino.
- Lekuan lekuko formazioa; hau da, ikastetxean bertan hobetze-beharretara egokituta.

Hartara, ikastetxeak formazio-gune bihurtuko dira: ikasten duten ikastetxeak.



Dena dela, Vaellok beste irakasle-profila proposatzen digu akronimo baten bidez, “*profesor YEMA*” (Yo Educo a través de la **M**ateria a mis **A**lumnos). YEMA irakaslearen ezaugarriak irakasle hezitzailearen ezaugarriekin bat datoz: bere burua ezagutzen du eta formatzen saiatzen da, bere egitekoa hezitzea dela garbi dauka, horregatik pentsatzen du ikasleak direla protagonistak eta, beraz, ondo ezagutu behar ditu eta harremanak zaintzen ditu eta, nola ez bere arloa ondo ezagutzen du (Vaello, “**Como dar clase a los que no quieren**”).

Horrezaz gainera, beste ekarpen ezininteresagarriagoa ekarri nahi dugu mahai honetara, José Antonio Marina filosofoaren eskutik, “**Profesores para un mundo ultramoderno**” artikulua bidez (ikus gomendioa).

Autore horien biren ideiak, proposamenak eta testuak aintzat hartuta, egokia iruditu zaigu *irakasle berriaren* ezaugarri garrantzitsuenen zerrenda hau aurkeztea:

IRAKASLE BERRIAREN EZAUGARRIAK

Proiektu etikoz jantzia : irakaskuntzan egiten dena egiten dela, horrek oihartzun sozial nabarmena du. Honetan ez dago neutrala izaterik, edo dagoenarekin egon edo beharko lukeenarekin egon, hori da irakasleon hautua. Eta hautuaren arabera, irakaslearen praktika aldatu egingo da. Esate baterako, bere egiteko sozialaz jabetzen den irakasleak inklusioa, aniztasuna eta baloreak garatzeko konpromiso hezitzailea izango du, eta arloa (diziplina) aurrekoak lorrarazteko tresna izango da, ez helburua. Era berean, jarrerak eta prozedurak lehentasun-maila berean jarriko ditu; beste modura esanda, diziplina baitako oinarritzko konpetentziak eta zeharkako oinarritzko konpetentziak lehentasun-maila berean jarriko ditu. Hartara, pertsona herritarrak, aktiboak, parte-hartzaileak, demokratikoak, ahaldundutakoak eta autonomoak hezteko helburuari atxikiko zaio kontziente izanik helburu hori ez dela instrukzio hutsaren bidez lortzen inola ere.

Hausnartzea ohiko jarduera du:

- Bere buruaz: formazio-premiak, jarrera ikasleekiko eta familiekiko, lankidetzak profesionala, ...
- Ikasleen ezaugarriez eta premiez, bizitzea egokituko zaizkien premiez (bizitza osorako ikasteko gaitasuna, erabakiak hartzeko gaitasuna, proiektuak eraikitzeko gaitasuna, gatazkak kudeatzeko gaitasuna, elkarbizitzako gaitasuna...)
- Gizartearen eta bertako komunitatearen eskakizunak.
- Taldeko hausnarketa profesionala.

Hausnarketak hobekuntza-ekintzetara eramaten ditu: aldaketari ez dio beldurrik, formazioari ezta ere, proposamenak egiten ditu, kideak bilatzen ditu, eztabaida eraikitzaileak sustatzen ditu, kontsentsua nahi du.

Lan-taldeko partaide da: lan kooperatiboa ohiko tresna profesionala du; alde batetik, nola irakasle bakartiak hala ikasgela hermetikoak beste garaikoak direlako eta, bestetik, *taldeak gehiago dakielako*. Beraz, elkarrekintza profesionala sustatzen du. Eta, gainera, bada beste arrazoi zentzuzkoa: ezin dugu irakatsi egiten ez dakiguna.

Atal hau bukatzeko azaldu dezagun teknologia berriek ekarri diguten konstatazioa: **irakasle tradizionala erraz ordezkatu daiteke**; hor dira Youtube eta antzekoak. Sareko baliabide horiek, gainera, abantailak dituzte ikasgai tradizionalen eta presentziakoen aldean: beti prest dira, 365 egun, 24 ordu, nahi hainbat aldiz erantzuteko prest, kexarik adierazi gabe etab. Baina, **irakasle berria ordezkatzeko ezinezkoa da**; ez dago gailurik bera ordezkatzeko duenik.

GOMENDIOAK:

- **Irakurri:** Marina, J.A. “Profesores para un mundo ultramoderno”. *Cuadernos de Pedagogía*. 304. Irakaslearen profil egokiaren gaineko ideiak jasotzea.
- **Irakurri:** Vaello, J. (2007). “Como dar clase a los que no quieren”. “*Irakasle berria*”-ren hausnartzea eta proposamen zehatzez jantzea.



Kooperazioa eta elkarbizitza banaezinak dira. Elkarbizitza ere eginez ikasten da.

Komunitate zientifikoko aditu franko ari da ikaskuntza kooperatiboa aldarrikatzen elkarbizitza hobetzeko. Garbi baitago zein den metodologia indibidualistaren duen efektua eta zer efektu lortzen den kooperazioaren bidez: Indibidualismoa eta kooperazioa hurrenez hurren.

Hori esplikatzeko, kooperazioaren teorikoak ikerketen emaitzetan oinarritzen badira ere, zilegi da beste iturri batek zer dion eranstea. Iturria zentzu komuna da eta hauxe dio: **zer egiten den huraxe ikasten da.**

Gizarte demokratikoa eta parte-hartzailea nahi baldin badugu, gure ikasleei balore demokratikoak eta parte-hartzea *eginez* ikasgarazi beharko diegu. Entzutea ez da nahikoa. Entrenamendua da gokoa. Neurozientziak ere hala dio.

Elkarbizitza gizartearen zutabea izatea nahi baldin badugu, ohiko testuinguruan eta ohiko praktiketan ikasgarazi beharko diegu. Elkarbizitza ere entrenatuz hobetzen da.

Herritar autonomoak, nor bere bizi-proiektuaren egile eta lan-proiektuaren garatzaile, arduratsuak, erreflexiboak, ikasten ikasteko gaituak nahi baditugu, hori guztia praktikatzeko uneak eta guneak eman beharko dizkiegu. Eginez ez badute ikasten beti izango dira baten batzuk porrot-zifrak gizenduko dituztenak.

Herritar jatorrak, solidarioak, kultura-aniztasun zaleak, genero-berdintasun praktikatzaileak eta bakezaleak nahi baditugu, balore horietatik eginez ikasten jarri beharko ditugu.

Irakasleok gure eginahalak helburu horietara bideratzen baditugu ez da Youtuberik ezta teknologiarik izango gure lekua hartuko duenik.

Ikaskuntza kooperatiboa irtenbide egokia baino egokiagoa da horretarako guztirako, bai oinarri teoriko sendoa duelako baita proposamen praktikoa aproposak eskaintzen dizkigulako. IK/KI Programa da horietako bat.

GOMENDIOA:

Angel Pérez Gomezen hitzaldiaren bideoa ikusi. "Prácticas educativas relevantes en la era digital. Una nueva pedagogía para la escuela". Aldaketa metodologikoaren aldeko arrazoiak entzutea eta hausnarketa profesionala eragitea. Hitzaldi atsegin eta egoki horrek kapitulu honetan azaldu diren oinarri teoriko gehienak biltzen ditu.

http://www.youtube.com/watch?feature=player_embedded&v=AkOludDPJSg



3. IKASKUNTZA KOOPERATIBOAREN OINARRI TEORIKOAK.

Jose Mari Arakama (Lasarteko Berritzeguneko Etapa Aholkularia).

Cooperar para aprender / Aprender a Cooperar (CA/AC) programaren ezaugarriek erraztu egin dute *Ikaskuntza Kooperatiboa* metodologiaren zabalkundea.

Iraganean egin dira saiakerak metodologia honen onurak azaldu eta ikasgeletan indarrean jarrarazteko asmoz, baina ez dute CA/AC Programak denbora gutxian iritsi duen hedakuntza izan, ezta hurbildu ere. Zer du, bada, VICeko Unibertsitateak ekarri dugun proposamen honek?

Galdera horren erantzuna ondoko lerroaldeetan garatzen da, hamaika arrazoiz jantzia. Denak izenburu bakar baten pean jarri behar izanez gero, haxe aukeratuko genuke: ***Ikasgelara eramateko aldaketa-proposamen praktikoa eta eramangarria.***

Ez da kasualitatea Gipuzkoako Berritzeguneak, seiak, bere aldeko apustu garbia egin izana, ezta ere VICeko Unibertsitateak sortutako materiala seion artean euskaratzea erabaki izana, hasieratik eman baitzaio inbertsio onaren zantzia.

1.- IK/KI Programak Inklusioa du ardatz.

CA/AC Programak duen printzipio nagusia horixe da, inklusioa. Bat dator, beraz, gure legediarekin (Curriculum-Dekretua) non esaten den: *“inklusioa da euskal hezkuntza sistemaren ardatza”*.

Deklarazio horrek ikasteko-irakasteko jarduera erabat bustitzen du, ez dago lekuri segregaziorako. Hortik dator lehen irizpide praktikoa: jarduera kooperatiboetan, ikasteko oztopoak topatzen dituzten ikasleei besteekin batera aritzeko aukera ematen zaie; ezin dira ikasgelatik atera. IK/KI programari esker inklusioa ikasgela bakoitzean planifikatu eta lantzen da ikas jarduera kooperatibo zehatzen bitartez. UVICetik etorri zaigun programak eskubideetan berdintzen ditu ikasle guztiak; berdin dio zer gaitasun, zer egoera sozioekonomiko edo kulturala, zer motibazio duten. Sinismen horretan asko laguntzen du lelo honek: denok daukagu zer erakutsia besteei, eta denok daukagu zer ikasia besteengandik.

IK/KI programak modu naturalean lantzen ditu inklusioa eta aniztasuna, eguneroko eginbeharretan ematen die sarbidea bi balore hauei, eta irakasleari ez dio eraman ezinezko lanik ekartzen.

Are gehiago, IK/KI-k bide ematen du inklusio- eta aniztasun-helburuak modu praktikoan lantzeko. Horrek ez du aparteko programaziorik eskatzen, nahikoa da helburu horien adierazleren bat identifikatzea eta C Eremuko baliabideetan (talde-planak) txertatzea.

GOMENDIOAK:

- Irakurri Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duena: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/decretos_normativa_in_dice_e.htm
- Inklusio - eta aniztasun-helburuak C eremuko Talde-planetan dute leku naturala; gainera, jarduera horretan proposatzen den ebaluazio-moduak (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa) helburuen kalitateko lanketa bermatzen du.



2.- Oinarrizko gaitasunak berezkoak ditu

Eskola-lanaren ardatz-elementuak eta ikasleak ebaluatzeko erreferentzia izango dira gaitasun horiek (Curriculum-Dekretua, 11. Or.).

Baina, asmo horri forma zehatza ematea ez da erraza. Ikasgela bateko edota arlo bateko programazioaren markoan, nola egiten da hori?

IK/KI programak dituen baliabideak (faseak, tresnak, epeak etab.) izan daitezke oinarrizko gaitasunak lantzeko --eta ebaluatzeko-- tresna, inolako zalantzarik gabe, baldin eta proposatzen duen prozedura (eremuak, estrategiak, teknikak, sekuentzia didaktikoa) errespetatzen bada.

Aurrekoak hau iradoki nahi du: IK/KI programa unitate osatua da, bai sortzez baita praktikara eramateko moduan ere. Beraz, osotasunean aplikatuz gero --sortua izan den moduan errespetatuz gero-- oinarrizko konpetentzien multzoa garatzeko bidea eskaintzen du. Baina, aldiz, programaren zati bat era arbitrarioan edo modu soltean aplikatuz gero (programaren osotasunari erreparatu gabeko esku-hartze kooperatibo puntualak), programaren indar potentzialak ahultzeaz gain oinarrizko konpetentzien lanketa murriztu egiten da.

Irakasle batzuk, IK/KI Programaren erabilera puntualarekin konformatzen dira. Ez da horixe erabilera hobereana. Hori lardaskan aritzea da, menu osoa hartu beharrean mokadu batekin konformatzea bezala. Mokadu batek estomagoa engainatu egingo du, baina ez gosea ase.

Ondorioz, garbi adierazi beharra dago zein den arrakastarako lehen urratsa: programa den bezala aplikatzea (osorik) harik eta irakasle-taldeak, "ofizioa" ondo ikasi duela bermatu arte.

GOMENDIOAK:

- Ikastetxeetan emandako esperientziak garbi asko erakusten du: saiatu beharra dago, hasieran, bai dinamikak bai egiturak hitzez hitz aplikatzen. Batez ere, horrek bermatzen duelako irakasle-taldeak modu koherentean jokatzen duela eta komunikazio-hizkuntza berean ari dela (koordinazioaren mesederako). Ez eduki presarik, izango da eta denbora egokitzapenak egiteko, nor bere ikastaldean, nor bere irakas-arloan.
- IK/KIren bidez oinarrizko gaitasunak lantzen direla frogatzeko, ariketa ezin interesgarriagoa da Curriculum-Dekretua irakurtzea; zehazki, arlo bakoitzean, "**Oinarrizko gaitasunak eskuratzeko irakasgaiek egindako ekarpena**" atala. Baina, baita ere, arlo bakoitzeko **helburuak, edukiak eta ebaluatzeko irizpideak**.
- Gainera, horietatik guztietatik atera daitezke C eremuko talde-planetarako helburu egokiak, berdin taldeko konpromisoetarako nola pertsonaletarako.


3.- Ez da zaila. Zehatza eta malgua da aldi berean. Segurtasuna ematen du.

Berrikuntza eremuan oso ondo dakigu aspalditik: gauza konplikatuak ez du funtzionatzen. IK/KI programak bat egiten du konstatazio horrekin eta, horregatik, eskaintzen duen material- eta baliabide-multzoa oso ulerterraza da. Jarraitzen duen sekuentzia oso logikoa izateaz gainera irakasleari erraztasunak ematen dizkio aldaketa metodologikoak berehala indarrean jartzeko.

Bestalde, aplikazio faseak eta sekuentziak **txikitik handira** filosofiari jarraitzen diote. Esan nahi du hobe dela aldaketa txikiak eta eraginkorrak bermatzea handiak planifikatzea baino, azken hauek, seguruenik, arazoz beteak izaten direlako. Zeren jakitun baikara zein zaila den zenbait ikastetxetan aldaketak eragitea, zein zaila den inertzia errotuari norabide-aldaketa eragitea.

Hartara, materialez, tresnez, txantiloiez, argibidez eta egitekoz ederki hornitutako programa izateaz gain, zer egin, noiz, nola zeren bidez, eta gainerakoak, ederki sekuentziatzen ditu modu logiko baino logikoagoan. Sekuentzia hori hiru fasetan zatitu daiteke.





8. irudia (Iturria: UVIC)

Hiru esku-hartze eremu dira:

A eremuak (lehen fasea) printzipio ezin logikoagoa aplikatzen du: ikasleak taldeka lanean jarri aurretik harreman onak –edo sikiera egokiak-- erdietsi behar dira. Helburu horretarako irakaslea da eragile nagusia (entrenatzaile, gidari, arkitekto ...). IK/KI programak, bere aldetik, “*dinamika*” izenez ezagunak diren estrategia-sorta eskaintzen du kohesio arazoaren aurrean behar den esku-hartzea diseinatzeko xedez. Horrezaz gainera, kohesio arazoak diagnostikatzeko gida eta baliabideak ematen ditu.

Behin kohesio-maila itxurazkoa lortu eta gero, B eremuak ere baliabideak jartzen ditu irakaslearen eskuetan, kasu honetan, edukiak era kooperatiboan ikasgarazteko ikasleei. Fase honetan erabiltzen diren teknikak “*egitura*” izena hartzen dute. Izena, gehien bat, irakaste-ikaste prozesuari ezartzen zaion egituraketatik dator, non ikasleek, ikasgelaren egituraketa tradizionaletik urrun, talde txikietan ikasten duten elkarri lagunduz eta elkarri laguntza eskatuz. Egitura kooperatibo sorta handia eskaintzen da (20tik gora) eta beroriek unitate didaktikoetan txertatzea ez da batere zaila.

Azken fasea, C eremua, jarreraren eta prozeduren eremua da. Taldeko konpromisoak, konpromiso individualak, berorien ebaluazioa eta hobekuntza

GOMENDIOAK:

- Aplikazioa modu txukunean antolatu behar da; hau da, aurrez planifikatuta nork, zer, nola, noiz ... Hori guztia errazteko, proiektu-forma ematea iradokitzen da. Hala egin da makina bat lekutan; zehazki, Formazio eta Berrikuntza Proiektu baten bidez, urteroko deialdia baliatuta. Gainera, horrela eginez gero, ikastetxearen onspena eta babesa lortzen da, proiektua aurkeztu aurretik Klaustroaren eta Organo Gorenaren oniritzia ezinbestekoa da eta.
- Planifikatzeko modu honek Berritzegunearen inplikazioa eskatzen du; batez ere, formazioari dagokionean. Hartara, baita ere, proiektuari hitzarmen baten zentzua eman dakioke, ikastetxearen eta Berritzegunearen arteko kontratua, nolabait.
- Berritzegunearen elkarlana bilatzea erabakigarria izan daiteke. Izan ere, IK/KI programak izan duen hedapen harrigarria, hein handian, Berritzeguneek agertu duten zabalte-gaitasunari zor zaio. Gainera, Berritzegunearen sareak zabalte homogeenoa bideratzen du eta, era berean, VICeko Unibertsitateak emandako argibideekin koherentziaz eta zintzo jokatzea.



Ez dugu ezkutatuko materiala eta tresnak ezagutzeko denbora behar dela, baina inola ere ez beste edozein material edo baliabide berrik eskatzen duena baino gehiago. Esate baterako, ez du testu-liburu berri batek eskatzen duen ezagutze-denbora baino gehiago eskatzen. IK/KI programaren materialak irakurterrazak dira eta ez dute berau baztertera eramango luketen dedikazioa exijitzen. Beste hainbeste esan daiteke formazioari dagokionean; hau da, programa ezagutzeko beharrezkoak diren dedikazio-orduak guztiz eramangarriak dira, eta modu naturalean txerta daitezke ikastetxeko ordutegi arruntean. Gainera, formazioa guztiz praktikoa da.

Laburbilduz: aldaketa eramangarria dakar.


GOMENDIOAK:

- **Denbora** gaiari tartea eman behar zaio ikastetxean, hausnartzea merezi du eta. IK/KI programa aplikatu eta gero, ondorioztatu da hainbat ikastetxeetan denbora ez dela galtzen; alderantziz, sartutako orduak inbertsio bat direla eta, luzarora, denbora irabazi egiten dela.
- Formazioak izaera praktikoa du. Aplikazioaren urratsekin batera antolatu behar da. Gure erkidegoan Berritzeguneetan eskaintzen da eta bertako aholkulariekin adostea da egokiena (egutegia, ordutegia, gaiak...).

5.- Irakaskuntza pertsonalizatua errazten du

Era indibidualistan antolatutako Ikasgelan irakasleak ez du denbora nahikorik izaten ikasle guztiei arreta indibidualizatua emateko, are gutxiago arreta pertsonalizaturako. Metodologia kooperatiboak indarrean jartzen dituen ikasteko eta irakasteko moduen bidez errazagoa da, besteak beste ikasleak ere irakasten jartzen dituelako. Hartara, arreta pertsonalizatua bi bidetik iristen da: irakaslea eta beste ikasleak. Zientziak onura besterik ez dio ikusten elkarreragin bikoitz horri. Dewey, Thelen, Slavin, Jhonson anaiak, Vygotsky eta beste hainbat zientzia-egile lekuko dira.

Lekuko diren bezala gure lurraldeko ehunka irakasle, IK/KI Programa frogatu dutenak, hain zuzen ere. Zientzialarien ikerketek eratu duten teoria ez bada aski ikaskuntza kooperatiboaren bidez batere erraza ez den pertsonalizazioa lorgarria dela konbentzitu gaitezen, irakasle horien testigantza jasotzea ezinbestekoa da. Izan ere, gertuko "praktika onak", sarri, sinesgarriagoak egiten zaizkigu.



9. irudia (Iturria: UVIC)



GOMENDIOAK:

- Ikerketek demostratu digute, irakasle-ikasle elkarrekintzaz gain, ikasle-ikasle elkarreragina eta elkarrekintza baliatuz gero, ikasleek hobeto eta gehiago ikasten dutela. IK/KI-k horretantxe du bere oinarri garrantzitsuenetako bat.
- Horrela, gainera, arreta pertsonalizatua bi bidetik gauzatzen da: batetik, berdin artekoa, simetrikoa eta parekidea; eta bestetik, irakasleak ematen duena. Lehenbizikoa gauzatzeak bigarrenaren efektua nabarmen ugartzea ekartzen du, besteak beste, irakasleak denbora irabazten duelako arreta pertsonalizatuaren premia handiena duten ikasleei eskaini ahal izateko.
- Irakurri: Guerrero, C. (2010). *La Cooperación como condición social de aprendizaje*. Barcelona: UOC.
- Praktika ontzat jo daiteke esaldi honek esan nahi duenaz hausnartzea: *Zer edo zer ondo ikastea nahi bada, berau irakasten jartzea bazelakorik ez da*. Zientziak dio ikasleen arteko laguntza-emateetan denek irabazten dutela: laguntza jasotzen duenak, noski; baina laguntza emaleak ere bai.

6.- Ikaslea da protagonista

Eta irakaslea, berriz, entrenatzailea, gidaria, arkitektoa, ikaslarazlea ...

Irakaskuntza kontzeptuak izan du protagonismoa hezkuntza kontzepzio indibidualistetan; ikuspuntu kooperatiboetan, berriz, *ikaskuntzari* ematen zaio indarra. Logikoa da; ezin baitzaie muzin egin gizartea bizitzen ari den aro berriaren ezaugarriei, non aldaketa etengabea, ziurgabetasuna, informazio-jauzia eta bestelakoak diren gure ikasleek zer gaitasun beharko dituzten ezartzen dutenak. Eta, horien artean, bi hauek nabarmendu beharra dago: ikasten ikasteko gaitasuna eta bizitza osoan ikasteko gaitasuna.

Horiek biek osatzen duten multzo berean kokatzen dira oinarritzkoak diren beste hauek ere: autonomia eta garapen pertsonala, komunikatzeko gaitasuna, elkarbizitzarako eta herritar aktibo izateko gaitasuna.

Konpetentzia horiek ez dira entzunda ikasten, besteak ere ikasten ez diren bezalaxe, eginez baizik. IK/KI Programak eskaintza praktikoa da horretarako.

GOMENDIOAK:

- Zientziari zor diogu jakitea pentsamendu gorena garatzeko zein diren landu beharreko jarduerak eta zein ez. Horren inguruan janzteko, egokia da *Bloom-en Taxonomiari* erreparatzea (<http://www.eduteka.org/TaxonomiaBloomCuadro.php3>). Bloomen ikerketari esker badakigu soilik modu pasiboan entzutea eta, ondorren, buruz ikasitakoa errepikatzea ez direla pentsamendu gorena garatzeko trebeziak; analizatzea, ebaluatzea, sortzea eta ikaslearen esku-hartze aktiboa eskatzen duten bestelako trebeziak bai, ordea. Zenbat eta gehiago hurbildu pentsamendu gorenera, orduan eta ikaskuntza jasoagoa. Garbi da lehen egoeran ikaslearen protagonismo eza gertatzen dela; beraz...



7.- Elkarbizitza lantzen du. Elkarbizitzen ere eginez ikasten da.

- ✓ Aurretik esana dago zein den metodologia klasiko-indibidualistak lortzen duen efektua: indibidualismoa. Esana dago, baita ere, zergatik: zer egin, hura ikasten delako.
- ✓ Zein izango da, beraz, metodologia kooperatiboaren efektua? Hirukoaren erregela aplikatuz gero erraza da dedukzioa: kooperazioa.

Sobran da azaltzea zer lotura estua dagoen kooperazioaren eta elkarbizitzaren artean. Beste modura esanda: arian-arian, kooperazioaren bidez elkarbizitzen ikasten da.

GOMENDIOA:

- Elkarbizitza Planetan, ikaskuntza kooperatiboa ikastetxeko helburu moduan sartzeari oso praktika ona da. Batez ere, elkarbizitzen ere eginez ikasten delako, hau da, testuinguru errealean, egoera arruntetan eta eguneroko pertsonen arteko hartu-emanen. Azken hau tutoretza teorikoa edo doktrinamendua baino askoz eraginkorragoa da, zalantzarik gabe. IK/KI programak abantaila handia eskaintzen du, gainera; izan ere, elkarbizitzaren praktika ebaluatzeko tresnak eskaintzen baititu, beroriek autoebaluazioan eta taldeko ebaluazioan oinarritzen direlarik. Irakaslearen entrenadore-lana ezinbestekoa da.

8.- Ikasteko modurik eraginkorrenetakoa irakasten jartzea da. Azaltzea.

Irakasleok ondo baino hobeto dakigu: ikasleen aurrean jartzen garenean, eduki baten irakaste lanetan, ez dugu ezjakinaren zantzurik erakutsi nahi; hori ez da batere profesionala; irakasten duenak dakiela demostratu behar du.

Jar ditzagun, bada, ikasleak aldamenekoari irakasten. Bide batez euren parte-hartzea ez ezik, ekintzaitasuna eta pentsamendu goren lantzeko bidean jarriko ditugu, oso modu naturalean.

Zeren, dakiguna komunikatzeko ez da nahikoa jakitea; dakigunari forma eman behar zaio: aurkezpenaren egitura, argudioak, ulermena errazteko teknikak, buruz ikastea etab. Horrek guztiak pentsamendua egituratzeaz gain sormena lantzen du. Modu horretan ikasitakoak balio handiagoa du buruz ikaste hutsak baino eta, gainera, etorkizunerako beharrezkoak diren kompetentziak modu praktikoan lantzeko aukera ematen du. Kooperazioak berezkoa du jokaera hori.

GOMENDIOAK:

- IK/KIren bidez ikasle guztiak jartzen dira irakasten –eta laguntzen--. Eta ez modu inprobisatuan edo ez-egituratuan; aitzitik, modu ordenatuan eta antolatuan, hau da, txandaka, errotazioz, helburuak zehaztuta, denborak finkatuta etab. Denek ikasten dute laguntza ematen. Eta denek ikasten dute laguntza jasotzen eta eskatzen.

9.- Ez dio irakasleari iraultza eskatzen: abiapuntua norberaren praktika arduratsua da.

Ez da irakaslearen jardura juzgatzen; aitzitik, bere ohiko jardura abiapuntua da. Hortik aurrera, esperimenduzko errazak, praktika bideragarriak, baliabide praktikoak eta horrelakoak ikasgelan frogatzeko proposatzen zaio irakasleari. Ez dago ohiko programazioa aldatu beharrik. Gauzak ondo eginez gero –batez ere, hasieran- programaren onurak berehala frogatzen dira.

Beraz, IK/KI programak ez dio irakasleari iraultza metodologikoa eskatzen, aldaketa txikiak eta eramangarriak baizik.



GOMENDIOAK:

- Hasieran lehen esperimazioetan, komeni da IK/KI programaren instrukzioak hitzez hitz jarraitzea. Izango da denbora artisaun-lanari ekiteko eta nor bere ikasgelako testuinguruan egoki diren aldaketak ezartzeko; baina, eskarmentuak dio hobe dela horrelakorik egiten ez hastea harik eta programa ondo ezagutu arte.
- Hobe da aldaketa gutxi eta ondo aplikatuak ugariak eta lardaskatuak baino. Esperientzia eta jarduera kooperatiboak izan daitezela kalitatezkoak eta arrakastatsuak, ez azalekoak eta motibazioa galarazleak.


eta
nalki

Aldiz, instrukzio-emate hutsari atxiki zaion irakaslea aisa ordezka daiteke. Estilo hori iraganeko estiloa da. Youtubek, esate baterako, ederki asko egin dezake kontzeptuen eta datuen transmisioan geratzen den irakasleak egiten duen lana, irakasle tradizionalaren lana, alegia. Hobeto, seguru asko. Ikasleak nahikoa du *klik* bat irakasle instrukzio-emaile sorta lortzeko, 24 orduetan, 365 egunetan, non-nahi.

Etorkizunari begira dagoen irakasleak badaki gure ikasleek zer izango duten ezinbesteko: ikasten ikasteko gaitasuna eta arazoei eta erronkei aurre egiteko gaitasunak. Beroriek garatzeko jarrerak, trebetasunak eta prozedurak izan behar dute irakasgai eta ikasgai XXI. mendeko eskolan, kontzeptuak eta datuak baino askoz gehiago. Ikuspuntu horren arabera, diziplinak (eduki kontzeptualak) jarrerak eta prozedurak ikasgarazteko baliabideak dira, ez helburuak. Soilik eduki kontzeptualen formazioak ez du "ziurgabetasunaren gizarterako" prestatzen.

Eta, definizioz, jarrerak eta prozedurak elkarreraginaren eta elkarrekintzaren bitartez ikasten eta hobetzen dira. Pertsonen arteko harreman erreala – ez birtuala -- ezinbestekoa da. Eskolan, bi modalitate hauetan behar du izan: irakasle-ikasle harreman asimetrikoan eta ikasle-ikasle harreman simetrikoan. Bata zein bestea.

Bi bide osagarri horiek baliatuz gero ikaskuntza hobe bermatzen da. Hala dio zientziak eta hala diote gure lurraldeko eta gure lurraldez kanpoko praktikek. Eta ez dira gutxi.



10. irudia (Iturria: UVIC).



IK/KI programak tresnak eta baliabide zehatzak ematen ditu jarrerak eta prozedurak eginez lantzeko, eduki kognitiboak inola ere baztertu gabe. Zer baliatzen du horretarako? Batez ere, autoerregulazioa, autoebaluazioa, taldeko ebaluazioa, taldeko exijentzia eta, baita ere, noski, irakaslearen ebaluazioa, planifikazioa, esku-hartzea, laguntza, gida ...

GOMENDIOAK:

- Oinarrizko gaitasunen deskripzioak eta arloetako helburuak eta ebaluazio-irizpideak informazio zabala ematen digute jarrera-prozeduren inguruan. Ez dugu ahaztu behar oinarrizko hezkuntzaren helburuak oinarrizko gaitasun horiek direla eta ikasleen promoziorako ebaluazio-irizpide nagusia ez dela eduki kontzeptualak ikasi izana, baizik eta, oinarrizko gaitasunak –non besteak beste eduki kontzeptualak txertatzen diren- eskuratu izana.
- IK/KI programak jarrerak eta prozedurak ebaluatzeko baliabideak jartzen ditu irakaslearen eskura: C eremua izenez ezagutzen dugun multzoa.
- Euskal Curriculumak azpimarratzen dituen jarrerak eta prozedurak –oinarrizko gaitasunen markoaren barruan- guztiz txertagarriak dira IK/KI programan; bereziki C Eremuan..

11.- Koordinazio era guztietakoa sustatzen du

Irakasleen artekoa: tutoreak, ez tutoreak, PTak, ziklo/mintegi-arduradunak, zuzendaritza-taldea...; konbinazio desberdinak eman daitezke kide horien arteko koordinazio-jardueretan. Koordinaziorik gabe ezinezkoa baita IK/KI aplikatzea ikastetxe batean.

Bestalde, gure Erkidegoan eman den IK/KI-ren zabaltzean, nabarmentzeko modukoa da ezaugarri propioa, beste lurraldetan eman ez dena: Berritzeguneek hartu duten egitekoa. Horri esker beste koordinazio-moduak indartu –edo eraiki- dira; hauek:

- Ikastetxeen arteko eta irakasleen arteko koordinazioa: mintegiak, bilerak, trukeak, bisitak, jardunaldiak ... Horiek guztiak formazio-modu ezin eraginkorragoa garatu dute: berdinen arteko formazioa.
- Ikastetxeen eta Berritzeguneen arteko koordinazio beteak: IK/KI-ren bidez, hainbat egituraren elkarreragina indartu da: Formazio eta Berrikuntza Proiektuak, Hobekuntza Planak, Formazioa ikastetxeetan kokatua, berrikuntzaren sistematizazioa eta instituzionalizazioa eta abar.
- Berritzeguneen arteko eta aholkularien arteko koordinazioa: IK/KI-k leku printzipala hartu du Berritzeguneetan; hala, Berritzeguneetan, IK/KI batzordeak eratu dira. Lurralde mailan ere koordinazio taldeak sortzeari ekin zaio (Gipuzkoako IK/KI taldea, kasu).
- Programen arteko koordinazioa: IK/KI osagarria eta bateragarria da zenbait programekin. Esate baterako, Elkarbizitza Planarekin, eta Hezkidetza Planarekin. Programen horien arteko konexioak ikusten jartzea, gainera, ikastetxeko ikuspuntu globala errazten du, besteak beste, esku-hartze globalizatuak, ongi hausnartuak eta partaidetza handikoak diseinatzen bultzatzen duelako.
- Hezkuntza Premia Bereziak, Aniztasun Programak, Hizkuntzen Trataera ..., dira, baita ere, koordinazio-eremuak IK/KI Programarekin.



GOMENDIOAK:

- Koordinaziorako *uneak eta guneak* hasiera-hasieran adostu eta ezarri behar dira. IK/KI-k gure eremuan izan duen ibilbideak erakusten du, koordinaziorako *uneak eta guneak* gauzatu diren ikastetxeetan, ikaskuntza kooperatiboak aurrera egin duela eta bai ikasleak bai irakasleak gustura edo oso gustura ari direla. Aldiz, koordinaziorik (benetakoa) izan ez den lekuetan, edo hartu-eman urria izan denetan, ikaskuntza kooperatiboa kostata garatzen da edota bertan behera geratu da.
- Ikaskuntza kooperatiboa indarrean jarri nahi izanez gero, proiektua bat idazteko iradokitzen da, hartara, helburuak, ardurak, epeak eta gainerakoak hasieratik garbi egongo baitira. Zerotik hasi beharriok ez dago, dena dela, Berritzeguneetan aurki daitezke eta ereduak eta aholku onak.
- Elkarbizitza Planeko eta Hezkidetzako zenbait helburu ederki txerta daitezke IK/KI-ko Talde-planetan (C eremuan). Erabaki horrek asko handitu dezake esku-hartze hezitzailea; batez ere, talde-planen bidez (txantiloiak eta errubrikak baliatuta), helburuen betetze-maila ebaluatu egiten delako (autoebaluazioa, Elkarbizitza koebaluazioa eta irakaslearen ebaluazioa).
- Ikastetxe batzuetan ,HPBko ikasleentzako arreta kooperatiboa esperimentatzen ari dira, VICeko Unibertsitateko aditu José Ramón Lagoren eskutik eta Berritzeguneetako aholkularien bitartekaritza. Informazioa eskura dago.
- HIPI programa –eta oro har Aniztasun eremukoak- oso egokiak dira IK/KI-rekin bateratzeko.



Aitortu – Ez komertziala – Partekatu berdin



4. IK/KI-REN IBILBIDEA GIPUZKOAN.

Pedro Roa (Irungo Berritzeguneko zuzendaria).

Konturatu gabe, intuizioz, deskubritzen joan gara Berritzeguneetan Michael Fullanek "Change Forces" bere liburu klasikoan aldaketako prozesuei buruz azaldutako ikasgaiak (Fullan, 1993).

Plan estrategikoak eta planifikazioak beharrezkoak dira eskolan, baina eskolak duen praktikari eta beharrari lotzen ez bazaizkio, nekez txertatzen dira ohiko praktikan.

Orain dela hamar urte luze egon zen Zarautzeko Berritzegunean Vic-eko Unibertsitateko irakaslea den Pere Pujolàs Ikasketa Kooperatiboaren ideiak eta praktikarako proposamenak azaltzen. Hura, ordea, eskoletan praktikatu gabe gelditu zen, beste hitzaldi edo ikastaro batzuekin gertatzen den bezala. Baina ereindako hazi hura ez zen hil. Bost urte beranduago, 2008 urtean, Vic-eko beste irakasle bat, Jose Ramon Lago, egon zen Lasarteko Berritzegunean Ikasketa Kooperatiboaren ideiak eta praktikarako proposamenak azaltzen. Zer dela eta?

Lasarten Elkarbizitza Planen mintegiaren ondorio gisa metodologia kooperatiboak lantzeko beharra zuten, eta hori egiteko praktika onak bilatzen hasi ziren, Gasteizeko Berritzeguneraino joanez, han emandako formazio baten berri izan zutelako. Zarautzekoa ahaztuta, urrutirago joan ziren eta hantxe aurkitu zuten behar zuten erantzuna.

Gipuzkoako beste Berritzeguneok 2010an, Gipuzkoako Proiektuen Jardunaldietan, izan genuen aukera Lasarteko Berritzegunearen eta ikastetxeen IK/KI esperientziaren berri izateko, eta Pere Pujolàsen azalpenak entzuteko. Denok sumatu genuen hori gelara iristen zela, irakasleen eta ikasleen praktikak hobetzeko bide eraginkorra eta motibagarria zela ... eta Berritzegune bakoitza gure aldetik hasi ginen IK/KI proiektuak ikastetxe batzuetan aholkatzen eta Berritzeguneko mintegiak sortzen.

GOMENDIOA:

Berritzeguneko mintegiak foro egokiak izan dira, eta dira, IK/KI Programaren gaineko informazio zuzena eta formazioa hartzeko. Bertan ikastetxe ugari izaten direnez, iritzi profesionalak trukatzeari ohikoa da, eta praktika onak entzutea, eta zalantzak argitzea aberasgarria da.

Pertsona bakoitza aldaketaren eragilea da. Aldaketa inportantea da adituen esku uzteko.

Adituen beharra izan dugu prozesu honetan. Beti laguntza emateko prest ditugu Pujolàs eta Lago, baina gure bidea deskubritzen goaz ikastetxeetan eta Berritzeguneetan Ikasketa Kooperatiboarekin. Beharraren eraginez gure prestakuntza teorikoa eta praktikoa osatzen joan gara ikastetxeekin IK/KI proiektuen aholkularitza ematen hasi garenean, Berritzeguneetako mintegiekin, ikastetxeen arteko bisitekin, EHUko ikastaroekin... Gai honen inguruko elkarlana eraikitzen goaz Berritzegune bakoitzaren aholkulari taldean eta Berritzeguneen arteko koordinazioan. Horri esker ausartzen gara elkarren laguntzaz erronka eta pausu berriak ematen.



GOMENDIOA:

Gipuzkoako esperientziak erakusten du zein gomendagarria den lurralde mailako koordinazioa antolatua izatea. IK/KI Gipuzkoa foroak (Berritzeguneetako IK/KI aholkulari-arduradunen foroa) asko lagundu du metodologia hau modu koordinatuan zabaltzeko garaian.

Koordinazioak ez luke lurralde mailan bukatu behar. Gomendagarria da, halaber, Erkidegoan beste koordinazio-foroa izatea.

Eta beste hainbeste esan daiteke Berritzegune bakoitzerako: aholkularien arteko elkarlana eta koordinazioa erabakigarria da. Horretan ere, IK/KI Programak inklusioa du helburu.

IK/KI programaren bidez A, B eta C eremuak ezagutzea, praktikatzea eta ikastetxeetan azaltzea izan dira lehenengo pausuak, baina horien inguruan sortzen diren zalantzak eta galderak dira aldaketaren eta mugimenduaren eragileak gure prestakuntzarako eta koordinaziorako.

GOMENDIOA: Beharra eragile handi.

Ikastetxeko memorietan, ebaluazioetan edo hobekuntza planetan azaldutako egitasmoak ikasgelan dagoen kezka argiari erantzuna ematen badiu IK/KI programaren bidez, eta pausu zehatzak eskaintzen baditugu; aurrera ateratzeko aukera handia dugu, eguneroko praktikan eta beharretan oinarritzen garelako.

Aldaketa bidai bat da, ez da lineala, pasioz eta zalantzez beteta egoten da.

Badakigu zer garrantzitsua den Berritzeguneko aholkulariok ikastetxeetara joatea sentsibilizazioko saioak egitera, eta A eremua eta B eremua lantzerantz (A: era kooperatiboan lana egiteko giroa prestatzea gelan, B: era kooperatiboan ikasteko balio duten estrukturak ezagutzea eta erabiltzea Arloetan eta Unitate Didaktikoetan), baina hori mantentzeko eta aurrera jarraitzeko funtsezkoa da ikastetxean IK/KI arduradun bat izatea eta zuzendaritza taldearen babesa izatea (koordinaziorako guneak eta uneak beharrezkoak baitira).

Badakigu ilusioa eta sinesmena dugunean aholkulariok kutsatzen dugula Ikasketa Kooperatiboarekiko atxikimendua, baina badakigu ere ikastetxean bertan dagoen koordinatzaileak kutsatzen duen ilusioa ezinbestekoa dela, eta bera elikatzen dela gure mintegietan esperientziak konpartitzen ditugunean.

GOMENDIOA: Irakasle talde baten ilusioa eta kooperazioa behar dira.

Zailtasunen aurrean berrikuntzaren beharra dugu, ikasteko eta aldatzeko prest gaude, baina taldearen babesa funtsezkoa da lanari jarraipena emateko.

Gomendagarria izaten da, aldaketarako prest azaltzen den irakasle-taldeak Klaustroaren babes ofiziala eskatzea. Beste arrazoiren artean, metodologiari dagokion aldaketa erakundearen eskumena izan behar duelako. Kontsentsu horrek, bide batez, aldaketaren etorkizuna bermatzen du, erakundeak bere egiten duelako. Hortik aurrera ez da gutxi batzuen izango.



Arazoak gure lagunak dira, ekidinezinak dira eta ezin dugu arazorik gabe ikasi.

Irakasle batzuk gogoz ari diren bitartean beste batzuk poliki doaz A eremuko ekintzak eta B eremuko estruktura kooperatiboak erabiltzen. Polikiago doazenak arazo bat sentitzen dute denbora gehiago behar dutenean Unitate Didaktikoetan, bai prestaketan, baita gelako lanean, eta zalantzan dute talde heterogeneo iraunkorrak egitea merezi ote duen. Baina deskubritzen dutenean ikasleen arteko hizkuntzaren erabilera areagotzen dela, ikasitakoa iraunkorragoa dela, gelako giroa hobetzen dela, elkarri laguntzen ikasten dutela eta elkarrekin gehiago ikasten dutela bakarka baino, orduan bai animatzen dira.

Hala ere, bidai guztietan bizitzen dira momentu txarrak eta atzera bueltatzeko tentazioak. Horixe gertatzen da C eremua erabiltzeko garaian: ibilbidearen pausu kritikoa dugu hau, taldearen plana eta plan indibidualak egin behar direlako eta ebaluatu behar direlako, eta gelako irakasle desberdinen artean ados jarri behar dutelako. Baina poz handiz ari gara ikusten ikastetxe batzuetan pausua ematen dutela eta mintegietan konpartitzen dituztela beraiek sortutako tresnak eta bizi izandako esperientziak.

GOMENDIOA: Praktika onen beharra dugu ikasteko, eta praktika onen osagaiak dira saiakerak eta erroreak.

Praktika onen ereduak ezin dira kopiatu besterik gabe, norberak egokitu behar ditu bere testuingurura. Bestalde, saiakera eta errore bidez ikasitakoak praktika on guztietan daude, eta ez dira ahaztu behar. Horregatik, hain zuzen ere, praktika onen parte direlako, eramaten dugu egiten ari garena mintegietara eta ikastetxeko prestakuntza saioretara, lorpenekin eta zalantzekin. Hori erakusteak hausnarketa eta ikasketa prozesua dakar azaltzen duenarentzat eta prozesuaren ikuspegi baliotsua ematen digu guztioi.

Funtsezkoa da konexio handia izatea ingurukoekin. Eskola eta erakunde jakintsuek ikasten dute bai barruko esperientziekin bai eta kanpokoekin ere.

Horixe da osatu dugun formazioko katearen funtsa: Unibertsitateko adituengana jo dugu behar izan dugunean, Aholkularion taldea sortu dugu Berritzeguneetan, Aholkulari koordinatzailea joaten da sistematikoki ikastetxera, ikastetxeko Koordinatzaileek parte hartzen dute Berritzeguneetako mintegietan, eta beraiek ikastetxeko Irakasle-taldearekin konpartitzen dituzte beste ikastetxe eta irakasleengandik ikasitakoak eta zalantza berriak. Baina abiapuntuan praktika dago beti: IK/KI proiektuan parte hartzen dutenek ikasgelan aplikatzen dutelako era handiagoan edo txikiagoan. Gai honetaz hitz egitea baina ez praktikatzea alferrikako lana da.

Autotxostenak, Unitate Didaktikoen txostenak, Taldeen planak, erabilitako egitura kooperatiboen isla idatzia, eta hortik sortu den plana mailaka eta arloka sekuentziatzea. Hori guztia da eskola barruan konpartitzen duguna eta ikasleekin lana egiteko era aldatzen duena.

GOMENDIOA:

Ez du zentzurik ideiez etengabe hitz egitea, baizik eta egin dugun edo egingo dugun erabilera praktikoaz hitz egitea. Gure eta besteen esperientziekin, gelako eta ikastetxe barruko eta kanpoko praktika zehatzekin, guztiok hobetzea da kontua.

Horretarako, IK/KI Programak tresna sinplea eskaintzen du: autotxostena. Asmoa ez da autotxostena lan-karga astuna izatea; aitzitik, laburra izan behar du.

Autotxostenen bidez ikasgelako praktika errealak islatzea dira; gure hausnarketarako eta elkarrengandik ikasteko abiapuntua dira. (Ikus eranskinak).



Garrantzitsua dena ezin da aginduaren bidez inposatu: zenbat eta sakonagoa izan aldaketa hainbat eta gutxiago ezartzen da indarraren bidez.

Ikastetxeetan kultura desberdinak daude: ba daude ziklo edo departamenduen arteko autonomia eta diferentzia onartzen duten ikastetxeak eta onartzen ez dutenak, irakasleen estilo pertsonalari leku gehiago edo gutxiago ematen diotenak ... Baina esperientziak erakusten digu IK/KI proiektuan minimo komun batzuk finkatzen joan behar dutela irakasleek, zikloek, departamentuek eta etapek aurreratu nahi badute, eta urte batetik bestera egindako lana probestu nahi badute.

GOMENDIOA:

Hobekuntza Planarekin eta Prestakuntza Berrikuntza proiektuen deialdiarekin lotura ematea bilatu dugu ikastetxeetan, hori delako biderik eraginkorrena irakasle guztien konpromisoa lortzeko eta ikastetxearen estructuretan eta Urteko Planean txertatzeko.

Baina hori egiten ez bada zer?

Berriro negoziatzen da aholkularitza lana eta saiitzen gara aurrera jarraitzen. Irakasle talde bat ikastetxean prest baldin badago jarraitzeko, aholkularitza eta laguntza ematen zaio Berritzegunearen aldetik. Horrexegatik hasitako ikastetxe guztiek jarraitzen dute IK/KI mintegietan, eta horregatik handitzen doa urtero ikastetxe, irakasle eta ikasleen kopurua.

GOMENDIOA:

Proiektuari forma ematea eta Urteko Planean eta Memorian sartzea laguntza handikoa da.

Hala ere ez da nahikoa beti, eta ikastetxean pausuak motelak izan badira edo batzuen kolaborazioa txikia izan bada; gure gomendioa da dagoenari forma ematea, lortutakoa bermatzea eta ikastetxeko egituretan txertatzea. (Ikus eranskinak).

Koadro honek planifikazio erraza proposatzen du. Gehiago zehaztu daiteke. Horretarako, beste kontzeptu hauek sar daitezke: epea (astea, hilabetea, hiruhilekoa...), irakaslea, zikloa, departamentua, unitate didaktikoa etab.

GOMENDIOA:

Zenbait ikastetxetan, antzeko planifikazioak *Irakaslearen Koadernoan* edota *Ikastaldeko Koadernoan* txertatu dituzte.

Aldaketa sakonak zailak dira eta guztion konpromisoa eskatzen dute.

Arestian idatzitako ikasgai hauek gogorarazten digute zein hauskorak diren gela barruko funtzionamenduaren egitura ukitzen duten proposamen praktikoak. Lehenik eta behin baztertu behar dugu aholkulari jakintsuaren eta bakarlariaren irudia: aldaketa hau konpartitua izan behar da Berritzeguneko kideekin eta eskola barrukoekin, irakasle guztiak direlako aldaketa honen eragile, irakasle bakoitza bere gelan, ziklo edo mintegi bakoitza bere taldean, eta zuzendaritza taldea eta IK/KI koordinatzailea etapan edo ikastetxe osoan. Baina beti daude erdiko pausuak utopia urruti ikusten denean.



GOMENDIOA:

Ilusio eta sinesmena, konpromisoa, erritmoen errespetua, umore ona, gelan aldaketa txikiak egiteko ausardia, eta ikasteko gogoia duten irakasleekin elkarlanean aritzea da gakoa Ikasketa Kooperatiboaren kultura eskolan zabaltzeko eta finkatzeko.

Beste egitasmo batzuetan bezala lehenetasuna pertsonengan dago, ez proiektuetan edo paperetan. Irakasleen garapen pertsonala eta haienganako uste ona eta itxaropen altuak izatea, eta haiei horixe bera adieraztea dira funtsezkoak konpromisoa lortzeko eta erronka honen aurrean irauteko.

Hor gaude nonbait oraingo fasean: nola jokatu partaidetzarako oztopo handiak dituzten ikasleekin talde txikietan? Nola txertatu kooperazioa IKTetan? Nola txertatu ebaluazioa eta kalifikazioa? Nola eragin jarrera ezkorra duten nerabeengan? Nola egokitu Haur Hezkuntzako hurrei? Eta Lanbide Heziketan?... Horietako batzuk 2013ko sinposioko gaiak izan ziren eta beste gai batzuk, berriz, etorkizun hurbileko erronkak ditugu. Galtzak bete lan, alajaina!

Ikasleak, irakasleak, ikastetxeak eta Berritzeguneak era kooperatiboan bidea egiten ari garen heinean ikasten goaz. Ibilbideak merezi du. Gehiago eta hobe ikasteko kooperatzen dugu, eta kooperatzen ikasteko moduak sortzen eta praktikatzeko goaz. Horixe dugu IK/KI egitasmoaren aldaketa sakona eta iraunkorra lortzeko era.

GIPUZKOAKO IKASTETXEAK ETA BERRITZEGUNEAK.

Gipuzkoako Berritzegune guztietan ditugu Ikasketa Kooperatiboaren inguruko mintegiak eta bertan HH-LHko ikastetxeak eta DBHko ikastetxeak ditugu gehien bat, baina baita Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasle eta ikastetxe batzuen partaidetzarekin kontaktatzen dugu. Ikastetxe hauek publikoak zein itunpekoak direlarik.

Ikastetxeetan sortutako zalantzak, esperientziak, materialen egokitzapenak, Unitate Didaktikoen praktikak, Talde planak, Errubrikak... elkarri azaltzeko eta elkarrengandik ikasteko aukera ematen digu.

Mintegien laguntzaz, eta Gipuzkoako Berritzeguneen koordinazioko foroaren laguntzaz, irakasle batzuk beste ikastetxeetara mintegietara bisitak egiten hasi ziren aurreko urteetan, edo beste zonako mintegietara bere esperientzia kontatzera hurbildu ziren.

Gaur egun Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren deialdi formal baten bidez antolatu da esperientziak konpartitzeko modua. Hala nola: EAE mailan 2014-15 ikasturtean "Partekatuz ikasi" deialdiaren bidez hasi dira ikastetxe publiko batzuk beste ikastetxe publikoetako irakasle taldeei azaltzen bere praktika, tutore gisa, eta 2015-16 ikasturtean jarraipena emango zaio deialdiari. Eskaera zabala da, eta ez da erraza tutore izateko prest dauden ikastetxeak urtero aurkitzea, baina zorionez lortu da bigarren urtez.

Ikasketa kooperatiboan hasteko prest dauden irakasleak eta ikastetxeak baditugu urtero zorionez, baina gure kezka nagusia da ilusioa mantentzea irakasleengan eta ikastetxeetan. Ikastetxeko egituretan (zikloetan edo mintegietan), A, B eta C eremuetan egindako lana jasotzea, eta ikastetxeko Proiektu nagusietan islatzea beharrezkoa izango da, eta hori eguneroko praktikan mantentzea, irakasleen aldaketak gertatzen badira ere. Hor dago etorkizunaren erronka!



Aitortu – Ez komertziala – Partekatu berdin



5. IK/KI, BERRIZTATZE PEDAGOGIKOA ETA HEZKUNTZA KALITATEA.

Maria Victoria Fernández (Irungo Berritzeguneko Etapa Aholkularia).

5.1.-BERRIZTATZE PEDAGOGIKOA.

Gaur egun eta azken urteotan gizartean ematen ari diren aldaketak direla eta, irakaskuntzan, **hezkuntza munduan aldaketa sakonak egiteko beharra** dagoela jakin badakigu. Hau dela eta, hainbat prozesu martxan jartzen ari gara aldaketa horiek lortu nahian.

Egungo gizartearen ezaugarriak asko dira. Alde batetik pertsona eta familia anitzak eta mundua ikusteko ikuspegi desberdinak dituzten pertsonak osaturiko gizarte bat da. Beraz ikastetxeetan ditugun ikasleek errealitate hori islatzen dute eta **behar eta erronka berriak** sortzen dituzte maila desberdinetan: programatzen ditugun edukietan, metodologian, partaidetzan... baina, batez ere, aniztasunari erantzuna emateko moduan.

Aipatzekoa da bestalde, Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologiaek lortu duten eragina gaur egungo gizartean. Une honetan edonork *smartphone*, tableta edo ordenagailuaren bidez Internetarako sarbidea du, honek suposatzen duen guztiarekin. Egun, **informazio ugari** iristen da guregan, mota desberdinetakoa eta **iturri desberdinetatik**. Honek suposatzen du irakurleak, hiritarrak, informazioa eskuratzen duenak, informazioa aztertu, kudeatu, filtratu eta antolatu egin behar den ezagutza eraiki ahal izateko gai izan behar du.

Gizarte berri honek exijitzen dituen eskakizun berri hauei erantzuteko asmoz duela urte batzuk **Oinarrizko Konpetentziak** definitu dira, hauek baitira ikasle, haur eta gazte guztiek garatu beharko lituzketenak bizi modu duin bat eduki ahal izateko. Oinarrizko Konpetentzi hauen artean badira batzuk ikas arlo klasikoekin enkajea dutenak, baina badira beste batzuk zeharkakoak kontsideratu daitezkeenak, adibidez Gizarterako eta Herritartasunerako Gaitasuna, Autonomiarako eta Ekimenerako Gaitasuna eta Ikasten ikasteko Gaitasuna, beste batzuen artean. Hala eta guztiz ere badago gaitasun guztiek konpartitzen duten ezaugarri bat, hau da, gaitasunak garatu ahal izateko egiten duguna, nola, eta zertarako egiten dugun hausnartu egin behar dugula gure ikasleekin batera. Ikaste prozesua kontziente izan behar du eta ikasleek aukera izan behar dute ikasten duten hori praktikara eraman ahal izateko. Are gehiago, gaitasunak garatzen dira sozializazioa dela medio, ezin baitira garatu bakardadean, behar dute elkarren arteko eragina sustatu eta bizitza errealeko egoeretan praktikatuz.

GOMENDIOA:

Hau guztia garatzen laguntzen du IK/KI programak: ikasleak talde txikietan bere ikasketaz eta besteenaz arduratu behar dira. Honetaz gain beren iritziak eta ekarpenak argudiatu behar dute eta neurri berdinean besteen iritziak eta ekarpenak errespetuz tratatu behar dituzte.

Gaitasun edo konpetentzien ideia ez da hain berria. 1997an Jacques Delors Unescoko Hezkuntza Batzordearen Txostenean, "La educación encierra un tesoro" formulatzen dira XXI. mendearen erronka moduan garatu beharreko hainbat gaitasun, **hezkuntzaren lau zutabeak** bezala izendatu zuena: **ezagutzen ikasi** (etorkizunean baliagarri izango zaiena ikasi, ikasten ikasi eta bizitzan zehar ikasten jarraitu), **egiten ikasi** (bizitzan topatuko ditugun egoera ezberdinetan ikasitakoa modu egoki eta eraginkorrean, konpetentean, praktikan jartzeko gai izatea,) **izaten ikasi** (norberaren egitean gizaki gisa garatzen laguntzen, modu globalean, gorputza eta burua, sentsibilitatea eta adimena, banakako erantzukizuna, pentsamendu kritikoa...) eta **elkarrekin bizitzen ikasi** (arduraz kooperatzeko eta banakako zein taldeko proiektuak garatzeko gai izanik, munduko ikuspegi zabal eta malguarekin, beste pertsonak ezagutzeko eta beraiengan norbera ikusteko gai, izatea enpatia eta gatazken ebazpen baketsua bultzatuz).



GOMENDIOA:

Jacques Delorsen zutabeak garatzeko laguntzen duten lan tresnak eta estrategiak ditugu IK/KI programan.

Izaten ikasi. Elkarrekin bizitzen ikasi.

A eremua: talde-kohesioa lortzeko ikasleek arteko elkar ezagutza areagotzeko, lan kooperatiboa egin ahal izateko prestatzen joateko eta elkarrekin urrutiagora iritsiko gara ulertzeko.

Ezagutzen ikasi. Egiten ikasi.

B eremua: ikasleak oinarrizko taldeen kokatuak, egitura kooperatiboak erabilia, elkarri laguntza ematen, emaitza akademiko hobekoak lortzen dute era ikasle bakoitzak bere ikas prozesuan partaidetza izanda beste taldekideek ikasiko dutela ardura hartzen dute,

C eremua: prozesu honetan, talde txikietan lan egiten dutenean lan tresnak eta estrategiak eman behar dizkiegu beren autoerregulaziorako, auto eta koebaluaziao egin ahal izateko eta beraien ikas prozesua gero eta osatuagoa, eta gero eta aberatsagoa egin ahal izateko.

Hau guztia lortu ahal izateko lehenengo formulak, duela gutxi arte erabili izan ditugunak, metodologia batez ere, ez du balio. Zergatik? Instrukzio hutsak eta ezagupenaren transmisioak ez dituelako hiritar osoak lortzen. Gainera betiko metodologiak ez du lortzen gaur egungo ikasleen arreta, beraien beste interesak dituztelako.

Heziketaren prozesuaren protagonista ikasleak izan behar du, parte hartu behar du hainbat prozesu eta erabakietan, non irakaslea gidari moduan arituko den, bai prozeduratan, bai ikasketetan ere. Berdinen arteko elkarreragina bultzatuko dituzten prozesuak martxan jarrita eta bitartekari lana egiten ikasle eta ezagutzaren artean, baina ezagutzaren eraikitzen duena ikaslea izanik beti.

Marko honetan eskola ez da erakunde isolatua izango, baizik eta komunitateko parte eta kide, non komunitateak eskaintzen dituen errekursoak ikastetxeetan inplementatuko direlarik eta era berean ikastetxea irekiko da komunitateari. Eredu honek irakasleari funtsezko eragilearen rola ezartzen dio eta ezinbesteko eragilea bihurtzen da.

Aipatzen ari garen eredu hau berritzailea da. Hezkuntza markoa aldatzen da eta irakasle eta ikasleen rola ere. Baina zer da berritzailea izatea?

Berrikuntza pedagogikoa gaur egun gizartearen exigentzia da. Egungo gizartearen beharrak aldakorrak dira, beraz erantzun berriak eman behar ditugu edota orain arte genituenak aldatu egin behar ditugu baldintzak konplexuagoak direlako. (García Pascual, 2004, p- 141).

Edozein praktika berritzaileak hausnarketa behar du, non irakasleriak lortutako emaitzak ebaluatzen dituen eta hobekuntzarako egitasmoak proposatzea izango duen helburu. Berrikuntza egiteak ez du suposatzen gelara iritsi eta esan: *berritzera noa*. Suposatzen du prozesu bat: beharrak aztertu eta identifikatu, proiektua definitu (helburuak, ekintzak, ardurak ...) eta ebaluazio prozesu sistematikoa.



GOMENDIOA

Ikasketa kooperatiboa, Ikasten Kooperatu / Kooperatzen ikasi programak, aurrera begiratzen duen planteamendu metodologikoa eskaintzen du. Ikasle guztiek ahalik eta gehien ikasteko baldintzak bideratzen ditu, guztien **parte hartze ekitatiboa** bermatzen du baita **berdinen arteko** eragina ere. Programa globala da eta gelaren giroa hobetzeko eta taldearen kohesioa areagotzeko proposamen zabala (A eremuko dinamikak) eskaintzen du, baita ikasketetan aurrerapen gehiago ikasle guztiek lor dezaten ere (B eremuko egitura kooperatiboak). Programa honetan **errekurtso erabilera eraginkorra** proposatzen da non ikasleek elkarri laguntza ematen dute berein artean eta horrela iraslearen eragina biderkatzen da. **Ebaluaziorako** hainbat **erronka** probokatzen ditu, (C eremuko estrategiak eta lan tresnak irakasleentzat) hainbat momentutan gelako ikasleak lan kooperatiboa egiten badute, irakasleek ebaluazio irizpideak aldatu beharko dituztelako eta maiztasun handiarekin ikasleek beren auto ebaluazioa egin behar dutelako.

5.2.-HEZKUNTZA KALITATEA.

Gure ustez **kalitatezko hezkuntza** da guztientzako tokia duen hezkuntza sistema, non **guztion arrakasta** bilatzen den. Ikasle guztiak behar ditugu eta bakoitzaren ezaugarri desberdinak aberasten dute gure eskola.

Eskola honetan guztion emaitza akademikoak ahalik eta hoberenak izatea nahi dugu. Ikasle guztiengan espektatiba altuak ditugu eta heziketa prozesua bideratzen dugu baldintza hoberenak izateko ikasle guztientzat, non antolamendua, planifikazioa eta prozesu didaktikoa guztia pentsatua, adostua eta guztiona artean aurrera eramaten dugun. (Ainscow, M. eta beste batzuk. (2001). *Hacia escuelas eficaces para todos*. Madrid: Narcea.)

Eskola, sistema konplexua izanda goian aipatu den bezala, formazio gunea izan behar du ere. Eta formazio honen helburu nagusietariko bat **Hezkuntzaren Kalitatea** ahalik eta hobereana izango dela sustatzea da. Ibilbide hau jorratzeko azken urteotan asko lagundu duen elementu garrantzitsu bat **hobekuntza planak** izan dira.

Hobekuntza planak ebaluazio diagnostikoaren ezarpenetik eratorritako ondorio bat izan dira, eta hobekuntzarako benetako aukera moduan kontsideratzen ditugu, ikastetxeetan aukera bezala kontsideratu egin dutelako eta benetako hausnarketa prozesu serioak egiteko baliagarria izan delako.

Prozesu honetan, ebaluazio diagnostikoan lortutako emaitzak aztertzeaz gain ikastetxeko ikasleen emaitzak eta ebaluazio prozedurari buruz hausnarketa sendoa egiten da. Prozesu honetan ebaluazioarekin lotutako hainbat alderdi aztertzen dira ere: ebaluazio adierazleak, metodologia, edukiak, ikasleen papera ikaste prozesuan, ikasle eta irakasleen rola, familien inplikazioa, ikas talde batean eragina izan dezaketean aldagaiak ... Azterketa hauek guztiak eta beste batzuk ere ondorioak ekartzen dituzte eta ondorio horietatik hobekuntzarako hainbat jarduera proposatzen dira ikastetxeetan. Jarduera hauek, beti ere, **Oinarrizko Gaitasunekin** lotuak izan behar dute hainbat eremuekin ere lotu behar dira.

Ikastetxeek kontutan izan behar duten eremuak hauexek dira:

- **Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua.** Irakaskuntza praktikari baliabide eta material didaktiko eta teknikoak eta ebaluazio irizpide eta tresnei eragiten diena.



GOMENDIOA:

Bai curriculuma garatzeko, bai garapen metodologikoan jardura berritzaileak egiteko momentua IK/KI programak eskaintzen dituen lan tresnak eta estrategiak egokiak dira.

Egitura kooperatiboak ikasketa esanguratsua lortzen dute. Ikasleek eztabaidatu, adostu eta ezagutza lortzen dute.

- **Antolaketa eta funtzionamendu-esparrua.** Irakasle-taldeko koordinazioari, taldekatzei, orduen antolaketari edo funtzionamendu-arauei lotua.

GOMENDIOA:

Gelako antolamendua indibidualista izatetik kooperatiboa izatera pasatzen da. Ikasleak oinarriko talde heterogeneoetan kokatzen dira, non batzuk laguntza gehiago behar duten eta beste batzuk laguntza gehiago emateko gaitasuna duten. Lana guztien partaidetzarekin egiten da eta beraien arteko elkarreragina sustatzen da.

Honek suposatzen du irakaslearen parera aldatzen dela eta irakasleen arteko koordinazioa areagotzen da:

- Rol berriak aztertu eta adostu behar dira.
- Sekuentzia edo unitate didaktikoak programatzerakoan egitura kooperatiboak kontutan hartu behar dira.
- Ebaluazioa: ikasleek lan kooperatiboa egiten badute momentu askotan, ebaluatze betiko modua ez da hain baliagarria eta ikasleen arteko auto eta ko-ebaluazioa kontuan izan behar da. Era berean, irakasleek ebaluatzerakoan kooperazioa aintzat hartu beharko dute.

Hainbat ikastetxetan IK/KI ko batzordea martxan jarri da ikastetxe mailan aldaketa metodologia egin eta sendotu ahal izateko.

- **Komunitate-esparrua.** Ikastetxean dauden harremanekin eta elkarbizitzarekin eta ingurunearekiko eta familiekiko harremanekin zerikusia duena.

GOMENDIOA:

A eremuaren bidez proposatzen dinamikak direla eta hobetzen da eta ikasleen arteko harremanak sendoagoak dira. Gelako giroa hobetzen denean ikastetxe osoan elkarbizitza hobeagoa izango, dudarik gabe.

Familiekin egiten diren bileretan programaren berri ematen zaie eta askotan dinamika eta egitura kooperatiboak martxan jartzen dira, horrela familiekin ulertzen dute gai honi ematen diogun garrantzia.



- **Garapen profesionalaren edo prestakuntzaren esparrua.** Irakasle-taldeen prestakuntza-premiei eta premia profesionalei lotuak

GOMENDIOA:

Proposatzen dugun prestakuntza bi ardatz ditu:

- Berritzeguneetako mintegien bidez, non prestakuntza jasotzeaz gain praktika desberdinak konpartitzen diren, beraz irakasleen artean kooperazioa bermatzen da ere.
- Ikastetxean bertan aurrera eramaten den prestakuntza proiektua (hobekuntza planean aurreikusia dagoena). Prozesu honetan BGetako aholkularien laguntzarekin ikastetxearen beharrak aztertu ondoren erantzun egokia ematen zaie, kontuan izanda ikastetxea zein fasean dagoen eta inplementazioa noraino egiten ari den.

- Euskal Herriko Unibertsitateak “**Balio erantsi handiko** ikastetxeen ezaugarriei eta praktika onei “ buruz egin duen ikerketan antzemandako **praktika onak**:
 1. Proiektuen, planen eta prestakuntzaren kudeaketa.
 2. Metodologia eta irakaskuntza materialak.
 3. Aniztasunaren trataera.
 4. Ikaslearen jarraipena, banan-banako atentzioa, orientazioa eta tutoretza.
 5. Ikaslearen ebaluazioa.
 6. Denboraren kudeaketa.
 7. Aitzindaritza edo lidergoa eta zuzendaritza taldeak.
 8. Kudeaketa eta antolaketa ereduak.
 9. Koordinazioa.
 10. Ikastetxearekiko atxikimendua.
 11. Irakasleen, ikastetxearen beraren eta programen ebaluazioa eta Ebaluazio Diagnostikoaren erabilera.
 12. Ikastetxeko giroa eta bizikidetzeta.
 13. Ikastetxearen irudia, azpiegiturak eta baliabideak.
 14. Familia, gizartea eta giza kapitala.

(Ikus 6. Kapitulua).

Ikastetxeek diseinatzen dituzten hobekuntza planek ildo hauen inguruan kokatzeaz gain, ikastetxe, gela eta ikasle eta irakasleen arteko dinamika eta funtzionatzeko moduak benetan eraldatzeko baliabide izan behar dute.

Bilatzen da ere hobekuntza planak eta ikastetxeko prestakuntza plana koherenteak izatea, hau da, bide berdinak jorratzea eta honek guztiak isla izan beharko luke Urteko Plana eta Memorian, non planifikatu eta ebakatu egiten diren proposatzen diren ekintza guzti horiek.

Era berean, hainbat denboran planteatzen diren ekintzak sistematizatu eta finkatu ahal izateko, hartzen diren erabakiak Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan, Ikastetxe Curriculum Proiektuan eta beste hainbeste dokumentu instituzionaletan (Hizkuntza Proiektua, Elkarbizitza Plana, Tutoretza Plana...) jaso egin beharko zen.



Horrela hobekuntza prozesuak ikastetxeetako dinamiketan errotzen dira eta kalitaterantz bide hau jorratzen dute modu sistematikoan.

Ikastetxeak, handiak, txikiak, etapa desberdinetakoak beren praktiketarik ikasten duten sistemak dira: praktika egin, baloratu, hausnartu eta hobetzeko proposamenak egiten dira.



6. PRAKTIKA ONAK

Maidier Beitia (Eibarreko Berritzeguneko aholkularia) eta Jose Maria Arakama (Lasarteko Berritzeguneko aholkularia).

Ebaluazioa eta praktika egokien bidetik, bikaintasunerantz jotzeko egitasmoa dugu azken erreferentzia.

Aldiro egiten ditugun ikasleriaren lorpen eta hutsegiteen ikerketen, azterketen eta hausnarketan emaitzek, egin beharreko berrikuntza eta egokitzapenentarako argibideak eskaintzen dizkigute eta, baita ere, praktika onak antzematen lagundu.

Helburu berberaren atzetik, 2012tik aurrera, *Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak* izeneko ikerketa burutu da, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik, eta behin betiko txostena argitaratu ere bai.

Ikerketaren abiapuntua hau izan da: 2009ko eta 2010eko Ebaluazio Diagnostikoetan (ED) eraginkorrenak izan diren ikastetxeak. Zer esan nahi du “eraginkorrenak” kasu honetan? Bada, oso gauza sinplea: bere Indize Sozio-Ekonomiko-Kulturalari (ISEK), Hizkuntza Ereduari eta beste datu batzuei erreparatuz gero, espero zitezkeenak baino emaitza hobekiak lortu dituztela ED-ko frogetan. Ondorioztatzen da, beraz, ikastetxe horietako funtzionamenduan eta antolamenduan antzeman daitezkeela balio erantsia ematen duten ezaugarriak; hau da, badirela *praktika onak*.

Txostenean, 14 *kategoriatan* zehazten eta sailkatzen dira ikastetxeetan nabarmendu diren *praktika on* horiek, edo “*jardunbide egokiak*”, txosteneko terminoa hartuta.

Guk ez dugu jardunbide egoki horiek nabarmentzeak eskaintzen digun aukera galdu nahi izan, eta hau egitea bururatu zaigu: 14 kategoriatan kontatzen zaizkigun praktika onak *Ikasteko Kooperatu eta Kooperatzen Ikasi-IK/KI* Programak eskaintzen duenarekin alderatzea eta baita azken ikasturteetan berau indarrean jartzeko hartu diren erabakiekin eta praktikekin ere. Hartara, jakingo da IK/KI zenbateraino dagoen hurbil jardunbide egokietatik, zer egiten den IK/KI-ren bidez ikastetxea hobekuntza eta arrakasta bidean kokatzeko; ikaskuntza kooperatiboa aukera metodologikotzat hartzea zenbateraino den asmatzea, alegia.

Beraz, egin dezagun txosteneko ibilbide berbera, kategoriaz kategoria, orden berean.

1. Proiektuak, planak eta prestakuntza

“Kategoria honetan ikastetxeetan hobekuntza-planei loturik gauzatzen diren hezkuntza prestakuntza eta berrikuntza proiektuak sartzen dira.” (ISEI-IVEI. (2013). “Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak”. 23 or. ISEI-IVEI. EHU.)

IK/KI aukeratzen duten ikastetxe gehienek, berau prestakuntza-berrikuntza proiektuaren bidez garatzeko proposamena jaso dute Berritzeguneetako aholkulariengandik. Eta hala egin dute.

Ikastetxeek, plan estrategikoetan, ikasleen aniztasunari eta inklusioari erantzuteko beharra jasotzen dute. Deklarazio horren barruan konpromiso bat dago bai ikasleekin eta irakasleekin ere. Hori guzti hori prestakuntza eta berrikuntza proiektuan islatzen da. Plan estrategikoak berrikuntza pedagogikora bultzatzen du (gelan ikasleekin aplikatzera) eta estrategia inklusiboetan (IK/KI) irakasleriari formazioa eskaintzera.

Beste iturri garrantzitsua, proiektua eratzeko garaian, Ebaluazio diagnostikoaren ondorengo Hobekuntza Plana (HP) da. Ez dira gutxi metodologia-aldaketaren beharra sumatzen duten HPak. HPtik prestakuntza eta berrikuntza proiektuetara pasatzea sekuentzia logikoa besterik ez da.



Esan beharrik ez dago IK/KI-k irakasleen formazioa eskatzen duela. Berau bi planotan antolatzen da: Berritzegunean eta ikastetxean bertan . Baieztatu daiteke bietan ematen dela berdinen arteko eta *parekideen arteko formazioa*. Bai antolamenduak, bai transmisio-moduak *prestakuntzaren jarraitutasuna eta irmotasuna* bermatzen dute.

GOMENDIOAK:

-Ikaskuntza kooperatiboa Hobekuntza Planeko ekintzetako bat izan dadila. Hobekuntzarako proposamen erraza eta eramangarria da.

-IK/KI-ri Prestakuntza- eta berrikuntza- proiektuaren forma eman, berrikuntza-nahiari abiapuntu irmoa emateko, konpromisoak, ardurak, egutegiak etab. zehaztuz.

-Proiektuaren diseinua Berritzeguneko aholkulariekin batera egin, praktika onen ezagutzaile dira eta.

-Formakuntza-plangintza Berritzegunearekin adostu eta burutu (Mintegia, ikastaroa, hitzaldiak, jardunaldiak ...), eta Ikastetxeko Urteko Planean (IUP) txertatu.

2.-Metodologiak eta irakats materialak

Oinarri oinarrian, gelako ohiko jardueraren egituraketa indibidualista aldatzera datorren metodologia berriztatzailea da, Ikaskuntza Kooperatiboa. Aldaketa honek ikasle guztiek duten oinarriko kompetentziak eskuratzeko eskubidea ahalbidetzen du.

Modu kooperatiboan lan egiteak, oinarrizko kompetentziak modu naturalean lantzea dakar, eta ez soilik arloekin lotura zuzena duten kompetentziak, baita garatzea zailago egiten zaigun besteak ere: zeharkakoak (ikasten ikasteko kompetentzia, norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia, gizarterako eta hiritartasunerako kompetentzia eta hizkuntza eta komunikazio kompetentzia).

Egituraketa- aldaketa honen alde apustu egiteak gure ikasleen emaitzak ez ditu okertzen, aldiz, emaitzak onak direla erakutsi digu. Lortutako emaitzek satisfazio pertsonal eta profesionala ematen digute eta jarraitu behar den bidea zuzena dela ziurtatzen digu.

Horrezaz gainera, ikaskuntza kooperatiboa guztiz osagarria da beste aukera metodologikoekin; esaterako, Proiektuen Metodologiarekin, Amara Berri Sistemarekin, Eleaniztasunarekin etab. Ikaskuntza kooperatiboak ez du inor eta ezer baztertzen, ezta metodologia klasikoa ere momentu batzuetarako. Ez dago, beraz, talkarik; aitzitik, IK/KI-k bestea aberastu dezake eta alderantziz. Esan daiteke aniztasun metodologikoa erraz barneratzen duela.

Arloen lanketari dagokionean, beste hainbeste esan daiteke: guztiak landu daitezke IK/KI-ren bidez, guztientzako du zer eskainia. Gainera, IK/KI ezartze-prozedura arloen arteko koordinazioa sustatzera dator eta, bide batez, baita arloetako irakasleen arteko koordinazioa ere.

Teknologia berriak, baliabide kooperatibo moduan frogatzen ari dira ikastetxe batzuetan; merezi du beroriek ezagutzea. Ikaskuntza kooperatiboaren etorkizuna hortik doa.

Bukatzeko, komeni da jakitea nondik atera zen IK/KI programari horrelakoxeko hedatzea eman dion inpultsoa: Elkarbizitza Mintegietatik. Izan ere, ukaezina baita kooperazioa eta elkarbizitza txanpon bereko aurpegiak direla. Hala, balioak modu eraginkorrean lantzen dira: eginez eta egindakoaz –edo ez egindakoaz- hausnartuz (ebaluazioa).



GOMENDIOAK:

-Ikastetxeetan erabiltzen den metodologiaren eta irakas-materialen inguruko hausnarketa egitea (metodologia inklusiboa al da?, pasiboa edo aktiboa?, etorkizuneko premiei begira dago?...) eta honen ondorioz eraldaketa bat bultzatzea. Ebaluazio-diagnostikoa aukera egokia – eta aitzakia- izan ohi da..

-Azttertzea, ikastetxean, eta arloz arlo, ea indarrean dagoen metodologiaren bitartez oinarritzko kompetentziak modu eraginkorren eta eramangarrian lan daitezkeen.

-IK/KI-k beste aukera metodologikoekin izan dezakeen osagarritasuna ikertzea, batez ere, egoera errealetan oinarritzen diren aukerekin (Proiektuen Metodologia etab.).

-Galdetu Berritzegunean nola ari diren uztartzen ikastetxe batzuetan IK/KI programa eta IKTak.

3.-Aniztasunaren erantzuna

Ikaskuntza kooperatiboak, eskola eta gela inklusiboak bultzatzen ditu, eta egungo geletan islatuta dagoen gizarte aniztasunari erantzun egokia ematen dio.

Ikastaldeari ematen zaion egitura lau-bost kideko talde txiki eta heterogeneoak osatzen dute, bakoitzean, gaitasun, genero, izaera, ezagutza-maila, errendimendu, motibazio, autonomia... desberdina duten ikasleak biltzen direlarik. IK/KI-k nagusiki, eta printzipioz, heterogeneotasunaren alde egiten du.

Laukote bakoitzari aurrezari egiten zaizkio bi helburuok: ikasketetan aurrera egitea, eta aldamenekoari laguntzea; hori bai, bakoitzak bere mugen eta gaitasunen barruan, ikaskuntza prozesuan ahalik eta gehien aurrera egiteko xedez..

IK/KI-k eskola eta ikasgela inklusiboa bultzatzen dituenek, ikasteko zailtasunak, autonomia txikiagoa, ezagutza maila apalagoa, edota beste edozein oztopo aurkitzen duten ikasleak ikasgela barruan nahi ditu, ez ikasgelaz kanpo. Ikasle “diferente” hauek, taldeko partaide diren heinean, parte-hartze- eta elkarreragin-aukerak bermatuta dituzte.

Ikasle guztiek, laguntza ematen ikasteaz gainera, laguntza egokia jasotzen ikasten dute bai irakasleengandik baita ikaskideengandik ere. Azpimarratzekoa da, eremu honetan, IK/KI-ren helburu behinenetako bat: ikasle guztiek jabetu behar dute, edonorengandik iritsi dakigukeela laguntza – baita egoera apalagoan edo *diferenteagoan* daudenengandik ere-, eta edonori laguntza emateko prest izan behar dugula (inklusio aktiboa).

Hezkuntza-zientziek gero eta gehiago nabarmentzen duten aspektu ahaztezina dago tartean: irakaskuntza simetrikoa (ikasle-ikasle, edo berdinen artekoa) irakaskuntza asimetrikoaren (irakasle-ikasle) pare jar daiteke. Bi elementu horiek osagarriak dira eta, bikote horrek, ikasle guztientzako arreta pertsonalizatua antolatzeke aukera paregabea eskaintzen du. Garbi dago, beraz, hezkuntza Premia Bereziatako (HPB) ikasleak, etorri berriak, HIPI-koak eta, orohar, aniztasun kontzeptu eta programapean sartu ohi diren guztiak dutela leku eta aukera IK/KI-ren barruan.

Irakasleei dagokienean, IK/KI indarrean duten ikastetxeetan ez da ezohikoa ikasgela berean irakasle bat baino gehiago batera aritzea. Adibidez, Pedagogia Terapeutikoko (PT) irakaslea eta tutore zein espezialistak sarri programatzen dute elkarrekin eta sarri aritzen dira batera gela berean, gehien bat, ikasle *diferenteagoa* tartean denean. Horrek aurreko koordinazioa eta adostasuna eskatzen du, besteak beste IK/KI Programak hala sustatzen duelako, bereziki irakaskuntza simetrikoa definitzeko garaian, azken hau, ia-ia baldintzatat har daitekeelarik. Helburu nagusia, noski, aniztasunari erantzun aktiboa eta jatorri bikoitzekoa ematea da.



GOMENDIOAK:

-Irakaskuntza partekatua: ikasgelan bi irakaslerekin egoteko aukera ematen du; konbinazioak anitzak izan daitezke (tutorea eta PTA, tutorea eta arloko irakaslea ...). Burutu nahi den jardueraren helburua eta irakasle motaren arabera jardueraren antolaketa, irakaslearen rola eta ikasleen antolakuntza desberdina izango da.

-Berdinen arteko tutoretza. Bi ikaslez osatutako bikoteak dira, bata tutorea eta bestea tutorizatua izango da. Irakasleak, aurrez planifikatu behar du saioa, helburu ezagun, partekatu eta komunak lortzearren.

-IK/KI-k koordinazioa eskatzen du, koordinazioari denbora eman behar zaio, eta koordinatzailea izendatu, gainera. Planifikazio horrek dokumentuetan izan behar du isla (IUP, HP etab.)

-Talde-lana balorea da, eta balore moduan lantzez gerotan Tutoretza eremuan izan behar du leku printzipala. A Eremuak eskaintzen dizkigu talde-lanaren onurez jabetzeko estrategiak (dinamikak). Hala ere, IK/KI-k ez du ezartzen dinamika horiezaz baliatzea soilik ikastaldeko irakasle-tutorearen eginkizuna denik; aitzitik, tutoretza irakasle guztion ardura dela aldarrikatzen du, nahiz eta tutorea bakarra izan.

-Ikaskuntza dialogikoa. Irakasle, ikasle eta familiek ikaskuntza prozesuan parte-hartzeen dute.

4.- Ikasleen jarraipena, banan banakako arreta, orientazioa eta tutoretza.

Ikasgelako egituraketa kooperatibo baten bitartez lan egiteak ikasleen jarraipena bi norabidetan egitea zuzentzen du. Alde batetik, irakasle-ikasle elkarreagina bultzatzen du eta bestetik ikasleen artekoa.

Gela anitzak ditugu eta, beraz, ikasle anitzak ditugu bertan. Irakasleak, bere hezkuntza-jarduera ikasleen ezaugarri desberdinetara egokitu behar du.

IK/KI-k ikasleen arteko elkarreagina bermatzen du eta honek autonomia eta ardura areagotzeaz gain ikasleen artean elkarri irakasteko aukera ematen du, hau da, ikaslea irakasle lanetan jartzen du. Azken honek irakaslearen gelako esku-hartzea premia handiena dutenengana bideratzea errazten du jakinik, gainera, ikasle guztiek dutela arreta pertsonalizatuagoa eta eraginkorragoa izateko aukera.

Baina, argi esan beharra dago: irakaslearen egitekoa ez da gutxiesten; alderantziz, eraginkorragoa bihurtzen da; izan ere, bere egitekoa kolore berriz margotzen da; hau da, maisu-maistra funtzio klasikoaren koloreari egungo gizarteak eta etorkizuneko eskakizunen "paleta" gehitzen zaio: ikaslarazle, entrenatzaile eta bultzatzaile izatea, besteak beste.

Beraz, arreta pertsonalizatua benetan gertatzen den gauza da IK/KI-ren bidez. Modu naturalean ematen da eta, berdintasun-harremanak eraginda, ekitatetik oso hurbil.

Egituraketa individualistetan ez bezala – non irakasleari ezinezkoa zaion ikasle guztiei arreta pertsonalizatua ematea-, egituraketa kooperatiboan ikasle guztiek dute arreta pertsonalizatua jasotzeko momentu franko. Hori, bi bidetik lortzen da: irakasle-ikasle elkarrekintzatik eta, baita ere, berdinen arteko elkarrekintzatik (ikasle-ikasle).

Arreta pertsonalizatu hori ez da inprobisatua; aldiz, IK/KI-k proposatzen digun ibilbidea eginez gero, makina bat estrategia, material, txantilo, argibide, testu etab. eskainiko zaizkigu ikasle denek eskubidezkoa duten arreta pertsonalizatua programatzeko, planifikazio ongi zehaztuaren barruan. A Eremuko dinamikak, B eremuko egiturak, C Eremuko Talde Planak-eta dira esandakoaren froga. (*Pujòlas, P. eta Lago, J. R. (Koord.). IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi») TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan. VICeko Unibertsitatea.*)



Tutoretza Plana: dinamika, egitura eta talde-plan horiek planifikatzea izan daiteke (batez ere, talde-planak-), zalantzarik gabe, ikastalde bateko Tutoretza Plana – edo zati garrantzitsuena-. Tutoretza eratzeko modu honen abantaila hauek azpimarratu behar dira: ikasleengan ematen diren gabezia-arazoak (diagnostikoa) antzemateko tresnak ditu, prozedura aktiboa da, behetik gorakoa (ikasleak aktore dira), planifikatua, ikastalde bateko irakasleen artean adostua (“irakasle guztiok gara tutoretza-arduradun”) eta ebaluagarria IK/KI Programak eskaintzen dituen tresnen bidez.

Banan banako arreta hizpide denean, beti sortzen da galdera hau: **Hezkuntza Premia Bereziko ikasleei** zer arreta ematen zaie? IK/KI-k erantzun inklusiboa ematen du: ikasle hauek eta besteak berdinak dira, eskubidez, baina, besteak baino enbarazu, oztopo eta barrera gehiago topatzen dituzte hezkuntza-helburuak erdiesteko.

Printzipio horretatik abiatuta, esku-hartze kooperatiboak ezaugarri inklusiboak ditu, noski: beste ikasleekin batera gauzatzen da, ez ikasgela berezian; arreta pertsonalizatua, aurreko paragrafoetan esplikatu den patroi bikoitz berean oinarritzen da (ikasle-irakasle eta ikasle-ikasle); kasu honetan ere ez dago inprobisaziorik, zeren, helburua bete dadin, laguntza emateko gai diren ikasleak “entrenatu” egiten dira laguntza nola eman ikasi dezaten.

Honez gero, irakurleak sumatu du zein diren entrenatzaileak: irakasleak. Pluralean, bai, gutxienez bik hartzen dute eta parte, hau da, momentuko irakaslea eta Pedagogia terapeutikoko irakasle laguntzailea (PTa). Entrenatzaile diren neurrian, bere funtzioak biraketa esanguratsua ematen du: laguntza zuzena eman beharrean laguntza ematen irakasten du. Irakasleek modu koordinatuan egiten dute lan, ados jartzea ezinbestekoa baita: ikasleari nolako laguntzak, zer eduki-egokitzapen, ikasle laguntzailea(k) entrenatzen etab.

Irakaslearen rol-aldaketa honek zirkunstantzia mesedegarri bat baino gehiago uzten du agerian:

- Ikaslea da protagonista.
- Irakaslearen arteko identifikazioak -ikasle-irakasle bikotearen baino errazagoa, zalantzarik gabe- motibazioa areagotzea dakar.
- Irakaslearen komunikazio-erregistroa propioa baliatzeak erraztu egiten ditu ikasteko eta irakasteko eginkizunak.
- Gizatasun- eta elkartasun-helburuak lantzen dira modu naturalean.
- Denek irabazten dute, ez soilik laguntza jasotzen duenak. Laguntza ematen duen ikasleak ere irabazten ateratzen dira; alde batetik edukiak hobeto ikasi eta finkatzen dituelako eta, bestetik, baloreak ikasten dituelako.

GOMENDIOAK:

-Ahal denean, **bi irakasle ikasgela berean** aritzeko. Esaterako, PT-irakaslea eta momentuko beste irakaslea (tutorea zein espezialista) batera aritu daitezke ikasgela berean ikasleak *entrenatzen*. Entrenamenduaren zioa ikaslearen arteko kooperazioa da, hau da, laguntza eraginkorrek nola eman irakastea (HPBko ikasleak barne), laguntzak jasotzeko jarrera positiboak ereitea, Talde-planaren helburu-konpromisoak finkatzea eta ebaluatzea etab.

-**A Eremua** izan daiteke Tutoretza Plan bat; ikastaldearen diagnostikotik hastea gomendatzen da.

-**B Eremuak** (egitura kooperatiboen multzoa) oso entrenamendu interesgarria eskaintzen du kooperazioaren bidez edukiak ikasteko, elkarrekintzan eta parte-hartze ekitatiboan oinarrituta



daudelako. Baina errutina ez daitezela bihurtu eta ezta ere baliabide kooperatibo bakarra, horrela eginez gero IK/KI Programaren benetako erronka ahaztuko baita. Beraz, *ikasteko kooperatu (IK-)* bai, baino *kooperatzen ikasi (-KI)* ahaztu gabe.

-C Eremuak ikasleen arteko tutoretza sustatzen du, **elkarri ebaluatzearen bidez** (ikus C Eremuko baliabideak (*Pujòlas, P. eta Lago, J. R. (Koord.). IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»)* **TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO** *Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan. VICeko Unibertsitatea*.) Ikasleek konpromiso pertsonalak eta taldekoan sinatzen dituzte eta baita modu jarraian ebaluatu ere (auto eta talde-ebaluazioa).

-Eskatu Berritzegunean, HPBko ikasleen arreta kooperatiborako aholkularitza). Dagoeneko ikastetxe batzuk aplikatzen ari dira eta haien esperientzia baliatu daiteke.

Material guztiak: <http://ikkgipuzkoa.weebly.com/>

5.- Ikasleen ebaluazioa

IK/KI programak ebaluazio anitza burutzeko proposamena dakarkigu: autoebaluazioa, koebaluazioa eta irakaslearen ebaluazioa. Hori guztia C Eremuan kokatzen da, eta proposatzen dituen baliabideak hauek dira: **talde planak eta errubrikak** (*Pujòlas, P. eta Lago, J. R. (Koord.). IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»)* **TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO** *Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan. VICeko Unibertsitatea*.)

Ikaskuntza kooperatiboaren bidez, autoerregulazioa hobetzeko estrategia inklusiboak jartzen dira indarrean eta, horiek, ebaluazio formatzailea dute helburu; hau da, ikaslea era autonomoan, eta baita taldean ere, eduki kontzeptualak, jarrerazkoak eta prozedurazkoak hobetzeko estrategiak eskuratzeko bidean jartzea. Ezinbestekoa da, horretarako, norberak egindako akatsak detektatzeko gaitasuna garatzea.

Ikasleek, eginez ikasten dute nork bere burua ebaluatzen, hurkoak egindako ebaluazio eraikitzaileak onartzen eta hurkoa modu eraikitzailean ebaluatzen. Berdinen arteko exijentzia horrek hobekuntza bermatzen du, ez bairik gabe.

Programak eskaintzen dituen materialek abiapuntutzat ebaluazio kualitatiboa hartzen badute ere, ebaluazio kuantitatiboa ere ahalbideratzen dute. Ezaugarri horrek kalifikazio eremuan sartzen gaitu.

Oinarrizko gaitasunen ebaluazioa eta IK/KI. Legediak dionari erreparatuz gero, oinarrizko gaitasunak dira ebaluaziorako erreferentzia nagusia; izan ere, oinarrizko gaitasunak osatzen baitute hiritar orok eskubidezkoa duen errenta kulturala. Beraz, Derrigorrezko Hezkuntzako irteera-profila dira. Hau aitortzea erraza bada ere, eguneroko praktikaren errealitateak bestelakoa azaleratzen du: oztopoak, arazoak eta inertziak legeak aldarrikatzen duena aplikatzeko garaian. Zerrenda ditzagun horietako batzuk:

- Irakasleok ez daukagu esperientziarik kompetentziak ebaluatzen.
- Irakasleok ez dugu formaziorik kompetentziak ebaluatzeko.
- Zailago zaigu zeharkako kompetentzien ebaluatzea arloetakoa baino.
- Inertzia (ebaluazio klasikoa) geraraztea ez da erabaki indibiduala, taldearena (ikastetxearena-edo) baizik.

Hala izanik ere, aurrera begira jarri beharra dago, iraganeko formulek ez dute balio eta. Benetan inporta behar zaiguna, irakasleoi, gure ikasleek etorkizunean ezinbesteko izango dituzten gaitasunak dira, iraganekoak baino gehiago. IK/KI Programaren bidez, trantsizio hori modu eramangarrian bideratu daiteke. Hala, Talde-planak eta errubrikak baliatuz, iritsi daiteke oinarrizko



gaitasunen ebaluazio-adierazleak modu sistematikoan ebaluatzena, zeharkako gaitasunenak barne.

IK/KI-k ez digu magia egiteko exijitzen, alderantziz, oinak lurrean tinkatuta, ebaluazio *berri* hori taxuz burutzeko xedez, irakasleok onartzeko moduko antolamendu progresiboa eskaini baino ez. Horretarako material-sorta jartzen du eskuragarri (C Eremuko talde-planak eta errubrikak). Jakina, horren guztiaren eraginkortasuna ebaluazio berria aplikatu nahi duen eta indarrean jartzen duen irakasle-taldearen tamainaren eta koordinazioaren arabera izango da.

GOMENDIOAK:

-Errubriken erabilera. Tresna ebaluatzaile hauen bitartez, ikasleak alde aurretik badaki nola izango den ebaluatua eta, aldi berean, irakasleak argitasun osoz jakingo du zeintzuk izango diren ebaluazio-irizpideak eta, behar bada, kalifikatzeko irizpideak. Efikazak izateko aurrez erakutsi behar dira. Garrantzitsua da errubrika ikaslearen hizkuntza-erregistroan idatzita egotea, baita ere aurrez ikasle-irakasle arteko irakurketa partekatua egitea berdin ulertzen dela ziurtatzeko.

-Taldekako planak sistematizatu.

-Kalifikazio sistema adostua edukitzea. Proposamen didaktiko honek eraldatu egiten du gelako jardueraren egitura; bakarkako lanaz gain talde-lana egiten da. Ez da bakarkako lana bakarrik baloratzen talde-lana ere kontutan hartu behar da. Biek dute pisua eta honek gure kalifikazio sistema errebisatzea eskatzen du.

-Trebetasun sozialak ebaluatzea : asertibitatea, enpatia, errespetua, talde-lana...-

-Ebaluatzen modu honek benetako "jarraia" izaera ematen dio ebaluazioari.

-Talde Planen eta errubriken bidez zeharkako oinarritzko gaitasunak ebaluatu daitezke. Horretarako, nahikoa da gaitasun horien ezaugarri garrantzitsuenak (175/2007 DEKRETUA urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko) talde planetan txertatzea helburu moduan. Leku aproposena talde planetan "Helburu espezifiko"-ei ematen zaien lerroa da.

6.-Denboraren kudeaketa

IK/KI ikastetxean ezartzeko, antolamendu ona behar da: irakasle koordinatzailea izendatzen da, talde koordinatzailea eratzen da, bileren egutegia adosten da, informazio-, transmisio- eta formazio-prozesua egutegian txertatzen da, aplikazio-saioak programazioetan finkatzen dira etab.

Hona, ohikoa den antolamendua: planifikazio-saioak ahalik eta gehien zehaztu ondoren txantiloian jasota gelditzen dira: landuko den unitatea, garatuko diren jarduerak, erabiliko diren egiturak eta nola erabiliko diren, zenbat denbora erabiliko den jarduera bakoitza garatzeko... Saio bakoitzaren amaieran, koordinazio batzarrak, hurrengorako hobetu eta aldatu beharreko atalak zehaztuko ditu. Hori guztia irakasle-taldera eramaten da, aztertuta, partekatuta, hobetuta izan dadin.

Horrek guztiak denboraren kudeaketa antolatzen du. Azken finean, hasierako denbora-inbertsioak denbora-irabazia du errenta.

Bestalde, denboraren kudeaketan sarri azaltzen dira bi aspektuok: puntueltasuna eta ordutegia betetzea. Erraz ebaluatu daitezke, biak. Horretarako nahikoa da aspektu horiek helburu bihurtzea eta talde-planetan txertatzea. Talde-planek ohiko duten autoebaluazioak eta taldeko ebaluazioak gainerakoa egingo dute. Laburbilduz, esan daiteke, C Eremuan *egin* egiten den autoerregulazioaren bidez emaitza hobekak lortuko direla ohiturazko modu tradizionalen baino.



Horrek esan nahi du denboraren kudeaketan ere ikasleak inplikatzeko direla. Erabiltzen den tresna ebaluazioa da, ebaluazio formatiboa. Gainera, ondotoxo dakigu ebaluatzen ez dena ez dela existitzen ikasle askorentzako.

Bukatzeko, beste aspektu garrantzitsua, denbora-atal honekin lotura estua duena: antolamendua eta taldekatzea. Jakina da taldekatze moduak irakaskuntzaren kalitatean eta ikaskuntzaren atarramentu onean eragiten duela. Azken finean, taldekatzearen bidez antolatzen dena, era batera edo bestera, pertsonen arteko elkarrekintza da, eta, ondo dakigun bezala, elkarrekintzarik gabe ez da **ikastea** gertatzen. Elkarrekintza hori neurtzerik balego, ikaskuntza kooperatiboa izango litzateke garaile, dezentez puntu gehiago lortuko litzuke, besteak beste, denbora-unitate berean elkarrekintza gehiago gauzatzen dituelako, irakasle-ikasle elkarrekintzaz gain ikasle-ikaslearena baliatzeari esker. Horren ondorio azpimarragarria hau da: **arreta pertsonalizatu gehiago** gauzatzeko aukera ematen du.

Ondorio berbera aterako genuke beste hainbat elementu aztertzen hasiko bagina; esate baterako, *oinarrizko gaitasunen lanketa efektiboa / denbora binomia* edo *oinarrizko gaitasunen ebaluazioa / denbora etab.*

Horiek guztiak badira, zalantzarik gabe, denboraren kudeaketa kontzeptua aztertzerakoan aintzat hartu behar diren aldagaiak. Baina ez dira aldagai solteak, isolatuak; aitzitik, horien guztien atzetik antolamendu zehatza dago, atal honetako lehen paragrafoan azaltzen dena, zein gabe ezinezkoa litzatekeen ikaskuntza kooperatiboa modu instituzionalean garatzea.

Beraz, IK/KI Programak, ikuspuntu globaletik abiatuta, erronka hau proposatzen digu: eman denbora IK/KI antolatzeari ikastetxeko esparruetan (curriculum, antolamendua, garapen profesionala, komunitatearen parte-hartzea); ez da denbora galtzea, inbertsioa baizik. Gauzak txukun eginez gero denbora irabazten da.

GOMENDIOAK

- Irakasle koordinatzailea adostu eta ofizialki izendatu, eta bere eginkizunetarako orduak eman.
- Irakasle-talde koordinatzailea eratu, eta bilerak egiteko orduak eman ikastetxeko ordutegian.
- Prestatu taxuz, ikasturte-hasierarako, irakasle berrien arreta eta IK/KI Programan integratzea (testuak, aplikazio-egutegia, akordioak, formazioa ...).
- IK/KIko dinamikak, egiturak eta Talde-Planak finkatzeko, IK/KI-programazioa adostu.

GOMENDIOAK:

- Bilerak ondo antolatu: saioa hasieratik bukaerara xehetasun guztiekin planifikatu.
- Koordinazio eraginkorra eta zehatza nahi bada, erabili *autotxostenak*. <http://ikkigipuzkoa.weebly.com/>
- Denboraren kudeaketa hobetzeko estrategiak: txertatu helburu moduan talde-planetan (puntueltasuna etab.); sortu errubrika errazak helburu horiek ebaluatzeko.

7.- Lidergoa eta zuzendaritza taldea

Ikaskuntza kooperatiboa gelan eta ikastetxean inplementatzeko, inizatiba hartzea beharrezkoa da, baina inizatiba horrek ibilbidea izan dezan bide-lagunak behar dira.

Horien artean, nahitaezkoa da zuzendaritza taldea. Bere onarpena, sinesmena eta inplikazioa behar dira. Zuzendaritza taldearen harrera eta jarrera positiborik gabe ezinezko lirateke premiazkoak diren erabakiak hartzea: IK/KI-koordinatzailea izendatzea eta bere eginbeharretarako denbora ematea, IK/KI talde koordinatzailea eratzea eta bileretarako denbora eta espazioa



ematea, etab. (ikus **Kudeaketa eta antolamendu atalak** zatia).

Ezinezkoa litzatekeen bezala IK/KI egitasmoari *proiektu* forma ematea, edo hain egokiak diren klaustroaren onespina eta kontsentsua bilatzea, eta abar luzea.

IK/KI indarrean den ikastetxe guztietan lortu da zuzendaritza taldearen babesa.

Baina, lidergoa, IK/KI Programa egoki taxutzearen lidergoa, eguneroko lidergoa, nork hartzen du bere gain? Galdera honi erantzuteko ederki datorkigu ebidentzia hau: *IK/KI irakasle-koordinatzailea* eta *IK/KI irakasleen talde koordinatzailea* eratu den lekuetan IK/KI Programak aurrera egin du, bere orduak emanda, noski, bai bati bai besteari. Aldiz, organo horiek (pertsone bakarrekoa bata, kolegiatua bestea) eratu ez diren lekuetan zailtasun ugari azaldu dira edo bertan behera geratu da. Ebidentzia hori Gipuzkoako sei Berritzeguneetako IK/KI aholkulariok jasotakoa da, bai mintegietan baita ikastetxeetako erralitatearen azterketa-lanetan ere; eta garbi adierazten digu lidergoa nork eta nola bideratu behar duen: ikastetxearen babesa duen irakasle talde batek alde batetik, eta Koordinatzaile batek bestetik.

GOMENDIOAK:

- Zuzendaritzaren babesa ezinbestekoa da proiektua aurrera eramaten dela bermatzeko.
- Lidergo-elementu eta lidergo-organo horiek sarri erdi-ezkatuan geratzen den zirkunstantzia bat biltzen dute: **ikastetxearen konpromiso formala**, hau da, **komunitate barruko hitzarmena**. Hori modu batera edo bestera bilatzea eta lortzea erabakigarria izan daiteke *berrikuntza*-ren mesedetarako eta ikastetxearen nortasuna eraikitzeko. Zeren, hezkuntza-komunitatearen konpromiso horren bidez, komunitate osoak *bere* egiten du berrikuntza egitasmoa eta, aldi berean, aldaketa beharraren jabe eta aldaketa beraren jabe egiten da – ikaskuntza kooperatiboa, kasu honetan-, *berrikuntza denona da eta denon artean eraikiko dugu* esanez. Zinez, trantsizio garrantzitsua dago horren atzean: *cada maestrillo tiene su librillo* topiko indartsutik *ikasten duen erakunde* izatera. Azken finean, ikastetxeko estilo pedagogikoa kolektiboak erabaki behar du, ez irakasleen joera indibidualen baturak.
- IK/KI egitasmoari eman proiektu forma: Berrikuntzarako Formazioa Proiektua. Eta aurkeztu deoaldi ofizial baliatuata.
- Hasieratik Klaustroaren onespina eskatu. Horrek ez du esan nahi irakasle guztiak IK/KI aplikatzen hasiko direnik hasieratik baizik eta hasten direnek denen babes ofiziala dutela.
- Klaustroan, gutxienez urtean hirutan, IK/KI praktika onak azaldu eta konpartitu.
- Zikloen eta mailen arteko hartu-emanak zehaztu, IK/KI esperientzia desberdinak guztien artean konpartitzeko.

8.- Kudeaketa eta antolamendu ereduak

Metodologia honen eragina gelako jardunean ez ezik ikastetxeko kudeaketa eta antolamenduan ere badu isla . Ez du eragiten bakarrik gelan, ikastetxeko antolamenduaren aldaketa ere bultzatzen du. Metodologia honen erabileraren hausnarketa klaustro, mintegi eta ziklo bileretara zabaltzen da . Era horretan ikastetxeko kudeaketa eta antolamendua demokratikoagoak egiten ditu: ardurak denen artean banatzen dira, erabakiak hartzerako orduan irakasle-ikasleen iritziak kontutan hartzen dira, funtzionamendua eta koordinazioa errazten die irakasleei babesa, arreta eta laguntza eskainiz.

IK/KI-k aurrera egiten duen ikastetxeetan lidergo-elementu eta -organo komunak hauek antzeman daitezke:



- IK/KI koordinatzailea.
- Talde koordinatzailea.
- Klaustroaren onespina.
- Organo Gorenaren onespina.
- Ikaskuntza kooperatiboa Hobekuntza Planeko jarduera.
- IK/KI Programaren aplikazioari Berrikuntza eta Prestakuntza Proiektuaren forma ematea eta dagokion deialdian aurkeztea.
- IK/KI Programari Ikasturteko Planetan eta Memoretan leku propioa ematea.
- Irakasle berrien harrera-planean eta dokumentazio-karpetetan IK/KI-ren transmisioa, aplikaziorako programazioa eta materiala txertatzea.
- Formazio-egutegian IK/KI-ren gaineko formazio-saio propioak zehaztea.
- Dinamiken, egituren eta Talde-planen aplikazio-egutegia eta programazioa ikasgelako koadernoan eta irakaslearen koadernoan txertatzea eta hurrengo irakaslerentzako gordetzea (berrikuntza iraunkorra).
- Aurrekoak Berritzegunearen elkarlanaz eta aholkularitzaz zehaztea eta garatzea: Berritzeguneko mintegia(k) eta Berritzeguneko aholkulariaren jarraipena.

GOMENDIOAK:

-IK/KI koordinatzaileari eta IK/KI Talde koordinatzaileari orduak eman behar zaizkie bere gain utzitako atazak egin ahal izateko.

-Zenbait ikastetxetan, irakasle-taldearen funtzionamendurako (Klaustro, Ziklo, Mintegi ...), eta familiekin antolatutako bileretan ere, A Eremuko dinamikak zein B eremuko egiturak erabiltzen dira. Parte-hartzea handiagoa eta bilera dinamikoagoak dira lorpenak.

9.- Koordinazioa

Koordinazioa da aipatu behar den beste alderdi garrantzitsuetako bat. Ikaskuntza kooperatiboaren ezarpen prozesuan (Hastapen-, Orokortze- eta Finkatze Faseak) proiektua kudeatzeko eta aurrera eramateko, koordinazio-orduak kontenplatuta behar dute; gainontzean, nekez egingo du aurrera.

Ordu horiei esker, planifikazioa eta egutegia garaiz zehazten da. Eta koordinazioari lekua ematen zaio, bai barnekoari bai kanpoko.

Barneko koordinazioa: aurreko ataletan zerrendatu diren organo guztiak dute zer koordinatua, ikastetxe osoa arrasto beretik bideratzeraino, IK/KI Programari dagokionean. Oraingoan aldagai hauek nabarmendu nahi dira:

- Koordinazio bertikala: zikloen artekoa, IK/KI-ren ezartzean
- Koordinazio horizontala: maila, ziklo, mintegi, arlo bereko irakasleen artean: dinamikak, egiturak eta talde-planak erabakitzeko eta aplikazio-egutegia adosteko.
- Tutore eta gainerako irakasleen artean: espezialistak, Hezkuntza Premia Bereziak irakasleak, orientatzailea, aholkularia etab.
- Programen artekoa: HPBko ikasleen artean, Elkarbizitza, Hezkidetza, Aniztasuna (HIPI etab.) ...



Kanpoko koordinazioa:

- Berritzegunea-ikastetxea: Adituen hitzaldiak eta bideo-konferentziak, IK/KI mintegia, IK/KI aholkulariaren arreta pertsonalizatua ... Gaur egun, IK/KI Programa Berritzegune gehienetako eskaintzan ikus daiteke.
- Ikastetxeen artean: hartu-emanak, informazio-trukea eta bisitak ugaritu egin dira. Jarduera formatzailatzat jo daitezke (berdinen arteko formazioa).

GOMENDIOAK:

-Koordinazio-uneak eta -guneak modu esplizituan zehaztu behar dira. *Proiektua* izan daiteke zehaztapen horren markoa, deialdi ofizialeko Berrikuntzarako Formazio Proiektua, esate baterako.

-Nabarmentzekoa ondorengo jarduera koordinatuak garaiz planifikatzeak eta jakitera emateak duen garrantzia; hauek: irakasle berrientzako informazio-formazio saioak, klaustroari zuzendutako bilerak, ziklo-, maila-, mintegi-bilerak, zalantzak argitu eta laguntza eskaintzeko unek, besteak beste. Ikastetxeko Urteko Plana (IUP) dokumentu egokia izan daiteke.

-Ikasgelako ikaskuntza karpeta: tresna horren bidez, talde bakoitzeko planifikazioa koordinatzeaz gain praktika onen bilduma egin daiteke; hau da, dinamika, egitura eta talde-plan eraginkorrenak.

-Ikasturte hasiera guztietan irakasle berrientzako formazio-saioen egutegia planifikatu .

-Baliatu Berritzegunea koordinazio-eredu egokiak eta koordinaziorako lanabesak beste ikastetxeetan aurkitzeko.

10.- Inplikazioa ikastetxean eta pertenezia-sentimendua

Ikaskuntza kooperatiboa ikastetxeko proiektu bihurtzen den heinean ikastetxeko curriculum-proiektuko metodologia atala betetzen du, baina egia esan, IK/KI ez da metodologia hutsa, gehiago da.

IK/KI-ren helburu nagusia ikastetxeko nortasunaren ezaugarri izatea da, ikastetxearen kulturaren adierazpena. Helburu hori erdiesteko denok gara beharrezko.

Irakasleak proiektu horren ardatz dira, sinetsi egiten dute eta komunitate bateko pertenezia-sentimendua garatzen dute. Satisfazio profesionala lortzen dela esatea ez dago lekuz kanpo, besteak beste, ikaskuntza kooperatiboari esker ikasle gehiagorengana iristen direlako. Hezitzaileak sentitzen direla esatea ezta ere, ez dago sobran, irakasle kooperazio zaleak "instrukzioa" baino askoz gehiago ematen dutelako.

Irakasleen inplikaziorako ez da askoz gehiago behar, garbi baitago: Kooperazioak motibazioa areagotzen du, eta motibazioak kooperazioa eskatzen eta ekartzen du.

Baina, alderdi positibo horien gaineratik, irakasleek **proiektu etiko** baten partaide direla sentitu behar dute, eta asmo nagusi hori egi bihurtzeko, metodologia kooperatiboa baliabide bat besterik ez da. Programaren izenak garbi baino garbiago adierazten digun bezala, *ikasteko kooperatu (IK-), eta baita ere, kooperatzen ikasi*. Programaren tituluaren bigarren erdian *entrenatzeak* onura asko dakar: errespetua, enpatia, asertibitatea, gatazkak konpontzeko trebeziak, sozializazioa, berdintasuna, hezkidetzeta eta abar luzea. Laburbilduta, **elkarbizitza**, letra larriz.

Gure ikasleentzako, abantaila franko: nor bere ikaskuntzaren protagonista aktibo izatera



iristen da, taldean lan egiten ikasten dute, horrek talde-kontzientzia garatzen laguntzen die. Bestalde, autokontzeptua, motibazioa, autonomia, erantzukizuna eta trebezia sozialak garatzen dituzte. Abantaila-sorta hori inplikazioa eta pertenezia-sentimendua hazteko ongari bikaina da, ez bairik gabe. Eta, ez dugu ahaztu behar, bide batez oinarri etiko sendoak eraikitzen ari direla.

GOMENDIOAK:

-IK/KI Programaren abantailak egi bihurtzeko, anbizioa behar da, anbizio kolektiboa, anbizio instituzionala. Horrek esan nahi du ez dugula konformatu behar programaren eremu bat edo bestea ezartzearekin.

-Esan nahi du, era berean, ahaleginak egin behar direla A, B eta C eremuak aplikatu daitezten eta ezartze-faseak pausoz pauso gauzatu daitezten (Hastapen-, Orokortze- eta Finkatze-fasea).

-Berritzeguneko talaiatik behatuta, jabetu gara irakasle batzuk A eremuko dinamikak eta C eremuko Talde Planak ia baztertu eta soilik B Eremuko egitura-sortari heltzen diotela. Irakaslearen autonomia aitortuta ere, esan beharra dago ez dela hori IK/KI Programaren asmoa. Programak urrutirago joan nahi du. A Eremua eta, batez ere, C eremua dira urruti eramango gaituzten ontziak.

-Ikastetxeko Hezkuntza proiektua (IHP) eta Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP). Bi dokumentuok jarleku apartak izan daitezke IK/KI Programak proposatzen dituen asmo estrategikoak eta baliabide metodologikoak txeratzeko.

11.-Irakasleen, ikastetxearen, programen eta jardueren ebaluazioa eta Ebaluazio Diagnostikoaren erabilera.

Badira Ebaluaketa Diagnostiko (ED) frogak egiten hasiak garela urte batzuk. Kanpoko ebaluaketa honek ikastetxeak bere ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren inguruko hausnarketa egitera bultzatu ditu. Bada, ED ondorenean egin beharreko Hobekuntza Planetan (HP), kopuru esanguratsuan, ikaskuntza kooperatiboa ezartzearen helburua azaltzen da. Beraz, IK/KI Programari hobekuntzarako aukera dela aitortzen zaio.

Horrek agerian uzten du ibilera kateatu hau: ikastetxeetan modu antolatuan burutzen den hausnarketak metodologia-gaia mahairatzen du, eta metodologia hizpide denean ikaskuntza kooperatiboa nahitaez azaltzen da. Adierazitakoa ikasleen partaidetza indartzeko nahiarekin eta garapen curricullarrarekin lotuta dago. Ikaskuntza kooperatiboak bi kasu hauetan ekarpen onuragarriak egiten ditu eta hori islatu da azken planifikazio diseinuetan.

Bestalde, *Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak* txostenak (ISEI-IVEI. (2013). “Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak”. ISEI-IVEI. EHU) hau dio hitzez hitz: “30 ikastetxeetatik 21etan Ebaluazio Diagnostikoa (ED) zelan baloratzen duten eta emaitzak zelan erabiltzen dituzten aipatu dute. Ikastetxe horietako gehienek oso positibotzat jotzen dute ED ebaluazioa, batez ere hobekuntzarako aukera bezala. Ebaluazioko emaitzak gehienbat hauek egiteko erabiltzen dira: hobekuntza-plan fokalizatuen garapena, banako arreta gehitzea, ikaskuntzak ebaluatzeko prozeduren eta tresnen hobekuntza, eta batez ere konpetenzietan oinarritutako lana, koordinazioa sendotzea eta irakasleen talde-lana (irakasgaika, irakasmilaka, sailka...)” (azpimarratua gurea da).

Azpimarratutako jarduera horiek, IK/KI Programaren baliabideak erabilia zer modu eramangarrian eta egokian lantzen diren adierazten saiatu gara, seguruenik behin baino gehiagotan orri hauetan. Gomendatzen da, beraz, aurreko kategorien gainean esandakoak irakurtzeko.



GOMENDIOAK:

-IK/KI Programa ez da mugatzen ikasgela barruko jarduerara. Gipuzkoako Berritzeguneetan hasi eta gure Erkidegora zabaltzen ari den proposamen zehatzak aspektu eta alderdi gehiagotarako du hainbat hobekuntza-proposamen. Beroriek garbiago kokatzeko, ekarri ditzagun gogora HPak hartzen dituen esparruak:

- **Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua;** hots, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari, gelako irakaskuntza-praktikari, baliabide eta material didaktiko eta teknikoei eta ebaluatzeko irizpide eta tresnei eragiten diena.
- **Antolaketa eta funtzionamendu-esparrua,** irakasle-taldeen koordinazioari, taldekatzeei, orduen antolaketari edo funtzionamendu-arauei lotua.
- **Komunitate-esparrua,** ikastetxean dauden harremanekin eta elkarbizitzarekin eta ingurunearekiko eta familiekiko harremanekin zerikusia duena.
- **Garapen profesionalaren edo prestakuntzaren esparrua,** irakasle-taldeen prestakuntza-premiei eta premia profesionalei lotuak.
- Euskal Herriko Unibertsitateak "Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriei eta praktika onei " buruz egin duen ikerketan antzemandako **praktika onak.**

Esparru denetan du eragina IK/KI Programak; eta ez da gehiegikeria. Horren zergatia eta arrazoia ez datza soilik IK/KI Programa berak dituen onura guztietan, asko izanik ere; horri guztiari Berritzeguneek eratzten jakin izan duten aholkularitza eta sarea erantsi behar zaio. Bidezkoa da esatea. Egia esan, nekez hartuko zuen programa horrek hartu duen bolumena gure Erkidegoan Berritzeguneek eman dioten balio erantsiagatik izan ez balitz.

-Horregatik gomendatzen da Berritzeguneko atea jotzeko, bertan aurkituko baitira aholkuak, ereduak, beste ikastetxeetako praktika onak etab. goraxeago zerrendatutako esparruak jarduera zehatzez planifikatzeko. Eta HPetan helburu moduan txertatzeko.

12.- Giroa eta Elkarbizitza.

Nekez banatu daitezke kooperazioa eta elkarbizitza.

Izan ere, IK/KI programak gure Erkidegoan izaten ari den zabalkundearen lehen urratsa Lasarteko Berritzeguneko Elkarbizitza Mintegian mahairatu zen konstatazio bati eta horren ondorengo inizatibari zor zaio: *metodologia indibidualistak ez du elkarbizitza egiten, alternatiba hobea behar da.*

Metodologia indibidualistak ez bezala, Ikaskuntza kooperatiboak talde-lana, elkarreragina eta elkarrekintza aldarrikatzen ditu. Esan beharrik ez dago horren atzean zer dagoen: giza baloreak, eginez ikasita.

Hezkuntza, definizioz, giza eta gizarte-prozesua izanik, elkarren arteko elkarreragina bultzatzen duen prozesua izan beharko luke. Kooperazioa, norberaren eta kideen onarpena ahalbidetzen duen baliabide izanik, helburu komunak sustatzen ditu eta prozesu horri laguntzera dator.

IK/KI Programaren bidez, ikasgelako egoera zehatzetan elkarbizitza hobea izateko dinamikak lantzen badira (elkar ezagutzea, desberdintasunengatiko errespetua, gatazkak konpontzea...) bizitzako erlazioak hobetzeko urratsak ematen ariko gara.



Beste alde batetatik, baloreak ere lantzen direla esan behar da: elkartasuna, enpatia, errespetua ... Laguntzen du barneratzeak talde guztietako kide guztiek ardura bikoitza dutela: ikastea eta besteak ikas dezaten laguntzea. Klima goxoa, lasaia eta errespetuzkoa izaten laguntzen du.

Esan daiteke, atal honi bukaera emateko, IK/KI-ren abiapuntua elkarbizitza izan dela eta, baita ere, helmuga.

GOMENDIOAK:

-Ikaskuntza Kooperatiboa Elkarbizitza Proiektu bat izan daiteke, osagai asko ditu bere baitan. Eta abantaila handi bat du: elkarbizitzen eginez ikasten dela. Ez da erretorikoa, praktikoa da.

-Genero ikuspuntua guztiz integratu daiteke IK/KI proiektuan; esate baterako oinarrizko taldeak osatzerakoan, edo talde-planetako helburuetan. Gaitasun, errendimendu, autonomia maila, kultura... desberdinak kontuan izan, baina baita neska-mutil proportzioa.

- A Eremuko Kohesio dinamiken garrantzia: beti kontutan eduki behar den alderdia da eta gainera talde-lanaren funtzionamendu egoki bat bultzatzen du.

-C Eremuko Ikasleen talde-planak: bertan kokatu daitezke aipatutako helburuak. Gainera, proposatzen diren tresnak erabiliz gero (txantiloak eta errubrikak), ebaluatu egin daitezke (autoebaluazioa, taldeko ebaluazioa eta irakaslearen ebaluazioa); eta, ebaluazioak arrakastatik hurbilago jartzen gaitu inolako zalantzarik gabe; ebaluatzen ez bada baino askoz hurbilago, zinez.

13.- Irudia, instalazioak eta baliabideak

Metodologia honek, azken finean, gauzak egiteko modua proposatzen du. Ekintzailea da, parte-hartze zalea, demokratikoa, inklusiboa etab. Beste modura esan daiteke: denona izatea nahi dugun ikastetxea egi bihurtzen du. Ez du horrek irudi txarrik eraikiko, inola ere.

Ikasgelen irudia (marrazkia) ere oso inportantea da. Jarraian aurkezten diren irudiek ez dute soilik ikasgelako egituraketa irudikatzen, jakina. Batek indibidualismoa irudikatzen du, besteak elkarlana; batek iragana eta besteak etorkizuna, batek ...

Hori dena irudia da, baita ere.

GOMENDIOAK

- Ez da estetika kontua, nortasuna eta kultura da. Nortasun eta kultur kooperatiboak ondo landuz gero irudiaren erronka irabazita dago.

14.- Familia, komunitatea eta kapital soziala

Egia da, oraingoz, familien inplikazioa erronka bezala ikusten dela IK/KI programaren barruan.

Bilatu daitezke, dena dela, familien inplikazio xumeak, jarduera pedagogikoan lagungarri izan daitezkeenak. Esate baterako, adostu daiteke, egitura kooperatibo batzuen funtzionamendu zuzenerako aurreko lan batzuk egiteko etxean, edo talde-planetan jartzen diren konpromisoak eta helburuak etxean ere lantzeko eta ebaluatzeko ...

Azken finean familia eta irakasleen arteko komunikazioa areagotzea da erronka, horrek ez diolakoan mesede besterik ekarriko ikasleari.



Aitortu behar da, beraz, familien eta hezkuntza komunitateko partaideen artean inplikazio, partaidetza eta kooperazio beharra. Lehen urratsa informazio zehatza eta zabala ematea da.

GOMENDIOAK

- Familia guztiei IK/KI-ren gaineko informazio zabala eta zehatza eman.
- Familiakoen bisitak antolatzea, talde-lanak lanbideetan duen garrantziaz jabetzeko.
- Ikasturte hasierako gurasoen bileretan IK/KI Programaren planifikazioaren berri eman.
- Gurasoen bileretan dinamika eta egitura kooperatiboak erabili.
- Ikastetxeko web-ean edo aldizkarian, ikaskuntza kooperatiboari lekua gordetzea.



Aitortu – Ez komertziala – Partekatu berdin



7. IKASKETA KOOPERATIBOIA ETA OINARRIZKO KONPETENTZIAK.

Javier Lacunza (Ordiziako Berritzeguneko etapa aholkularia).

KOOPERAZIORAKO BALDINTZAK.

Ikasketa Kooperatiboan, ikasle bakoitzak irakasleak irakatsitakoa ikastea ez ezik, bere taldeko ikaskideek ere ikas dezaten laguntzea bilatzen da, alegia, guztiek taldean lan egiten ikastea (*Pujòlas, P. eta Lago, J. R. (Koord.). IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi») TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgela. VICeko Unibertsitatea*). Hau da, Ikasketa Kooperatiboan, berdin arteko **ikaskuntza** ezaugarri nagusienetariko bat dela esan daiteke.

Ikasketa Kooperatiboaren **justifikaziotako bat inklusioan** aurkitu behar da. **Gainera**, honek bat egiten du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ezagutzera eman duen “Heziberri 2020, Hezkuntza-Eredu Pedagogikoaren Markoa”-rekin, non, besteak beste, honako hau aipatzen den: “*Ikasleen arteko elkarlana eta ikasle bakoitzaren autonomia errazteko moduan antolatu behar da ikasgela*”.

Ikasketa kooperatiboa gerta dadin honako baldintza hauek bete behar direla. (*Pujòlas, P. eta Lago, J. R. (Koord.). IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi») TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgela. VICeko Unibertsitatea*):

- Taldekideen aldibereko elkarrekintza
- Parte-hartze ekitatiboa

Ez dago ikasketa kooperatiborik bi baldintzok aldi berean bete ezean. Eta hori gerta dadin, dokumentu honen beste puntu batean azaltzen denez, egitura eta teknika kooperatiboak deritzeguna aplikatzen dira. Hauen egiteko moduak behartzen du aipatutako bi oinarrizko baldintzak bete daitezen.

KOOPERAZIOA HARATAGO DOA ELKARLANA BAINO

Elkarlana, hiztegiak definitzen duenez, beste lagun batzuekin elkarrekin lan egitea da, zeregin bat burutzeko. Azentua “elkarrekin lan egitean” jartzen da, “zeregin” bat burutzeko. Eskuarki, elkarlanean dihardutenak ezaugarri bertsuko lagunak dira, homogeneotasuna nagusi da bertan, eta badago halaber halako behin-behinekotasun zantzua. Elkarlanean oinarritutako taldeak aldi batez dihardute elkarrekin eta ondoren taldea desegin egiten da.

Kooperazio kontzeptua haratago doa. Bertan ez dago, aipatu berri dugun behin-behinekotasuna denboraren aldetik, eta aldi berean, badu elkartasun, elkar-hartze eta eskuzabaltasun eranskin bat, hasieran efizienteago izateko helburu soilaz, elkarrekin lanean baino ari ez diren artean, azkenean lotura bihozkor sakonak gara daitezen eragiten duena.

IK-KI programan, C eremuan hain zuzen ere, eta P. Pujolàs eta J.R. hitzetan, “*taldean lan egiten ikasteko, ez da nahikoa praktikatzea eta saio bakoitzeko jarduerak betetzeko taldean aritzea bakarrik; horrez gain, beharrezkoa da taldean lan egiteko modu sistematiko, egituratu eta ordenatua –eta iraunkorra– irakastea*”.

KONPETENTZIA KONTZEPTUA

Ikasketa Kooperatiboaren kontzeptupean datzan ideia zehaztu ondoren, azter dezagun Oinarrizko Konpetentzia kontzeptua, EAEko hezkuntza sistemaren testuinguruan.

Konpetentzia, “egiten jakitea” batean oinarritzen da, egoera eta testuinguru nabarretara egoki daitekeen jakite batean, eta modu integratzailean, ezaguerak, prozedurak eta jarrerak hartzen ditu bere baitan (2006/962/CE. (2006). Recomendaciones del Parlamento Europeo y del Consejo de 18 de diciembre de 2006 sobre las competencias clave. Parlamento Europeo).



Konpetentzia ez da ezaguera edo trebeziaren sinonimoa. Zerbait oso ondo ezagutzeak ez du besterik gabe konpetentzia ondorioztatzen, ezta zerbaitetan oso trebe izateak ere. Konpetentzia termino zabalagoa da, bere baitan biltzen dituena ezaguera eta ezagueraren aplikazio praktikoa testuinguru ezberdinetan, bai eta hainbat balio etiko, emozio, eta beste osagarri sozial eta portaerazkoak, elkarrekin ekiten dutenak jarduera eraginkorra erdiesteko. (Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico (OCDE). (2006). *La definición y selección de competencias clave. Resumen ejecutivo*. DeSeco).

175/2007 DEKRETUA urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko dekretuan definitutako Oinarrizko Konpetentziak, honako hauek dira:

- 1.- Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako gaitasuna.
- 2.- Ikasten ikasteko gaitasuna.
- 3.- Matematikarako gaitasuna.
- 4.- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- 5.- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- 6.- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- 7.- Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
- 8.- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

IKASKUNTZA KOOPERATIBOA, KONPETENTZIAK LANTZEKO METODOA

Ikasketa Kooperatiboa eta Oinarrizko Konpetentzia kontzeptuak definitu ondoren, garaia da biak lotzen saiatzeko; alegia, aztertze nola Ikasketa Kooperatiboak lagun dezakeen nabarmenki Oinarrizko Konpetentziak garatzen.

Azter dezagun lehenengo, konpetentziak banan bana hartuta, eta ondoren egingo dugu sintesi edo laburpen moduko gogoeta.

1.-ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA OSASUN-KULTURARAKO KONPETENTZIA.

Inguruaren osaketa eta deskribapena era efizienteagoan egiten da talde-lanean jarduten bada. Garbi ematen du halaber, erabakiak hartzeko garaian ezaguera zientifikoa baliatzea, sendotu egiten dela talde kooperatiboko bazkideen aldibereko elkarrekintzarekin.

Bestalde, -eta gelaren testuingurura etorriaz-, problemen ebazpena, Matematika Konpetentziaren atalean esan dugunez, Arkatzak Erdira bezalako egiturekin sendotu daitekeela. Naturaren baliabideen ezaguera eta giza jarduerak eragindako arazoena, berez sortuko da, taldekideen ekarpenek eraginda.

Lan kooperatiboa bereziki erabilgarri gertatzen da landa-lanetan, bai eta laborategi praktikan, inguru biotan zereginak taldekideen artean bana daitezkeelako.

2.-IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIA

Konpetentziaren garapenak esan nahi du norberaren ikasbidea bideratu ahal izateko trebezien jabe izatea eta beraz gai izatea etorkizunean ere modu eraginkor eta burujabeaz ikasten jarraitzeko. Konpetentzia garatzeko, zer dakien eta batez ere zer ez dakien ohartu behar da. Ikasketa Kooperatiboak, nor bere buruaren kontrol hori erdiesteko, teknika erraztaileak iradokitzen ditu Talde Planen bidez. Hauetan sartzen dira autoebaluazioa, autoerregulazioa, erantzuletasuna eta atxikimendu pertsonala. Era honetan, Ikasketa Kooperatiboak, Talde Planen segimenduen bidez, norberaren gaitasunak eta gabeziak ikus arazten laguntzen du, lehenei zuku gehiago atereaz eta bigarrenak gaintzeko motibazioa eta borondatea indartuz. Era honetan ikasbidearen erronka berriei aurre egiteko behar den segurtasuna garatu egiten da apurka-apurka.



3.-MATEMATIKA KONPETENTZIA

Zenbait egitura kooperatiboen aplikazioa, - ikus 1-2-4-, Matematika Konpetenziaren dimentsioetariko edozeinekin loturiko hainbat ariketa burutzeko erabili ohi dira. Ikasleak bakarka egiten dio aurre ariketari (1. unea), eta gero eztabaidan sartzen da lagunartean, bere bidea taldekideenekin erkatu eta neurtuz (2. unea), horren adostutako soluzio batera heltzen direlarik.

Azkenik (4. unea), prozesua bina kideko bi taldeak bilduta errepikatzen da, proposaturiko ariketarako ebazpide bat bera adosten dutelarik. Egitura aplikatzeko garaian pizten den elkarrekintza sorta, inolako zalantzarik gabe arrunt lagungarri gertatzen da konpetentzia garatzeko.

Problemen ebazpena, lan kooperatiboz bereziki ongi lantzen den dimentsio bat da. Egitura kooperatibo batzuk badira,- gogora dezagun Arkatzak Erdira-, problema bati hurbiltzeko estrategiak aztertzerakoan arrunt erabilgarri direnak. Une sortzaile bat da, ideiak ekoiztekoa eta beroiek defendatzekoa argudioak plazaratuz, kide batzuk besteei hainbat kontzeptu argitzen dietenekoa, hau onura handikoa suertatzen delarik ikasle guztientzat, nahiz esplikatzen dutenentzat, nahiz esplikazioa jasotzen dutenentzat. Pentsa dezagun, berdinen arteko ikasbidean, esplikatzen duen ikaslea ez dutela besteek irakasle gisa ikusten.

4.-HIZKUNTZA KOMUNIKAZIO KONPETENTZIA

Helburuak dira nork bere ideiak adierazten eta argudio sendoz defendatzen jakitea, lagunaren argudioen ideia nagusiak eta horien esanahi orokorra ulertzea, testu bat taldekideen artean aztertu eta ulertzea.

Garbi ematen du lan-testuinguru kooperatibo batek berez indartu behar duela Hizkuntza Komunikazio alorreko konpetentzia, pentsatzen badugu bertan ematen den oinarritzko aldagaietako bat prozesu guzietan eta ataza guziak burutzerakoan aldibereko elkarrekintza dela,- komunikazioa azken finean-.

5.-INFORMAZIOA TRATATZEKO ETA TEKNOLOGIA DIGITALA ERABILTZeko KONPETENTZIA

Era orokorrean, konpetentzia hau sustatu egiten da Ikasketa Kooperatiboaren baitan, taldekideek erabili ahal ditzaketelako, gero eta ugariagoak diren web 2.0ren baliabideak; esate baterako, wiki bidez dokumentuak sortzeko, sare sozialak baliatuz elkarrekintza birtualean jarduteko, sarean artxiboak partekatzeko. Lan kooperatiboaren aldagai garrantzitsuenetariko bat aldibereko elkarrekintza dela badakigu, eta horixe da hain zuzen IKTak gero eta nabarmenago sustatzen dutena. Bestalde, Ikasketa Kooperatiboaren bidetik "talde birtualak" sor daitezke, alegia, hainbat lekutan dauden ikasleek elkarrekintza bere baitan biltzen dutenak eta honek, zalantzarik gabe, aipatu konpetentzia nabarmen garatzera darama.

6.-GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

Ikasketa Kooperatiboak neurri batean eguneroko egoerak islatzen ditu, ikasleak behartzen dituelako elkarrekin bizitzera, elkarren ideiak entzutera, elkarren lekuan jartzera, elkarren ikuspuntuak ulertzen saiatzera, ezberdintasunak baliozkotzat hartzera eta nabartasunaren garrantziaz jabetzera. Ikasleek talde-lanean hainbat esparruko eduki kurrikularrak jorratzen dituzten bitartean, talde-lanak berezko dituen hainbat trebetasun sozial lantzeko aukera ere sortzen dute. (Pujòlas, P. eta Lago, J. R. (Koord.). *IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»)* TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan. VICeko Unibertsitatea.)

Talde-lanean ez da bakarka baino gehiago edo gutxiago ikasten, baina ezinezkoa da lagun arteko harremanekin lotutako konpetentziak ikastea era kooperatiboan lan egin ezean (Jiménez, M. A. (2011). *Cómo diseñar y desarrollar el currículo por competencias*. Madrid: PPC).



Gelaren kudeaketa aldatzen ausartu eta Ikasketa Kooperatiboa lan-egitura gisa erabiltzeak, honako galdera honi erantzutea esan nahi du: Bizi al daiteke hiritar on gisa gelaz kanpo, gelaren baitan bakarka edo lehiatuz baino ez badugu jarduten?

7 GIZA ETA ARTE-KULTURARAKO KONPETENTZIA

Eduki kurrikular handiagoa duten gainerako konpetentzien kasuan bezala, Ikasketa Kooperatiboak atazaka antolatze gaitasuna dakar, bai eta horien burutzean hainbat jarrera lantzeko aukera, hala nola, erantzuletasuna eta diziplina, iraunkortasuna eta zorrotasuna. Horrekin, on-do biribildutako lanaren interesa eta plazerra sendotzen dira.

Konpetentziaren hainbat aspektu, esate baterako, hainbat kultur eta arte agerkari ezagutu, ulertu eta era kritikoan neurtzea,- adibidez herrian bertan-, Ikasketa Kooperatiboak berez dakarren enfoke aniztasunetik sustatzen dira. Eman dezagun, aldi historiko baten azterketan datzan lan batean, taldekide bakoitzak aspektu bat jorra dezake,- margolaritza, eskultura, arkitektura, musika, literatura, etab.-, eta gero nork berea taldeari azaldu, adibidez Buruhauste deritzan teknika kooperatiboa baliatuz. Hurbilbide anitz honek laguntza emango die ikasleei konpetentzia hobeki garatzeko, bakarka ariko balira baino.

8.-NORBERAREN AUTONOMIARAKO ETA EKIMENERAKO KONPETENTZIA

Konpetentzia honek zera dakar, hots, ideiak ekintza bihurtzea, helburuak ezarri eta horiek burutu ahal izateko bitartekoak jartzea. Planifikatu, erabakiak hartu, ekin eta egindakoa neurtu, ondorioak atera eta hobe egiteko aukerak aztertu. Talde kooperatiboek gogoeta egiten dute, ikasbide egitura gisa duten eraginkortasunari buruz eta euren jarduna auzitan jartzeko gai izan behar dira (Peña, Aprendizaje Cooperativo y las Competencias).

Beste ikuspuntu batetik, norberaren autonomia eta ekimenak zera esan nahi du, bakarkako nahiz talde mailako egitasmoak irudikatzea, horiei ekitea eta garatzea. Ikasketa Kooperatiboak lagundu egiten du egitasmo horien irismena definitzerakoan, egitasmoak planifikatu eta xederatzerakoan eta euren aldi jarraipena egiterakoan.

ARLOAK ETA KONPETENTZIAK UZTARTZEA. ARLOAK ETA GAITASUNAK BATERA LANTZEKO MODUA: IK/KI

Irakasle ez gutxienez ez da erraza konpetentzien lanketa eta arloak uztartzea. Ez da ikusten nola lan daitekeen arloen bidez konpetentzia bakoitzaren deskripzioan proposatzen zaiguna.

GOMENDIOA: irakurri oinarrizko konpetentzien deskripzioa.

175/2007 DEKRETUA urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa. Eta III eranskina. EHAA 2007ko azaroak 13. Berreskuratuta 2014ko azaroaren 30ean, helbide honetatik

<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2007/11/0706182a.pdf>

Gainera, tradizioz, arloak eduki kontzeptualekin identifikatu dira eta ez hainbeste jarrerekin eta prozedurekin.

Baina, egungo Pedagogiatik sustatutako proposamenei bestelakoa baieztatzen dute: prozedurazko edukiak eta jarrerazko edukiak ere ahaztezinak izateaz gain eduki kontzeptualen pare daude. Hau da, hiru eduki motak maila berean dira; beraz, lehen maila berean.

Era berean, Hezkuntza Zientzietatik baieztatzen da arloak (asignaturak) konpetentzien zerbitzura daudela eta ez alderantziz; beste modura esanda, arlo bakoitzaren lanketaren bidez konpetentzia guztien garapena bermatu beharra dagoela, zeharkako konpetentziak barne, hau da, prozedurazko eta jarrerazko edukiak barne.



Zaila da antzematea nola landu daitezkeen arloen bidez, gehienetan bigarren mailan geratzen diren zeharkako gaitasunak; are zailago nola planifikatu, nola sistematizatu, nola ebaluatu, nola kalifikatu etab.

GOMENDIOA: irakurri Curriculum Dekretuan arlo bakoitzeko atal hau:

“OINARRIZKO GAITASUNAK GARATZEKO ALOR HONEK EGINDAKO EKARPENA” (LH: 92, 133, 164, 191, 276, 320 orr. BH: 336, 489, 539, 597, 629, 693, 712, 745, 775, 801, 812, 825, 839 orr).

175/2007 DEKRETUA urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa. Eta III eranskina. EHAA 2007ko azaroak 13. Berreskuratuta 2014ko azaroaren 30ean, helbide honetatik

<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2007/11/0706182a.pdf>

Jakina, aurrekoa indarrean jartzeak aldaketa ez nolanhikoak dakartza, “bai metodologian, bai antolakuntzan, bai irakasleen pentsaeran eta prestakuntzan, bai eta beste alderdi askotan ere” (Curriculum Dekretua - moldatua- 84 or.).

Ikasteko Kooperatu, Kooperatzen Ikasi -IK/KI programak proposamen zehatza dakarkigu aurreko paragrafoetan iradokitako helburuak erdiesteko. Proposamen hori, argitalpen honetako beste zatitan esaten den moduan, guztiz eramangarria eta jasangarria da.

Programa horren barruan, aipamen berezia merezi du C Eremuak, bera baita arloak oinarrizko kompetentziekin lotzeko prozedura erakusten digun atala (Pujòlas, P. eta Lago, J. R. (Koord.). *IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»)* TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan. VICeko Unibertsitatea.)

Eta, C Eremuaren barrunbeetan barneratu aurretik – edo aldi berean- komeni da zer ebaluazio adierazle eskura ditzakegun, aurreko lerroetan adierazitakoa egoki planifikatzeko, ebaluazioa baita giltzarri.

LABURBILDUZ.

Agerian uzten saiatu gara Oinarrizko Konpetentziak eta Ikasketa Kooperatiboaren artean dagoen harremana, beti onurazkoa gertatzen den harremana, eta alde zuzenetik igartzen genuen ondorioa iritsi gara: Ikasbide-mota hori baliabide metodologiko nabarmena da Oinarrizko Konpetentziak eskuratzeko. Eta honako hau gertatzen da eremu bati gehien lotzen diren konpetentzien kasuan, baita ere zeharkako konpetentzietan.

Talde kooperatiboetan ikasiz, esparru jakin bateko berezko edukiak baino gehiago ikasten da. Zera ere ikasten da, esate baterako:

- Norberaren ikuspuntua azaltzen.
- Argudioak bilatu eta ikuspuntua defendatzen.
- Bestearen ikuspuntua onartzen.
- Problema baten ebazpenerako aukera anitz aintzat hartzen.
- Aukera guztien arteko onena erabakitzen.
- Norberaren, taldearen eta gelaren ekintzei buruz gogoeta egiten.
- Norberaren, taldearen eta gelaren ekintzak aurrez onartutako arauekin erkatzen.
- Norberaren eta beste ongi eginak aitortzen.
- Elkarri argi eta gizalegez hitz egiten.
- Talde-lanaren baitan norberaren portaera neurtzen.
- Hobetzeko helburuak ezartzen.

(Pujolàs Maset, P. (2008) *9 ideas clave. El parendizaje cooperativo*. Barcelona: Graó).



Ikasketa Kooperatiboa, bere berezko senaz, Oinarrizko Konpetentziak erdieste aldera diharduten hainbat eta hainbat elementu dakartza berarekin, atal honetan adierazten saiatu garenez.

Arian-arian, egiaztatuz goazen emaitzek bide on eta sakonetik goazela adierazten digute, eta animatu egiten gaituzte ikastetxeetan Ikasketa Kooperatiboa gero eta gehiago zabaltzen jarraitzeko, bai eta hezkuntza komunitate osoari hedatzeko.

Zabaltze-hedatze asmo horretan, aholku sorta hau proposatu nahiko genuke.

GOMENDIO GEHIAGO

1.-Unitate edo sekuentzia didaktiko bakoitzean konpetentzia sorta bati atxikitzea, guztiak biltzen saiatu gabe

Egiaztatutako kontua da, unitate edo sekuentzia didaktikoak diseinatzerakoan joera izaten dugula Oinarrizko zortzi Konpetentziak zerrendatzeko, guztiak bertan landu beharrekoak bailiran.

Gure ustez errealistagoa da itua jartzea gaiarekin zer ikusi estuagoa duten konpetenzietan, gehi zeharkakoago diren konpetenzietariko bat edo bitan, horien artekoan alegia – Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentzia, Gizartea eta herritartasunerako konpetentzia, Ikasten ikasteko konpetentzia, Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia-.

Oinarrizko Konpetentzia bakar batzuk hautatzerakoan, unitate/sekuentziak naturalago gertatzen dira; alegia, ez dago horien egitura gehiegi behartu beharrik oinarrizko zortzi konpetentziak bertan sar daitezen.

2. A eremuko dinamika kooperatiboei behar besteko denbora eman.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren artean aldeak daudela egia den arren, joera orokorra da A eremuko dinamikei, aukeran, denbora gutxitxo ematea. Garrantzi handikoa da taldea sendotzea, ikasleak jabeaztea talde kooperatiboetan jardutearen garrantziaz eta eraginkortasunaz, haiei ulertaraztea talde-lanaren “ekoizpena” kalitate handiagokoa dela bakarkako lanarena baino. Ezinbestekoa da irakasleak etengabe gogoan hartzea A eremuaren bost dimentsioak (Ikus IK/KI testuko “...” or.):

Sarritan, orokortze fasean sartuta gaudela, ohartzen gara atzera egitera beharturik gaudela, hain zuzen ere bere garaian taldea sendotzeko behar hainbat A eremuko dinamika landu ez ditugulako.

Bestalde, gogoan hartu behar da A eremuko egitura kooperatiboetan konpetentzia zeharkakoan lantzen direla, Gizarte eta Hiritar Konpetentzia batik bat, baina ezin da ahaztu dinamika-sorta horren bidez motibazioa, autokontzeptua-eta hobetzen direla baita ere; horixe izanik, gainerako konpetentziak – eta ez soilik zeharkakoak- garatzeko oinarri sendoena ikasle guztientzako, eta bereziki premia handiena dutenentzako.



3.-“B” Eremuko egituren gain, gomendatzen da *Oinarrizko Egiturak* izenez ezagutzen diren egiturekin hasteko.

Sei egitura dira (Pujòlas, P. eta Lago, J. R. (Koord.). *IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»)* TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan. VICeko Unibertsitatea.), hogeitik gorako multzo baten barruan, baina harik eta horiexek ondo ikasi arte ez da gomendatzen beste egiturarik frogatzea.

Nahiz eta asko ez izan, behin eta berriro errepikatzea aholkatzen da, ikasleek ondo ikas dezaten, egitura bakoitzaren barnean zer dagoen ondo barneratu arte.

Zeren, egituren bidez eduki kontzeptualen esparrua landu nahi bada ere, hasiera batean, benetako helburua egitura bakoitzaren funtzionamendua barneratzea da. Eta, horretarako, eduki oso xumeak eta maila apalekoak – edo ezagunak- jarri behar badira, hala egin beharko da. Izan ere, egituraren **funtzionamendu zuzenak** bermatuko baitu taldeko **ikasle guztiek** eduki kontzeptuala ikastea.

Aldiz, egituraren egiteko modua azaletik ezagutzeak eta urratsak ez jarraitzeak porrota ekar dezake, ez direlako bermatzen arestian aipatutako baldintzak:

- Taldekideen aldibereko elkarrekintza.
- Parte-hartze ekitatiboa.

Irakasleak eten gabe erreparatu behar dio baldintza bikoitz horri, berau gertatu ezean jarduera batek bere izaera kooperatiboa galdu eta sasi-kooperatibo bihurtuko baita.

Izango da, bai, denbora, gainerako egiturak frogatzeko eta aplikatzeko. Hobe aurrerago.

Ez eduki presarik!

4.- Hizkuntza Komunikazio Konpetentzia hainbat egitura kooperatibo erabiliz landu (B Eremua).

Begi-bistakoa da konpetentzia horri edozein testuingurutan eta egitura guztiak erabiliz hurbildu behar zaiola.

Hau aurrez esanik, hainbat egitura hobeki egokitzen zaizkiola azpimarratu behar da. Pentsa dezagun esate baterako *Arkatzak Erdira* egituran, eta ikasleek bertan landu behar duten ahozko adierazpide eta ahozko eta idatzizko ulermenean.

Orrri birakariak bereziki laguntzen du ahozko ulermenaren eta adierazpide idatziaren dimentsioetan.

Hitzen jolasak ikasleak “behartu” egiten ditu idatziz hainbat kontzeptu laburbiltzera; honela, adierazpide idatzia jorratzen da.

Puzzle teknikak ikasleak euren taldekideei hainbat eduki adierazi beharraren kinkan jartzen ditu; era honetan ahozko ulermena sendotzen da.

Bistan da aipatutako egiturok, gainerako guztiek bezala, Hizkuntz Konpetentzia garatzen laguntzeaz gain, bere ekarpena egiten dutela aplikatzen ari diren esparruari loturiko konpetentziak gara daitezten.

(Pujòlas, P. eta Lago, J. R. (Koord.). *IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»)* TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan. VICeko Unibertsitatea.)



5.- C eremua lantzea ezinbestekoa da Ikasten Ikasteko Konpetentzia garatzeko.

Aurreko atalean komentatu dugunez konpetentzia hau ikasleak bere ikasketa prozesuaz duen autoezaguerari lotzen zaio, bai eta ikasketa prozesu horren inguruko indar eta ahuleziei.

C eremuak, eta zehazkiago, *Talde Planek* (ikus eranskinak), helburuak finkatzea eta gerora ebaluatzea ahalbideratzen dute. Besteak beste, ikasle bakoitzaren onena eta ez hain onena azalera nahi izaten da, eta horren arabera helburu berriak definitu eta betetzen saiatzea, Talde Planean idatziz erregistratzen diren konpromiso pertsonalen bidez.

Talde planetan, ikasleek, aipatzen dituzten helburuen, eta konpromiso pertsonalen bitartez autoerregulazioa etengabe lantzen dute.

(Pujòlas, P. eta Lago, J. R. (Koord.). *IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»)* TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan. VICeko Unibertsitatea.)

6.- Ikasleen ebaluazioa, autoebaluazioa eta koebaluaziorako errubrikak erabili.

C Eremuko errubrikak (Ikus eranskinak) izan daitezke bai edukiak ebaluatzeko eta baita ere Talde Planeko ardurak eta funtzioak nola betetzen diren ebaluatzeko tresna. Errubriken bidez, kooperazioa zer gradutan eman den aztertzen da eta, bide batez, kooperazioari esker ea ikaste-helburuak ikasle gehiagok erdiesten dituzten.

Errubrikak, hasiera-hasieratik egon behar dute ikasleen eskura, hartara, jakitun izango baitira zein izango diren ebaluazio-irizpideak.

7.- Ebaluazio-irizpidea “ofizialak”, Oinarrizko Konpetentziak eta berorien ebaluazioa lotzeko modu sinplea hau izan daiteke:

Lehenbizi, irakurri Curriculum-dekretuan zerrendatzen diren ebaluazio-adierazleak, aukeratu batzuk, identifikatu zer oinarrizko gaitasunarekin lotzen diren eta, jarraian, txertatu helburu moduan Talde planetan. Gauza bera egin daiteke curriculum-testu berean zerrendatutako helburuekin eta edukiarekin ere.

Hurrengo urratsa berorien betetze-maila ebaluatzea da (autoebaluazioa, koebaluazioa eta irakaslearen ebaluazioa); horretarako dauzkagu errubrikak eta beste tresna hauek ere: *Talde-plana* txantiloia, *Saioen Egunerokoa* txantiloia eta *Talde-plana* -ren azken baloraziorako txantiloia, besteak beste (Ikus eranskinak).

Gainera, baliabide hauek eskaintzen duten ikuspuntu anitza eta mailakatuak, ikasleen helburuen lorpen-mailaren graduatzaile dira.



8.- Apurka-apurka jarduera kooperatiboak sartu, Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentzia garatzeko.

Biderik urratuena eta seguru aski naturalena ere zera da, unitate/sekuentzia didaktiko baten amaieran lan-taldeek era kooperatiboan sortzea eta aurkeztea proiektu xume bat aurkezpen digital baten bidez – Power Point, Preci, e.a.-.

Aurrekoa ohikoa bihurtzen denean, dokumentuak ekoizteko, wikiak modu kooperatiboan baliatzea iradokitzen dugu. Bistan da egoera honetan ere hainbat Oinarrizko Konpetentzia eta euren zenbait dimentsio (idatzizko adierazpena eta ulermena) nahasten direla, hala nola Gizarterako eta Herritartasunerako Konpetentzia, e.a.

Aurrekoarekin batera, talde-txatak edo/eta bideokonferentziak erabili daitezke,- badira baliabide benetan sinpleak-; eta hurrengo fase batean hezkuntza sare sozialak.



Aitortu – Ez komertziala – Partekatu berdin



8. IKASTETXEAN: EMAN BEHARREKO URRATSAK ETA PROZESUA IK/KI GARATZEKO.

Jose Luis Alberdi (Zarauzko Berritzeguneko Aholkularia).

Azken urte hauetan Ikasketa Kooperatiboak leku handia eta zabala du Gipuzkoako Berritzeguneetan. Euren barnean Aholkulari taldeek antolatutako mintegietan, Pere Pujolàs edo/eta Jose Ramón Lagorekin antolatutako bideokonferentziak eta Lasarteko Berritzegunean, Unibertsitate Irakasle Eskolan edo Gipuzkoako Berrikuntza Jardunaldietan antolatutako aurrez-aurreko saioak jendez lepo izaten dira.

Ikastetxeetan bezala, Berritzeguneetan ikastetxeetako irakasleen mugimendua eta joan-etorria handia da. Guzti horrek sortutako irudia eta mugimendua, geraezina eta estaliezina da. Arrakasta izanik, arrakasta gehiago izatea ez da gauza zaila. Parte hartzen duten irakasleez gain, beste batzuk interesatzen dira eta Gero eta gehiago dira zerbait entzun dutenak eta Ikasketa Kooperatiboa ezagutu nahi dutenak eta praktikan jartzen dutenak, baita ikastetxez aldatuz gero ere. Irakasleen pare, gero eta ikastetxe gehiago dira Ikasketa Kooperatiboa Aipatutakoez apartem badira irakasleak aurreko ikastetxean landu edo ezagutu eta egun diren ikastetxe berrian praktikan jarri nahi dutenak euren hezkuntza proiektuen, ICParen, hobekuntza planen edo plan estrategikoen osagai egiten dutenak. plangintzetan ikasketa kooperatiboa edo antzeko metodologiak barneratuak dituzte.

Egia esan, hain arrakastatsua den metodologia fundamentuz eta sarri erabiliz gero, oso aplikaeraza da izaten eta egiten da eremu berrietara zabaltzea. Ikasketa kooperatiboarekin behin lanean hasi eta gero, ordutegian leku gehiago egiteko gogoia izaten da eta oso zaila berataz ahanztea. Guztiz kutsakorra dugu gainera. Probatuz gero, gehiago nahi izaten da eta bizituz gero, bizi arazi nahi izaten da.

Badira irakasle bakar edo batzuren interesak medio ikasketa kooperatiboa lantzen hasten direnak. Horrelakoetan, beraien kabuz bakarrik arituz gero, irakasle horren edo horien eremuan geratzen da metodologi berri honen ezarpena. Euren arloetan eta geletan lantzen da. Euren mugetatik haratago egitea zaila izaten da beste metodologia batzuk izaten dira . Horrelakoetan nekez iristen da ikastetxeko proiektu partekatua izatera eta oraindik eta nekezago ikastetxeko metodologia izatera.

GOMENDIOA:

Beste ikastetxe batzuetan ikasketa kooperatiboaren alde egiteko erabakia ikastetxe mailakoak ditugu. Irakasleriak klaustroan eta zuzendaritza mailan aldeko erabakiak hartzen ditu. Halakoetan hezkuntza komunitateak ere alde egiten du, hots, etxeko, irakasle, irakasleak ez diren langileak, udal ordezkariak eta ikasleak ikastetxeko hezkuntza proiektuaren alde egin lezakeen metodologiaren aldeko apustua egiten dute Organo Gorena edo Eskola Kontseiluetan. Ikastetxeak, osorik, baturik, animatzen du, errazten du, lekua egiten dio eta kontuak eskatzen ditu. Honelakoetan indarrak metatzen dira eta ardurak banatzen dira. Honelako ikastetxeetan, ikasketa kooperatiboak ez du lekua gela edo arlo baten plangintzan soilik; maila oso, ziklo oso, etapako arlo batean, etapa osoan edo ikastetxe osoan baizik. Ikasketa kooperatiboak urteko planean lekua izaten du eta zuzendaritzak plangintzan, irakasleriak klaustroan eta hezkuntza komunitateak Organu Gorenean edo Eskola Kontseiluan bere alde jarraipena egiten du. Eta urteko planeko helburuetako bat izanik, ikastetxeak eta bere hezkuntza komunitateak jarraipena egiten dio, hiruhilero gutxienez ebaluatzen da eta organu desberdinetan bere martxaren berri ematen da.



Ikasketa Kooperatiboak hezkuntza komunitatean itxaropena sortzen duenean, hark kontuak eskatzen ditu. Metodologiaren berri izan nahi du, ikasturtean zehar berari buruz galde egiten du eta ikastetxearen hobekuntza prozesuetan barneratzen du.

Ebaluazio diagnostikoaren ildotik edo /eta ikasturtearen amaieran ikastetxeetan hezkuntza komunitateak ikasturtearen hausnarketa egitean eta hurrengo ikasturterako erronkak zehazterakoan, Ikasketa Kooperatiboa sarri bistatzen da.

IK/KI Kalitaterantz eta bikaintasunerantz, esku hartzeko eta hobekuntzarako proposamenak janzten ditu eta ikasleen lortutako emaitzak hobetzeko eragin handia izan dezakeen metodologia hau aproposa da egoki gisa aurkezten du bere burua.

GOMENDIOA:

Aipatu bikaintasunerako eta hobekuntzarako prozesuan Ikasketa Kooperatiboak Lan honetan irizpide orokor gisa, ondorengo irizpideak bere egiten ditu:

- Funtsezkoa denari, eta ez bigarren mailakoari, lehentasuna ematea.
- Eragin handiagoa eta neurtuak eta ebaluatuak izateko aukera gehiago dituzten ekintzak aukeratzea.
- Irakasle kopuru esanguratsuak praktikan jartzea, epe jakinean. (ikasturte bat).
- Hezkuntza-komunitatearen adostasuna bilatzea.

Ekintza edo hobekuntzarako metodologia honek ikastetxearen bizitzaren esparru desberdinei eragingo die:

Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua; hots, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari, gelako irakaskuntza-praktikari, baliabide eta material didaktiko eta teknikoei eta ebaluatzeko irizpide eta tresnei eragiten diena.

Antolaketa eta funtzionamendu-esparrua, irakasle-taldeek koordinazioari, taldekatzei, orduen antolaketari edo funtzionamendu-arauei lotua.

Komunitate-esparrua, ikastetxean dauden harremanekin eta elkarbizitzarekin eta ingurunearekiko eta familiekiko harremanekin zerikusia duena.

Garapen profesionalaren edo prestakuntzaren esparrua, irakasle-taldeek prestakuntza-premiei eta premia profesionaleri lotuak.

Euskal Herriko Unibertsitateak “Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriei eta praktika onei “ buruz egin duen ikerketan antzemandako **praktika onak**.

Ikastetxeek bere hezkuntza ebaluatzean eta ikasleen eskubideak zein neurritan bermatzen diren diagnostikatzean, behar bezala edo bikaintasunez egindakoa antzematen ditu eta zer hobetu behar duen aurreikusten du. Horretan, ikasketa kooperatiboa lagungarri sumatzen du. Izan ere, honek, ikasketa kooperatiboak ISEI-IVEI, UPV/EHUko Luis Lizasoain irakaslearen laguntzaz, 2011tik egiten ari den ikerketaren emaitzak: “Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak ” asko eta asko bere barne hartzen baititu. Hona zein dimentsio esanguratsuekin bat egiten duen ikasketa kooperatiboak:



1. Prestakuntza-proiektu eta -planen kudeaketa.
2. Hezkuntza-materialak eta metodologia.
3. Aniztasunaren tratamendua.
4. Ikasleen jarraipena, arreta indibiduala, orientazioa eta tutoretza.
5. Ikasleen ebaluazioa.
6. Denboraren kudeaketa.
7. Lidergoa eta zuzendaritza-taldeak.
8. Kudeaketa- eta antolaketa-ereduak.
9. Koordinazioa.
10. Inplikazioa ikastetxearekin.
11. Irakasleen, ikastetxearen eta Ebaluazio Diagnostikoaren programa eta erabileraren ebaluazioa.
12. Ikastetxeko giroa eta elkarbizitza.
13. Ikastetxearen irudia, azpiegiturak eta baliabideak.
14. Familia, gizarte eta kapital soziala.

GOMENDIOA:

Jarduera-esparru horietan guztietan eragiten du ikasketa kooperatiboak hezkuntza-sistema bere osotasunean gidatzeko, eta baita ikastetxe bakoitza ere, bikaintasunerako bidean.

Beraz, Ikastetxe batek aipatu eremuetan aritzeko edo aurrera begira bere helburuak lortzeko Ikasketa Kooperatiboari heldu nahi dionean bere eremuko Berritzegunean aurkitzen du bide horretarako gidaritza eta aholkularitza. Berritzeguneak antolatutako prestakuntza ekintzen bidez, ikastetxeetan edo Berritzegunean antolatutako formazio saioetan, mintegietan, ikastetxeko lan-taldeetan, ikasmaila nahiz zikloetako irakaslerietan eta zuzendaritzetan lantzen eta planifikatzen da metodologia arrakastatsua. Irakasleek eta ikastetxeek formakuntza, prestakuntza, aholkularitza eta gidaritza jasotzeko Bi bide hartzen dituzte ikastetxeek: Berritzeguneek eskaintako aukeretaz baliatu eta/edo Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikasturtero eskaintzen dituen prestakuntza-berrikuntza proiektuetaz baliatuz, irakasleriaren formakuntza antolatu eta geletara eramateko proposamen berriak landu. Bi bide hauek direla eta, ikasketa kooperatiboak aparteko lekua du Berritzeguneetan eta prestakuntza-berrikuntza deialdietan. Era berean, lan honetan ikastetxeak, ikasketa kooperatiboa eta Berritzeguneak, eskutik ditugu, elkarlanean, ikastetxearen asmo eta beharrei erantzuten, eta ikastetxeetako hezkuntza kalitatea hobetzen.

GOMENDIOA:

- Berritzeguneak aholkularitza esanguratsua eskaintzen du IK/KI Programa garatu nahi izanez gero.
- Bikaintasuneratz deialdiak aukera ematen du IK/KI Programaren ezartzea ongi antolatzeko eta sekuentziatzeko.



GOMENDIOA:

Ikasketa kooperatiboaren eskutik ikastetxeek oso goi mailako helburuak lortzen dituzte:

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatzen duen eta egun bizirik dugun curriculumaren oinarria den eskola gero eta inklusiboagoa egitea,
- Aniztasunari gero eta leku handiagoa egitea geletan,
- Ikasle guztien arrakastarako bidetik aritzea,
- Bizitzarako hiritar aktibo eta demokratikoak heztea,
- Bikaintasunerantz egitea,
- Hezkuntza proiektuak eta ikastetxeen hezkuntza eskaintza hobetzea,
- Ikasleen emaitza eta lorpen maila areagotzea.
- Bizikidetzaren positiboa egi bihurtzea,
- Lan-giroa hobetzea,
- Hezkuntza jardunaren etekingarritasuna areagotzea eta ikasleen emaitza eta lorpena areagotzea

Egia esan, beste edozer bezala, programak bere denbora behar du: denbora erabakiak behar bezala hartzeko; denbora Berritzegunean antolatutako formakuntza eta prestakuntza saioetan parte hartzeko; denbora koordinatzeko eta planifikatzeko; denbora praktikan jartzeko eta denbora ebaluatzeko. Denbora behar izaten du metodologiak eman lezakeena agerian jartzeko. Guzti horretarako denbora, irailean, ikasturtearen hasieran, Urteko Planean aurreikusten da. Honela bakarrik, metodologiak behar adinako garrantzia jasotzen du eta era egokian lantzeko antolakuntzaz hornitzen da. Denboran Ikasketa Kooperatiboaren eskutik aurrera egin ahala garai bateko ikasketa kooperatiboaren hasierako, frogatzeko, esperimendatzeko fase orokortze faseko bidea egiten dute ikastetxeek. Unitate didaktikoetan bi-hirutan lantzeko aukeratik, unitate didaktikoaren, arloaren eta gelako metodologi nagusia izatera heltzen dira ikastetxeak. Eta behin orokortze maila horretan izanik, sendotze fasera iritsi baino ez dute izaten; hots, hezkuntza proiektuan eta ikastetxeko curriculum proiektuko metodologia izatera. Maila horretan izanik, nekez, irakasleek eta ikastetxeek utzi nahi izaten dute; aldiz, bera gabe ikastetxeko jarduna ulergaitza egiten da.

GOMENDIOA:

IK/KI metodologia arrakastatsua eta bikaina da. Praktikan jartzerakoan hobekuntzak nabariak dira eta praktika zabaltzerakoan, hobekuntza ere zabaltzen da. Ikaskuntza Kooperatiboak Ikastetxeak bikainak egiten ditu eta ikasleen emaitzak ere bikainagoak. Horregatik bere-berea egin duten ikastetxeetako zuzendaritzek, irakasleek, ikasleek, etxekoek eta hezkuntza-komunitateek asebetetze-maila handia azaltzen dute.

Frogatuz gero, nekez aldatzen da; aldiz, gero eta gehiago nahi izaten da.



9. IKASKUNTZA KOOPERATIBOA PROGRAMA ETA AHOLKULARITZA.

M^a Luisa García, M^a Teresa Santos eta M^a Sol Uria. (Donostiako Berritzeguneko Aholkulariak).

1.- Aholkularitza IK/KI programan.

Aholkularitzaren helburuetariko bat **irakasleen lanbide garapena sustatzea** da. Aholkulari talde batek bere eskualdeko ikastetxe eta irakasle taldeekiko laguntza eta prestakuntza bultzatzen ditu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eratorritako orientabideak eta eskualdeko prestakuntza eta berrikuntza beharrak uztartuz. Aholkulari talde batek, hau da, Berritzegune batek, urteroko lan plana osatzen du, helburuak, ekintzak, prozedurak, lan tresnak eta ebaluazioa garatuz.

IK/KI Programa aholkularitzari dagokionez, **parekoen arteko aholkularitza** eta elkarlanean oinarritzen da; bai Berritzegunean (aurrerantzean BG) bertan eta bai ikastetxeetan, prozesu elkarreragileak azpimarratuz.

1.1.- IK/KI Programaren aholkularitzarako ardatzak.

EAEko Hezkuntza **Aholkularitza hainbat erreferentzietan kokatzen** da. Alde batetik, aholkularien eta **Berritzeguneeen funtzioak** eta esku-hartzeak azaltzen dituzten esparruetan (Ikus 40/2009 Dekretua): Aholkularitza, Prestakuntza, Berrikuntza, esperimentazioa eta ikerketa.

Beste alde batetik, urtero Hizkuntza Politika eta Kultura Saila argitaratzen dituen **BGetako funtzionamendurako orientabideetan**.

Ikaskuntza Kooperatiboari dagokionez, oinarritzkoa erreferentzia, **VICeko Unibertsitateko** Pere Pujolàs eta J. R.Lago irakasleengan aurkituko dugu.

Gipuzkoako Berritzeguneetako IK/KI inguruan aritzen diren aholkulariak lan batzorde bat osatu da, Lasarteko Berritzegunean biltzen delarik. Batzorde honen gidapean aholkularitzaren inguruko lan desberdinak (mintegi, ikastaro, jardunaldiak, ikastetxeko saioak ...) egituratzen dira.

Erreferentzia hauetatik aparte, beste **alderdi hauek** ere azpimarratuko genituzke IK/KI programaren aholkularitzarekin zerikusia duten alderdi bezala:

- Aholkularitza eredu elkarlanean oinarritzen da.
- Irakasleen harreman sarea ere elkarlanean oinarritzen da.
- IK/KI programa ikastetxeko irakasle talde batek hasi dezake (etapa irakasle taldea, arlo jakin bateko irakasle taldea ...). Hasiera honetan borondatek bere garrantzia du.
- Sentsibilizazioak, sistematizazioak eta instituzionalizazioak Ikaskuntza Kooperatiboaren faseen garapena adierazten dute
- Faseetan aurrera egin ahala, ikastetxeko irakasle talde osora zabaldu daiteke Ikaskuntza Kooperatiboaren praktika, ikastetxeko prozesu bat izan arte.
- Zuzendaritza taldearen lidergoa ezinbestekoa da. Koordinatzaileen lidergoa bezala.
- Irakasle taldeak elkarlana egiteko uneak eta guneak ezinbestekoak ditu.
- Ikastetxe kanpoko aholkularitzaren eta Berritzeguneetako laguntza onuragarria da.
- Aholkularitzaren helburua irakasleen garapen profesionala izanik, Ikaskuntza Kooperatiboa programaren garapenak ikasle guztien oinarritzko konpetentzien garapena bultzatzen du.
- IK/KI programak beste hainbeste elementuekiko lotura zuzena du: arlotako curriculum, Elkarbizitza, Hezkidetzak, Aniztasuna Planak, Prestakuntza eta Berrikuntza Planak ...



- IK/KI programa Ebaluazioa Diagnostikotik eratorritako Hobekuntza Planekin lotura zuzena izaten ari da: konpetentzien dimentsio eta azpi-dimentsioekin lotuta dagoen curriculuma lantzeko, aberasteko, garatzeko erabiltzen ari delako ikastetxe askotan.

1.2 IK/KI Programan aholkularitzaren lan eta esku-hartze eremuak

1.2.1. Berritzeguneetan.

Lan eremu honetan bi alderdi nabarmenak egon dira, alde batetik, irakasleentzako prestakuntza eta beste aldetik, Berritzeguneko barne lana gehi Berritzegune desberdinetako aholkularien arteko elkarlana.

Berritzegunean egindako prestakuntza:

Hemen erabili den lan formatua gehien bat mintegia izan da, hau da ikastetxe desberdinetako irakasle talde finko bat eratzea aholkulari baten gidapean. Hori dela eta garbi azaldu behar da mintegiak izan direla ikastetxe eta irakasleen arteko lan sarea sortzeko tresna eraginkorrena.

Mintegiak era desberdinetan eratu dira, IK/KI programa garatzeko faseen arabera edota hezkuntza etapen arabera edota arloka. Berritzegune bakoitzak bere zonaldearen eta ikastetxeen ezaugarriak kontuan harturik bere antolaketa egin du.

Mintegietako partaideak ikastetxeetako IK/KI arduradunak izan dira batik bat, baina kasu batzuetan, koordinatzailetik aparte gelako irakasleek ere hartu dute parte. Berritzegune gehienetan Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak egon dira elkarrekin mintegi berdinetan; egon da kasuren bat ere etapaka antolatuta.

Mintegietan lantzen eta proposatzen diren gaiak hauek izaten dira gehienbat:

- IK/KI programaren fase eta eremu desberdinak aurkeztu, aztertu eta sakondu: A, B eta C eremuak.
- Curriculumarekin daukan uztarketa
 - ✓ Oinarrizko konpetentziak: batez ere Ikasten ikasi gaitasuna, Gizarte eta hiritar gaitasuna, norberaren ekimenerako eta autonomiarako gaitasuna, Komunikazio gaitasuna, eta lantzen den arloarekin lotutako beste gaitasunak.
 - ✓ Arlo eta materia guztietako prozedurazko eta jarrerazko edukietan.
- Ikastetxeko irakasle taldea antolatzeko eta dinamizatzeko teknikak eta tresnak.
- Praktika onak eta arazoak konpartitzea; berdinen artean irtenbideak aurkitzearen.
- Ikastetxeko prozesu eta dokumentu orokorretan uztarketa: hobekuntza planetan, arloetako eta materia desberdinetako programazioetan elkarbizitza planetan, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan, eta Urteko Planean.

GOMENDIOA:

Elkarreraginaren sustapenerako ideiak:

Programa hau beste ikastetxeetan dauden beste plan guztiekin uztartu, marko bakarrean kokatuz.

- Eskualdeko eta lurralde ikastetxe sarea bultzatu eta antolaketan lagundu
- Berdinen arteko prestakuntza eta elkarlana bultzatu: mintegietan eta ikastetxean egiten den aholkularitzan.



Mintegien erronketako bat, ikastetxeen **sarea** sortzea izaten da. Hau lortzeko, ikastetxeen arteko komunikazioa eta laguntza sistema sustatzen da; baita ere, ikastetxeen arteko bisitak, praktiken elkartrukatzea, kasuen azterketa, problemen ebazpena, ...

Berritzeguneetan erabilitako beste aholkularitza edo ekintza mota **adituekin saio trinkoen antolaketa izaten da**: bai presentzialki baita bideokonferentziaren bidez. VICeko Unibertsitateko P. Pujolàs eta JR Lagorekin batik bat.

Berritzeguneko barne lana eta Berritzegune desberdinetakoen artekoa

IK/KI programak eragina handia izan du gure barne antolaketan eta gure lanari buruzko hausnarketan ere. Gure eginkizuna eta Berritzeguneko talde desberdinen **kohesioa** eta lankidetzak bultzatu ditu.

Berritzegune gehienetan **IK/KI kudeatzeko batzorde bat** eratu da. Batzorde horretan Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Hezkuntza Premia Bereziak eta beste programa aholkulariak hartzen dute parte.

Batzordeak astero edo bi astean behin elkartzen da eta honako lanak burutzen dira:

- Aholkularitzaren inguruan beharrak identifikatu.
- Mintegien plangintza aurrera eraman.
- Hausnartu-ekin-hobetu prozesua indarrean jarri: abian ditugun prozesuei buruz sistematikoki hausnartuz.
- Ikastetxeetan emango den prestakuntza antolatu
- Beste erakundeekin lankidetzan aritu.
- IK/KI hedapen arako estrategiak landu.

Bestalde ere, **Gipuzkoako IK/KI taldea** ere eratu da, Lasarteko Berritzegunean elkartzen dena ikasturtean zehar. Bilerak horretara Gipuzkoako sei Berritzeguneetako aholkulariak bertaratu dira zonalde bakoitzean estrategiak, tresnak, hedapena eta irizpide komunak lantzeko. Gipuzkoako lantaldeak kohesio handia ematen dio Berritzegune desberdinetako lanari eta ahalbidetzen ari da Gipuzkoako Berritzegune sarea eta IK/KI ikastetxe sarea.

GOMENDIOA:

Aholkularitzarako prozedurak: IK/KI inplementatzeko dauden faseak eta prozesuak desberdintzea.

Berritzeguneetako mintegietan lan mota anitzak sustatu: programaren faseak, curriculumarekin loturak, ikastetxearen testuinguruan kokatu eta uztartu ...

- Kanpoko adituekin, BG aholkulariekin eta erakundeekin lan saioak antolatu.

- Berritzegunean eta lurralde mailan ere Ikaskuntza kooperatiboa bultzatzeko eta antolatzeko lan batzordea osatu.

- Lan saioetan tresna ugari erabili: planifikaziorako, azterketarako, informazioa tratatzeko, erabakiak hartzeko, ikas.-materialak ebaluatzeko ...

-Aholkulari bezala garapen profesionalaren markoaren jabetza izan

1.2.2 Ikastetxeetan

Ikastetxe barruan egiten den lanak ere **ezaugarri** batzuk ditu:

- Zuzendaritzaren oniritzia eta babesa ezinbestekoak dira; koordinatzailearen lidergoak ere barne prozesuak bideratzen ditu.



- Eta horretarako uneak eta guneak beharrezkoak dira: bilera-egutegia, bilera-lekua, dokumentazio-zentroa, eta gaia kokatua egotea: Hobekuntza Planean edo Prestakuntza Berrikuntza Planean edo ...
- Ikastetxe barruan egiten den aholkularitzak barne rolak kontuan hartzen ditu: zuzendaritza taldea dela, koordinatzailea dela; kanpoko aholkulariak ez ditu barne rol horiek ordezkatzeko, osatu baizik. Eta batzuetan koordinatzailea eta zuzendaritza taldearekin arituko da, beste batzuetan Pedagogia Batzordearekin edo Ikaskuntza Kooperatibo batzordearekin, beste batzuetan irakasle talde batekin, beste batzuetan klaustroarekin. Beti ere, ikastetxearekin hitzartutako helburuen arabera.

Helburu horiek anitzak izan daitezke:

- Programa azaltzea, aurkeztea, ezagutaraztea, adibideak azaltzea, erreferentziak partekatzea, ikastetxearen praktikarekin alderatzea ... Sentsibilizazio fasea litzateke
- Ikastetxearen praktikaren jarraipena egitea, gai jakin bat lan prozesuan txertatzea, egindako autotxostenei buruz aritzea, plana egiten laguntzea, rolak definitzen laguntzea, egindako praktika aztertzen laguntzea, erabakiak hartzen laguntzea...Sistematizazio fasea litzateke.
- Praktika eta markoak uztartuta daudenean, ikastetxeko dokumentu nagusietan jasota dagoenean, ikastetxearen beste proiektu batzuekin lotuta dagoenean, Unitate Didaktikoak eskura daudenean, zabaltze erabakian hartzen direnena, ikastetxetik kanpo esperientzia globala azaldu daitekeenean... instituzionalizazio fasean dago ikastetxea. Fase honetan beste azpi-gai batzuk garrantzia hartzen dute, beste planak ere ukitzen hasten dira: tutoretza plana adibidez. Fase honetako laguntza barne antolaketan eta ezagutzaren partekatze moduetan egiten da.
- Ikastetxeko aholkularitzan ere lan-tresna berdintsuak erabiltzen dira: dokumentazio-zentroa, VICeko Unibertsitateko materiala, beste ikastetxe batzuetako esperientziak, grabazioak, ikasleek egindako ekoizpenak ...
- Hausnarketa-ekintza-hobekuntza zikloan oinarritzea izaten ari da autotxostena erabiltzea. Norberaren autotxostenean islatzen diren lorpenak, zailtasunak, kezak, ... izaten dira ikuspegi globala eraikitzekeko elementu nagusiak. Koordinatzaileak laburpena egin, erregulartasunak identifikatu, arazoak taldean aztertu, edota aholkulariarekin partekatzen ditu.
- Ikastetxeak erabakitzea zertan behar duen Berritzegunearen laguntza; hartara Berritzegunearekin hitzartuko du zein une, gune eta gaitan lagunduko duen honek. Beti ere berdinen arteko eta elkarlan-marko baten barruan.

1.2.3 Beste erakundeekin lankidetzak.

Programaren hasiera eta zabalkundearen garrantzi handia izan du VICeko Unibertsitatearekin egindako lanak.

Programaren hastapenak VICeko Unibertsitateko CA/AC programarekin eman ziren. Hango esperientzia, aholkularitza eta materialak ontzat eman ziren eta pauso hauek eman ziren hurrenez hurren: prestakuntza emaile José Ramón Lago VICeko irakaslearekin harremanetan jarri eta programaren gaineko prestakuntza eta lankidetzak adostu eta garatu Lasarteko Berritzegunean, aholkularitza eredu baten praktika garatuz. Ondoren, CA/AC programa modu zabalean aurkeztu zen eta, Gipuzkoako Berritzeguneen arteko adostasuna medio, Berritzeguneetako prestakuntza eskaintzan txertatuz joan zen; jarraian, mintegiak eratzen hasi ziren eta bukatzeko, testuingurura egokituz gure ibilbide propioa egiten hasi ginen.

Bestalde programaren zabalkunderako jarduerak batzuk azpimarratzekoak dira: azkeneko sei urteetan Gipuzkoan antolatutako jarduerak komunak (Gipuzkoako Hezkuntza Berritzapen



Proiektuei Buruzko Jardunaldiak, aurkezpen-hitzaldiak, ikastaroak ...), EHUko Udako Ikastaroen barruan 2013 ikasturtean burututako II Sinposiuma (IK/KI) eta EHUko Udako Ikastaroen barruan IK/KI-ren gaineko ikastaroa.

2. Ondorioak

Ikaskuntza Kooperatiboaren inguruko aholkularitzari buruzko bi ondorio azpimarratu ditzakegu:

- BGetan dugun aholkularitza-ereduaren sendotzea eman da eta eskualdeko erreferentziako aholkulariaren egitekoak indartu egin dira.
- IK/KI programak aholkulariaren konpetentzia profesionalak areagotu egin ditu.

1.- BGetan dugun aholkularitza-ereduaren sendotzea eman da eta eskualdeko erreferentziako aholkulariaren egitekoak indartu dira.

Eskualdeko BG kideek Irakaskuntzarako lanbide-garapena bultzatzea dute helburu. Eta lan egiteko moduari buruz, zera esan dezakegu: IK-KI Programa irakasleekin egiten dugun lana **hausnarketa-ekintza zikloan** oinarritzen dela. Gelan egingo dena planifikatu, gelan martxan jarri, egindakoa jaso, koordinatzaileak bildu eta laburtu, taldean aztertu eta ondorioak atera eta hurrengo saioa prestatu. Eta hori bi guneotan: ikastetxean eta BGetan. Ondoren, egindako lanak eta esperientziak, bai ikastetxeetakoak baita BGetakoak ere, erakuslehoan kokatuko dira (Gipuzkoako Hezkuntza Berriztapen Proiektuei Buruzko Jardunaldiak).

Ziklo honetan, informazioa bilatu, tratatu eta kudeatu, konpartitu eta sortu egiten dugu irakasle taldearekin.

GOMENDIOA:

Aholkularitzarako ezagupenak:

- Curriculum dekretuak ondo ezagutu eta ikaskuntza kooperatiboaren loturak bilatu arlo bakoitzean.
- Dokumentazioa ezagutu, aztertu eta landu: Jardunaldiak, Sinposioak, VICeko web gunea, ...
 - <http://www.cife-ei-caac.com/es/>
 - <http://berriztapenjardunaldiak.blogspot.com.es/>
 - <http://aprendizajecooperativo2simposio.blogspot.com.es/>
- Aholkularien konpetentzia profesionalak ezagutu eta ongi aplikatu: ikuspegi sistemikoa, prozesuzko ikuspegia eta IK/KIren ingurukoak...

Prozesuari dagokionez, Ikaskuntza Kooperatiboko prestakuntza saio gehienetan momentu desberdinak artikulatzen dira (bai ikastetxeetako saioetan eta bai mintegi saioetan):

- a. Aurreko saioan egindako laburpenetik **abiatu**. Ondorioak, materialak, egindako atazak, konpromisoak...
- b. Aurreko saiotik eratorritako Ikastetxean egindako lana eta BGetan prestatutako lana eta materialak **partekatu**, **aztertu**, **ondorioak atera**. Egitura kooperatiboak erabiliz, esperientziak azalduz, bideokonferentziak eginez, hausnarketa tresnak erabiliz, kanpo adituak gonbidatuz, materialak aztertuz, ikasleen adibideak ikusiz, sortzen diren arazoak aztertuz eta bideratuz ...
- c. Datorren saiorako **lanak bideratu**. Zer eta nola egin aurreikusitako. Koordinatzailearen egitekoak eta irakasleen egitekoak pentsatu. Beti ere autoerregulazio marko baten



eskeman. hau da, ikastetxe bakoitzeko koordinatzaileek ikusten dute non dauden, zein lan bideratu ikastetxe azpialdeetan, nola eskatu lanak, nola bideratu ikastetxe **dokumentazio-zentroa**. Irakasleekin egingo diren lan saioak aurreikusi, interakzioa eta partaidetza sustatuz.

Sekuentzia honek bere isla izaten du dokumentazio-zentroan (bloga, moodle, site,...)

BG bakoitzeko erreferentziako aholkulariaren egitekoak indartu egin dira.

- **Ikastetxe erreferentziako aholkularia da:** ikastetxe ikuspegi globala du eta martxan dauden planen ezagutza du, hauen arteko loturak egiten saiatzen da. Testuinguru horretan kokatzen ditu BGak antolatutako IK-KI jarduerak.

- Bide batez, BGko aholkulariak **etapa erreferentzia** izaten du: prestakuntza-jarduerak antolatzen dira etapak kontuan hartuta.

- Gai batzuen erreferentzia ere izaten du, beste lankideekin partekatzen du bere ezagutza Bgan antolatutako taldeetan.

- Eta talde bezala, **eskualdeko** ikastetxean aktibatuta dauden **proiektuen begirada globala** bultzatzen du; proiektuen proiektua edo planen plana ikuspegia eraikitzen saiatzen da. Marko horretan kokatzen du Ikaskuntza Kooperatiboaren proiektua, beste proiektuetako praktikekin uztartuz: Aniztasunari erantzuna emateko Plana, Elkarbizitza Plana, Hezkidetzeta Plana, Hizkuntza Proiektua, Hirueletasun Proiektua, Tutoretza Plana, Gelako Programazioak, IKT Heldutasun ereduak, Ikastetxe Plan estrategikoa, Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua, Hobekuntza Plana, Urteko Plana, edo ikastetxeak dituen beste proiektu batzuk.

- Eskualdeko aholkulariak parte hartzen du **beste sistemetan:** lurraldeko BG-sarean, Erkidegoko BG-sarean, IK/KI sarean (Khelidôn sarea-UVIC...)

2. IK/KI programak aholkulariaren konpetentzia profesionalak areagotu egin ditu.

IK/KI Programan faseak daude: markoa ezagutu eta markoaz jabetu, talde-kohesioa garatu, ikasteko egiturak erabili, unitate didaktikoak landu, talde-planak eta autoerregulazio prozesuak landu ... beti ere, ikasle guztien inklusioa areagotze aldera, interakzioa eta elkar laguntza sustatuz eta irakasleen garapen profesionala garatuz.

Eta aholkularitza prozesuko fase bakoitzean laguntzeko, aholkulari batek **hainbat ezagutza eta prozedura erabiltzen ditu**, gune desberdinetan, sare zabal bat eraikiz: Ikastetxeak, Berritzegunea, lurraldeko lan saioak, Jardunaldiak, EHUko on-line eta udako ikastaroak, Sinposioak ...

IK/KI Programari buruz ezinbestekoak diren aspektuak:

- IK/KI Programaren marko teorikoa eta oinarriak: Inklusioa, irakaskuntza pertsonalizatua, irakaskuntza autonomia. Gelako ohiko lan egiteko moduarekin uztartzeko moduak. Ikastetxe dinamizazioa, interakzioa eta laguntza irakasle taldeetan, adostasunak lantzeko moduak.
- Talde-kohesioa: oinarriak eta dinamikak. Fase honetan sortzen diren arazoak eta bideratzeko moduak.
- Egitura kooperatiboak: sinpleak, espezifikoak eta konplexuak. Interakzioa eta partaidetza areagotzeko moduak.
- Unitate Didaktiko edo sekuentzia didaktiko kooperatiboak. Arloko jarduerak eta egiturak.
- Talde-lana eduki gisa: taldekatzea, talde-plana, saioen jarraipena, talde-koadernoak.
- Talde-lanaren ebaluazioa,
- Talde-lana areagotzeko prozesu digitalak .



- Familien eta ikas komunitatearen partaidetza.
- Oztopoak aurkitzen dituzten ikasleen partaidetza eta antolatu beharreko laguntza.
- Genero ikuspegia eta partaidetza.
- Ikastetxeko dinamizazioa: planifikazioa, aplikazioa, hausnarketa, dokumentazio-zentroa.
- Laguntza kontzeptua eta laguntza-prozesuak gizarte trebetasunekin duten lotura.
- Programaren ebaluazioa.
- Norberaren autoebaluazioa.
- Irakasleen garapen profesionala (Ikasten ikasteko gaitasuna): *Hausnartu-ekin-hobetu* prozesua.

Aholkularitza-lanari buruz:

- Irakasleen konpetentzien garapenerako metodologiak: *Hausnartu-ekin-hobetu* prozesua, lan egiteko modua, *problema ebazteko metodologia* (fase bakoitzean sortzen diren arazoei aurre egiteko bideak eta tresnak).
- Ikastetxeko proiektuen proiektua artikulatzeko ikuspegi sistemikoa: Ikaskuntza kooperatiboaren lekua eta beste proiektuekiko lotura.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ezarritako lan ildoak oinarritzat hartuta, BGko eskaintza: mintegiak, lan saioak, ikastaroak, Jardunaldiak, azalpenak,
- Gelako praktikan ematen diren aldagaien lotura sistemikoa: heterogenotasuna, gelako giroa, kultura-aniztasuna, ebaluazioa, jarduera didaktikoak, jardueraren egitura, taldekatzea, interakzioa, materialak, denboraren kudeaketa, ...
- BG-kideen arteko talde-lana, sare-lana, ...
- IK/KI Programaren inguruan dagoen informazioa iturriak: Informazioa aurkitu, tratatu, eta ekoiztu (VIC Unibertsitateko web gunea, II Sinposioko web gunea, Gipuzkoako hezkuntza Berritzapen proiektuei buruzko Jardunaldietako bloga, IK/KI-ko Moodle guneak Berritzeguneetan, edo Google sites-ak ...
- Programen eta planen ebaluazioa egiten: ebaluazio adierazleak identifikatzen eta erabiltzen jakin.
- Informazio hauen artean, hainbat artikulua, bideo, publikazio, esperientzi, ikasleen ekoizpen eta bibliografia.



Aitortu – Ez komertziala – Partekatu berdin



10.-ONDORIOAK ETA ERRONKAK.

Jose Maria Arakama (Lasarteko Berritzeguneko aholkularia).

IKASKUNTZA KOOPERATIBOAREN GURPILA.

LELOA:	ESPLIKAZIOA	ZERGATIK IK/KI PROGRAMAREN BIDEZ
AURREAK ERAKUSTEN DU ATZEA NOLA DANTZATU	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza jardueran, eduki inportanteenak ez dira atzo inportanteak zirenak, ezta gaur inportanteak direnak ere, baizik eta bihar inportanteak izango direnak. • Nazioarteko komunitate zientifikoak aurreikusi ditu zein diren bihar inportanteak izango diren edukiak: oinarrizko gaitasunak. • Indarrean dugun legediak helburu nagusitzak hartu ditu oinarrizko gaitasun horiek. 	Metodologia indibidualistatik metodologia kooperatibora salto egiten duelako; hau da, iraganetik etorkizunera.
KULTUR ERRENTA	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko gaitasun multzoa <i>irteera-profila</i> da ikasle bakoitzarentzako. • Oinarrizko gaitasun-sorta, Ikasle guztiek eskubidezkoa duten <i>kultur errenta</i> da. 	Oinarrizko gaitasunak modu naturalean eta <i>eginez</i> lantzen direlako.
INKLUSIOA DA ARDATZA	<ul style="list-style-type: none"> • Inklusioa Da euskal Hezkuntza Sistemaren ardatza” http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2007/11/07/06182a.pdf http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/adjuntos/iii_eranskina_oinarrizko_gaitasunak.pdf • Inklusioa ez da teoria, ez da testu polita, inklusioa eginez lortzen da, entrenatu daiteke eta. 	Kooperatzea eta inklusioa txanpon bereko aurpegiak direlako
GAITASUN INKLUSIBOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko gaitasunen artean, nabarmentzen dira zeharkako oinarrizko gaitasunak, beroriek direlako bizitza osorako ikasten ikasteko gaitasuna lantzen dutenak eta hezkuntza benetan inklusiboa, eginez, gara dezaketenak. • Zeharkako gaitasunak ez dira <i>maria</i> arloak, aitzitik, lehentasunezko eta goi mailako edukiak dira. • Irakasle guztiok gara zeharkako gaitasunen ikaslarazle eta entrenatzaile. • Diziiplina guztietan garatu behar dira zeharkako gaitasunak. • Diziiplina baitako kompetentzietan ikasle guztien hobekuntza nahi bada, biderik eraginkorrena zeharkako gaitasunak garatzea da. 	Metodologia klasiko indibidualistak nekez garatzen ditu ikasle guztiengan ikasten ikasteko gaitasuna eta autonomia eta garapen pertsonala, esaterako. Kooperazioaren bidez, autoerregulazioa, autoebaluazioa, taldeko ebaluazioa eta horrelakoak ohiko bihurtzearekin batera modu eraginkorrean garatzen dira.



LELOA:	ESPLIKAZIOA	ZERGATIK IK/KI PROGRAMAREN BIDEZ
ZIENTZIA, ZIENTZIA DA	<ul style="list-style-type: none"> • Zientziak dio zeharkako gaitasunen bidez lantzen diren baloreak, jarrerak, trebetasun sozialak, prozedurak, talde-lana, emozioak etab. entrenagarriak direla. • Zenbat eta gehiago entrenatu orduan eta hobeto automatizatzen dira, inkontzienterateraino. • Zenbat eta lehenago heldu zeharkako gaitasunen lanketari orduan eta emaitza hobekak lortuko dira. • Zientziak dionaren arabera <i>sortu, analizatu, ebaluatu, kooperatu, komunikatu, azaldu</i> bezalako ekintzek goi-mailako pentsamendua lantzen dute; aldiz, memorizatu, errepikatu, kopiatu-eta aditzek, behe mailako pentsamendua. 	<p>Ikerketek, kooperazioa gero eta gehiago goraipatzen dutelako, goi mailako elkarrekintzatza joaz. Irakasleok gure profesionaltasuna ikuspuntu zientifikotik eguneratzeko baliabidea dugulako. Zientzia <i>cada maestrillo tiene su librillo</i> topikoaren gainetik dagoelako.</p>
ALDAKETA	<ul style="list-style-type: none"> • Gaitasunetan oinarritutako curriculumak planteamendu berriak dakartza. • Aldaketa ez dago irakasle norbanakoaren esku, aldiz, hezkuntza-komunitate oso bakoitzari dagokio. • Aldaketak hausnarketan eta taldeko erabakietan du sostengua. 	<p>IK/KI Programak komunitatearen onespena exijitzen du. Kontraesan handia da kooperazioa modu indibidualean sustatu nahi izatea. Ezin da irakatsi egiten ez dakiguna.</p>
